

# PONENTZIA



**KONGRESUA**

2004. azaroak 26-27 noviembre  
BILBO

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

XI. KONGRESU KONFEDERALA

<b>0. Aurkezpena</b> .....	6
a) <i>Diagnostikoa</i> .....	6
b) <i>X. Kongresu Konfederalaren ondoren</i> .....	8
c) <i>Proposamenak eta lan ildoak</i> .....	9

## 1. ATALA: GURE DIAGNOSTIKOA

<b>1. Neoliberalismo ekonomikoa eta gerraren estrategia</b> ....	14
a) <i>Globalizazio ekonomikoa neoliberala</i> .....	14
b) <i>Gerraren estrategia: I-11tik M-11ra, Afganistandik eta Iraketik igarota</i> .....	15
c) <i>Europako Batasuna, globalizazio neoliberalaren bultzatzaile</i> .	16
<b>2. Lanaren mundua Euskal Herrian</b> .....	20
a) <i>Aberastasunaren banaketa</i> .....	20
b) <i>Enpleguaren bilakaera</i> .....	21
* <i>Europako Batasunekoaren mailako jarduera tasa, baina desberdina gizon eta emakumeen artean</i> .....	21
* <i>Enpleguaren eta lana dutenen hazkundea</i> .....	22
* <i>Soldatapeko, aldi bateko eta lanaldi partzialeko enpleguaren hazkundea</i> .....	24
* <i>Azpikonturak eta pribatizazioak: emakumeen eta gazteen esklabotza XXI. mendean</i> .....	25
* <i>Langabezia jaitsi da, baina goraka doa 2001etik</i> .....	26
* <i>Langile etorkinen egoera</i> .....	28
* <i>Minusbaliatuen egoera</i> .....	29
* <i>Ezbehar kopuru handia eta laneko osasuna ahazturik</i> .....	31
c) <i>Saldaten bilakaera</i> .....	32
* <i>Soldata igoera apalak negoziazio kolektiboan</i> .....	33
* <i>Enpresa irabazien hazkunde bizia eta soldata kostuen pisuaren beherakada</i> .....	33
* <i>Lan produktibitatea Europako Batasuneko baina handiagoa da</i> .	34
* <i>Gutxieneko Soldata: eros-ahalmen galera eta pobrezia mailaz behetik</i> .....	35
<b>3. Erakundeen jokabidea</b> .....	37
a) <i>Estatuaren politika publikoak</i> .....	37
* <i>Langabezia prestazioak</i> .....	37
* <i>Pentsioak</i> .....	38
- <i>Pentsio sistema lur jota omen dago edo egongo omen da</i> . . .	38
- <i>Zeharo ezinezkoa omen da Euskal Herriak berezko babes sozialeko sistema bat izan dezan</i> .....	39
b) <i>Hego Euskal Herriko erakundeen jokabidea</i> .....	39
* <i>Aurrekontu politika murriztailea</i> .....	39
- <i>Gastu publikoaren pisua behera doa ekonomian</i> .....	39
- <i>Superabita hobesten da gastu soziala handitu ordez</i> .....	40
* <i>Errenta handien, enpresa errenten eta kapitalaren errenten zerbitzuko zerga politika, iruzurra ametizen duena</i> .....	40
* <i>Indar politikorik gabe negoziatutako Kontzertu Ekonomikoa</i> . .	41
* <i>Etxebizitza: luxu, eskubide ordez</i> .....	42
* <i>Murrizten ari dira gastu publikoa osasunean</i> .....	42
* <i>Hezkuntza gastu publikoa, gainbehera</i> .....	43
* <i>Bizimodu duin, autonomo eta kalitatezkoa eramateko adinako gutxieneko diru-sarrerak ez bermatzea</i> .....	43
* <i>Zerbitzu sozialen garapen eskasa</i> .....	44
* <i>Azpiegitura politika desegoki eta loturarik gabea</i> .....	44

* Ingurumen kostu handiak .....	45
* Politika negargarria Etengabeko Prestakuntzan .....	46
<b>4. Itun Antiterroristatik gobernu aldaketara espainiar estatuan .....</b>	<b>48</b>
a) Alderdi Popularrak zortzi urtez gobernatu ostean .....	48
b) Espainian gobernu aldatu ondoko inkognitak .....	50
c) Indarkeria zikloak amaitu egin behar du .....	51
d) Proposamen ugari garaia .....	52
e) Erakunde errealtate negargarria .....	53
f) Kezka sozialik gabeko gobernariak eta administrazioak ...	54
g) Iparraldeari dagokionez .....	55
h) Ondorioak .....	55



## KONGRESUA

2004. azaroak 26-27 noviembre  
BILBO

### 2. ATALA: LAU URTE BORROKAN, SENDOTZEN ETA KONPROMISOAK HARTZEN

<b>5. Globalizazio neoliberalaren aurka borrokatzeko konpromisoa .....</b>	<b>58</b>
a) Globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduaren sorrera eta sendotzea .....	58
b) ELAren parte-hartzea nazioarte mailan .....	59
c) Nazioarteko erakunde sindikalak: SLNK-LMK eta egungo egoera .....	60
<b>6. Beste negoziazio kolektibo eredu bat bilatzeko konpromisoa .....</b>	<b>62</b>
a) Negoziazio kolektibo eredu baten krisia .....	62
b) Fase berri baterako aintzat hartu diren gakoak .....	63
c) Ondorioa: eredu sindikaletan dago benetako eztabaida ...	64
<b>7. Gizarte eredu justuago eta solidarioagoa sortzeko konpromisoa .....</b>	<b>66</b>
a) Diagnostikoa eta proposamenak egiteko gaitasuna hobetzen .....	66
b) Mobilizazioa, geure errebindikazio posizioa indartzeko bide .....	66
c) Euskal Herriko Gizarte Foroa .....	66
<b>8. Demokraziarekiko eta euskal subiranotasunarekiko konpromisoa .....</b>	<b>68</b>
a) Erantzun beharrekoak... ..	68
b) ... eta hartu ditugun ekimenak: 2002ko E-19ko greba orokorra .....	68
<b>9. Antolamendua etengabe egokitzen: kontrabotere izateko asmoa .....</b>	<b>70</b>
a) Afiliazioa .....	70
b) Ordezkaritza .....	71
c) Eskualde integralaren eragingarritasuna sakontzea .....	71
d) Militanteak ugaritzea eta motibatzea. Oinarri erakundeak dinamizatzea .....	72
e) Federazio profesionalak indartzen jarraitzea. Lan metodo berri bat sakondu eta hedatu (antolamendu plana) .....	72
<b>10. Gure eredu sindikala errazten eta blindatzen duten alor eta zerbitzuak indartzen .....</b>	<b>74</b>

a) Zerbitzu juridikoen alorra .....	74
b) Lan osasunaren alorra .....	75
c) <i>Negoiazio kolektiboaren eta politika industrialaren bulegoa</i> .....	76
d) <i>Azterketa bulegoa</i> .....	76
e) <i>Greba-kutxan egindako hobetzeak</i> .....	77
f) <i>Prentsaren eta komunikazioaren alorra</i> .....	77
g) <i>Teknologia berriak</i> .....	78

### 3. ATALA:

#### GURE PROPOSAMENAK ETA ILDO OPERATIBOAK

<b>11. Giza-, gizarte- eta lan-eskubideak zein herrien eskubideak globalizatu</b> .....	80
a) <i>Giza-, ekonomia-, gizarte- kultura- eta ingurumen- eskubideek nahitaez betetzekoak izan behar dute</i> .....	80
b) <i>Europa soziala eta herriena</i> .....	80
c) <i>Nazioarteko erakunde sindikalak</i> .....	80
d) <i>Foroak egokitu beharra</i> .....	81
e) <i>ELAren nazioarteko ekintza</i> .....	81
<b>12. Negoiazio kolektiboa indartu enpresetan eta sektoretan</b> .....	83
a) <i>Ezegonkortasuna eta diskriminazioa ekintza sindikalaren muinean</i> .....	83
b) <i>Alternatibak eraiki, enpresetan eta sektoretan konbinatuz ekintza</i> .....	84
c) <i>Militanteen eta afiliatuen antolamendua eta parte-hartzea</i> ..	85
d) <i>Aliantza politika</i> .....	86
e) <i>Gatazkak sozializatu</i> .....	86
<b>13. Jauzi bat egin gizarte ereduaren auzian</b> .....	87
a) <i>Gure militantzia militantzia oso bihurtu</i> .....	87
b) <i>Aliantzak bilatzea</i> .....	87
c) <i>Proposamenen aipamen labur bat</i> .....	87
* <i>Enplegua eta lan baldintzak</i> .....	87
* <i>Zergak</i> .....	88
* <i>Eskubide sozialak</i> .....	89
<b>14. Euskal Herria: Gatazka politikoa eta nazio eraikuntza</b> ...	91
a) <i>ELAren konpromiso politikoaren izaera</i> .....	91
* <i>Nazio konpromisoa</i> .....	91
* <i>Klase ikuspegia</i> .....	91
* <i>Autonomia osoa</i> .....	92
b) <i>Ardatz estrategikoak</i> .....	92
* <i>Demokrazia sakontzen eta indarberritzen saiatu</i> .....	93
* <i>Giza eskubideen eta bizikidetzatza gizatiarrago baten alde</i> .....	94
* <i>Eduki sozialez hornitu euskal autogobernua, euskal lan harremanen eta babes sozialaren esparrua eskatuta</i> .....	95
* <i>Autodeterminazio eskubidea eztabaida politikoaren erdian kokatzea</i> .....	97
c) <i>Konpromiso militantea berritu</i> .....	100
<b>15. Gure ekintza eremua zabaltzen</b> .....	101
a) <i>Genero politikak</i> .....	101
b) <i>Gazteak</i> .....	102

c)	<i>Konpromiso handiagoa etorkinekin</i>	103
d)	<i>Ingurumen auziak sartu</i>	104
e)	<i>Euskararen normalizazioa bultzatu ELAn eta enpresetan</i>	104
<b>16.</b>	<b>"4 x 12 = 29" antolamendu plana bultzatu eta garatu</b>	<b>106</b>
a)	<i>Zenbait hausnarketa</i>	106
	* Errebindikaziozko eredu sindikalak badu etorkizunik	106
	* Ezin da errebindikazio eredurik eduki enpresetan egon gabe	106
	* Parte-hartzea errazteak eztabaida eta proposamenak aberasten ditu, eta konpromiso sindikala sendotzen du	107
	* Neurri egokia duen erakunde bat; ikuspegiz, baliabidez eta metodoz lan egin	108
	* Gure proiektu sindikala erakargarria da	109
b)	<i>Afiliazioa eta ordezkartza</i>	109
c)	<i>Atal sindikal gehiago eta hobeak. Lau federazioak indartu</i>	109
	* Atal sindikal gehiago eta hobeak	109
	* Lau federazioak indartu	110
	* Eskualde Batzorde Federalak	112
	* Batzarretan parte hartzea sustatu	112
d)	<i>Herri-batzak eratzea eta dinamizatzea. Eskualde integrala garatzea</i>	112
	* Herri-batzak eratzea eta dinamizatzea	112
	- <i>Eskualde Kontseilua</i>	114
	* Eskualde integrala garatzen jarraitu	114
	- <i>Eskualde Batzordea. Osaera eta eginkizunak</i>	115
	- <i>Eskualde araudiak. Eskualde Batzeko kideen estatusa</i>	116
e)	<i>ETEetako lana</i>	116
f)	<i>Prestakuntza sindikala</i>	117
<b>17.</b>	<b>Aliantza sindikal eta sozial zabalak sortzeko lana</b>	<b>120</b>



## KONGRESUA

2004. azaroak 26-27 noviembre  
BILBO

# O AURKEZPENA

**00. 101.** Ponentzia orokor honen eztabaidak, zuzenketen prozesuak eta XI. Kongresuak azkenik guztia onartzeak helburu hirukoitza du:

**00. 102.** – Euskal langile klasearen egoeraren diagnostikoa egitea,

**00. 103.** – Konfederazioaren azken lau urteko ibilbidea ikustea,

**00. 104.** – Hurrengo kongresu arteko aldirako lan ildoak ezartzea.

## A) DIAGNOSTIKOA

**00. 105.** Gure diagnostikoa egitean, nahitaezkoa da globalizazio prozesuaren alderdirik gogorrenak aipatzea.

**00. 106.** Programa neoliberalak ia mundu osoan ari dira ezartzen oraindik, zuzenketa nabaririk gabe: mailaka liberalizatzen dira kapitalen merkatuak, ondasunak eta zerbitzuak; irabazi ekonomikoak eman ditza-keten jarduerak pribatizatzen dituzte, eta, haien artean, bereziki, zerbitzu publikoak (energiak, garraioa, komunikazioak, osasuna etab.); era askotako nazioarteko itunek eskubideak ezartzen dituzte enpresentzat eta kapitalarentzat, eta, aldi berean, estatuak uko egiten diote giza eskubideak eta langile eskubideak bermatuko lituzketen mekanismoak sortzeari. Dinamika horiekin batera, funtsezko datua da nazioarteko harremanen militarizazioa, 2001eko irailaren 11tik munduan dugun egoera ulertzeko: prozesu hori ere kapital pribatuaren onurarako ari da erabiltzen, Iraken inbasioan nabarmendu den bezala.

**00. 107.** Horregatik guztiagatik, ponentziak oso gaizki irizten dio globalizazio prozesua deritzanari, eta halaber, nazioarteko erakunde batzuek (Merkataritzaren Mundu Erakundeak, esaterako) prozesuan duten eginkizunari.

**00. 108.** Oinarri ideologiko horietatik beretik ari dira eraikitzen Europa ere. Europa soziala darabilte hitzetik hortzera, elkartasuna eta kohe-sioa omen dira gure kontinente zaharrea atxiki beharreko nortasun ezaugarriak, baina arauetan eta praktikan neoliberalismo hori bera dakusagu, hots, pribatizazioak, lan erreformak, zerbitzu sozialak murriztea... Gainera, estatuaren arteko botere eztabaida bat da Europan egin den eztabaida nagusia, europar konstituzioaren itunaren eztabaidan ikusi berri dugun bezala. Eztabaida soziala ez da inon ageri, eta, egin berri den hedatzea adibidetzat harturik, lehiakor izan beharra eta kostu sozial nahiz lanekoak murriztu beharra azpimarratzen dira, sartu berri diren herriek egin omen lezaketan dumping-ari aurre egiteko. Bestalde, Europako Parlamenturako egin berri diren hauteskundeetako abstentzio handiak hausnarketa piztu behar luke eraikitzen ari diren Europaren zilegitasunaz eta babesaz.

**00. 109.** Euskal Herrian, administrazioek eta kapital produktiboek nahiz finantzarioek bultzatzen dute eredu neoliberalak. Enpresariaren errentek ateratzen dute onurarik gehien aberastasunaren hazkundetik; lan kostuak baino askoz gehiago hazten dira horiek, eta, aldi berean, jaitsi egiten dira gastu soziala eta zerga-presioa, Europako batez bestekoaren oso behetik baitaude biak ere.



**00. 110.** Azken lau urtean, hazi egin da enplegua, baina izugarri handia da ezegonkortasuna ere, eta hedatu egin dira diskriminazio mota ugari (sexuagatik, adinagatik, jatorriagatik, gaitasun fisiko zein psikikoagatik... azpikontratatzeeen, ABLEen etab.en bidez). 1993tik (orduan hasi zen hazkunde ekonomikoa), jaitsi egin da langabezia, baina hazten ari da berriro, 2001etik. Lana arriskutsua gertatzen da, gainera. Hilan kopurua ez bide da nahikoa, legeak segurtasunaren alorrean aurreikusten dituen arauak behin betiko ezar daitezten. Gure lehiakortasuna eta produktibitatea apalagoak direla esanez zuritzen dute ugazabek lan merkatuaren egoera iraunkor eta negargarri hori. Ponentziak agerian ipintzen du diskurtso horren gezurra, eta frogatzen du produktibitatea askoz handiago dela Euskal Herrian langile bakoitzeko, Europako Batasunean baino.

**00. 111.** Administrazio publikoek azken urteetan ezarri dituzten politika ekonomikoek, sozialek eta lanekoek ere eragin dute langileek aberastasunaren gero eta zati txikiagoa jaso dezaten. Esate baterako, langabezia sarien eta pentsioen alorretan (espainiar estatuaren eskumen dira biak ere) gertatuari begiratuz gero, ikusten dugu lanik gabe dauden lagunen erdiek ez dutela inongo estaldurarik INEMetik (Enpleguaren Institutu Nazioanala), nahiz eta erakunde horrek superabit handi samarra duen. Ponentziak ohartarazten du bi gezur handi sinetsarazi nahi dituztela enpresa eta finantza botereek, bi gezurrak behin eta berriz errepikatuta: lehena, pentsioen sistema lur jota dagoela; bigarrena, guztiz ezi-nezkoa dela babes sozialeko berezko sistema bat Euskal Herrian

**00. 112.** Gauza bera esan daiteke euskal erakundeen politika publikoek. EAEko eta Nafarroako gobernuen gastu publikoak gero eta pisu txikiagoa du ekonomiaren osotasunean. Gainera, EAEko erakundeen (Jaurlaritza, diputazioak, udalak) aurrekontu likidazioak superabita ematen du azken aldi honetan, BPGaren %2 ingurukoa. Deigarria gertatzen da amorratuta zorra murriztera jotzea, premia sozial garrantzitsu batzuk (etxebizitza, zerbitzu sozialak, osasun zerbitzuak, ingurumena...) bete gabe daudenean.

**00. 113.** Zerga alorrean, jaisten ari dira errenta handien gaineko zergak, eta aldaketak beti haien alde egiten dira. Handitu egin da PFE-Zean laneko errentak eta bestelakoak aitortzen dituztenean arteko leizea, diru-sarrera handiagoak aitortzen baitituzte beti lehen multzokoek. Erakundeak oso onberak dira iruzurrarekin: lanekoak ez diren errenten %1,2 bakarrik ikuskatzen dira urtero.

**00. 114.** Etxebizitza erosteak ere gero eta zama handiagoa du familien errentan, eta luxu bihurtuko da laster, eskubide izan beharrean. Bestalde, osasunaren arloko gastu publikoa, bai EAEn bai Nafarroan, beheraka doa, eta berdin hezkuntzako, bi arloetan gabezia handiak egon arren.

**00. 115.** Politika mailan, PPK bere erara kudeatu du terrorismoaren aurkako ituna lau urte honetan, beti PSOEn adostasunaz. Ponentziak ohartarazten du itun horrek ezkutuko edo aitortu gabeko helburu bat izan duela beti: ETAren indarkeria aitzakiatzat harturik, independentismoa zapaldu dute, abertzaletasun osoa kriminalizatu, eta (haien hitzak berak erabilita) "25 urteko autogobernuaren gehiegikeria deszentralizataileak mugatu dira". Itun hori izan da, halaber, Estatuak abertzaleen arteko edozein elkarlan motari emandako erantzuna; Lizarrako adierazpenaren ondotik igar zitekeen elkarlanari, adibidez. PPren gobernu

[ Administrazio publikoek azken urteetan ezarri dituzten politika ekonomikoek, sozialek eta lanekoek ere eragin dute langileek aberastasunaren gero eta zati txikiagoa jaso dezaten. ]

[ Etxebizitza erosteak ere gero eta zama handiagoa du familien errentan, eta luxu bihurtuko da laster, eskubide izan beharrean. Bestalde, osasunaren arloko gastu publikoa, bai EAEn bai Nafarroan, beheraka doa, eta berdin hezkuntzako. ]

[ PPren gobernu heldzean, baketzea ezkutatu egin zen agenda politikotik, eta edozein proiektu defendatu ahal izatetik, ideologiak kriminalizatera igaro zen, eta indar politiko bat legez kanpo ezartzera. ]

[ Lau urteotan proposamen interesgarriak egin dira autogobernuari dagokionez. ELAko Batzorde Nazionalak bere "Proposamen Soberanista Baterako Apunteak" argitaratu zuen. Halaber, nabarmentzekoa da, sustatu zutenengatik eta Parlamentuan eztabaidatu zelako, Eusko Jaurlaritzak luzatutakoa. ]

[ ELA modu sendoagoan konprometitu da, lehenik, globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduan. ]

heltzean, baketzea ezkutatu egin zen agenda politikotik, eta edozein proiektu defendatu ahal izatetik, ideologiak kriminalizatzen igaro zen, eta indar politiko bat legez kanpo ezartzera. Nabarmen egin da atzera askatasunen eta giza eskubideen mailan, nazioarteko talde eta erakunde ospetsu batzuek dioten bezala.

**00. 116.** Hauteskunde orokorretan PPK galdu izanak aiduru jarri ginen. Bistakoa da badagoela alderik, formetan, oraingo eta aurreko Espainiako gobernuen artean, baina ikusi egin behar, oraindik, gobernu berriak neurri zehatzik hartzen duen, demokrazia indarberritzeko. Ekaineko europar hauteskundeetarako HZ legez kanpo ezartzeak salbuespen egoera mekanismoetan sakontzea dakar. Eta estatu itun politiko bat dago beti: ez da ametitzen euskal gizarteak, inoren esku hartzerik gabe, bere geroa erabaki dezan. Gai horretan, ez dago inongo alderik, orain ere, estatuko bi alderdi handien artean.

**00. 117.** Ia hogeita hamar lagun hil ditu ETAk aurreko kongresu arteko aldian, eta euskal herritar ugari dirau mehatxupean. Behin eta berri esan dugu: amaitu egin behar du gure historiako garai horrek. Hainbeste urtean indarkeria erabili izanak zauri sakona utzi du eta utziko du bizikidetzaren esparru ugarian, eta are jarduera politikoa berean. Berretsi egiten da aurreko kongresu konfederalean esandakoa: ETAk ez du zilegitasunik prozesu politikoa zuzentzeko edo hartan eragiteko. Hala eta guztiz ere, ez da inongo atentatu hilgarri izan urtebete baino luza-roagoan (ez dakigu zergatik); horrek lasaitu egiten du giroa, eta erraza goa da eztabaida arrazionalagoa egitea, lehenago baino.

**00. 118.** Lau urteotan proposamen interesgarriak egin dira autogobernuari dagokionez. ELAko Batzorde Nazionalak bere "Proposamen Soberanista Baterako Apunteak" argitaratu zuen. Halaber, nabarmentzekoa da, sustatu zutenengatik eta Parlamentuan eztabaidatu zelako, Eusko Jaurlaritzak luzatutakoa. Interes handiko osagaiak ditu Jaurlaritzaren proposamenak, baina argitu beharreko funtsezko gauzak ere bai: bereziki, ea noren laguntzaz atera behar duten plan hori aurrera. Bestalde, ez da izan gizarteari irekitako plan bat, zioten bezala, eta, ikuspegi soziolaboralek, testua etsigarria da.

**00. 119.** Etsigarriak izan dira, era berean, gure erakundeek jokabide batzuk, autogobernuari eta, bereziki, espainiar estatuak autogobernuari egin dizkion erasoei dagokienez. Tinkotasun politikorik eza eta hitz emanak ez bete izana (falta diren eskumenak alde bakarretik garatzea, adibidez) dira periodo horren ezaugarriak. Erakundeek gidariek eta arku politiko ia osoak kezka sozial oso txikia agertu dute, bestalde. Lehendakaria bera zeharo ugazaben alde ikustea eta PPK-PSOEK-EAJK-EAK, Eudelen, azpikontratan lan baldintzak normalekin parekatzearen gatazkan erakutsi duten jarrera arras negargarriak dira: arlo sozialean ez da oposizio politikorik, baizik itun ezkutu bat, alderdi politiko nagusiek elkarri ez erasotzeko. Orobat esan daiteke Nafar Gobernuak ugazabekin eta multinazionalarekin duen jarreraz.

## B) X. KONGRESU KONFEDERALAREN ONDOREN

**00. 120.** Bigarren atalean, Konfederazioak aurreko kongresu arteko aldian egindako bidea deskribatzen du, labur-labur, ponentziak.

**00. 121.** ELA modu sendoagoan konprometitu da, lehenik, globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduan, eta parte hartu du, bai na-





zioarteko foroetan eta mobilizazioetan, bai bertokoetan: Euskal Herriko Foro Sozialean, adibidez. Globalizazioaren aurkako mugimenduaren parte bezala egin dugu hori, eta mobilizazioetan izan diren erakunde sindikalen parte bezala, baita ere. Era berean, estaturik gabeko nazio bateko sindikatu garen aldetik, gure antzeko arazoak eta nortasunak dituzten beste sindikatu batzuekin elkartu gara.

**00. 122.** Lan munduari dagokionez, oso anbizio handiz ekin diogu negoziazio kolektiboari. Iritzi eta irizpide operatibo sendoak ditugu horretarako, eta iruditzen zaigu euskal langileriaren zati handi batean ere badirela horiek. Hona iritzi eta irizpide horietako batzuk: edukien garrantzia; esparruak indar-erlazioen arabera aukeratzea; militante eta afiliatuen parte hartzearen garrantzia; borrokarako gogoia; informazio, prestakuntza eta erresistentzia zerbitzuak eskaintzea, eta izan daitezkeen aliatuekin estrategietan bat etortzearen garrantzia.

**00. 123.** Gizarte ereduari dagokionez, aurrera egin dugu diagnostikatzeko eta proposamenak egiteko gaitasunean, eta gai berriak sartuz joan gara. Mobilizazio edo agerraldi sendoak egin ditugu erreforma antisozialen aurka (E-19, PFEZaren erreforma, pentsioak), eta erakundeek onartu ez dituzten eskakizunak ere egin ditugu (Eskubide Sozialen Agiria, etxebizitza, trenbide sarea...). Halaber, ELA era aktiboan ari da parte hartzen Foroaren prozesuan, Gasteizko 2003ko topaketan ikusi zen bezala.

**00. 124.** Espainiako Gobernuak lau urte honetan ezarritako jokaleku politiko gogorra dela eta, errepresioaren aurkako mobilizazio ugari egin behar izan dugu. Baina izan dugu beste ekimen interesgarrikerik ere. Horra E-19ko greba orokorra, adibidez. Esan behar da espainiar gobernuaren dekretu antisozialari uko egitea baino gehiago izan zela hura.

**00. 125.** Antolamendu mailan, egokitze handiak egin dira kongresu arteko aldian, eta gure eredu konfederalean sakontzeko aukera eman digute horiek. Egokitze horietatik, bi nabarmenduko ditugu: lehena, liberatuen egituraren eta langileen ordezkaritza belaunaldi eta genero mailatan egin diren berritze sakonak; bigarrena, antolamendu plana; 2003ko kongresu konfederal berezian eta federazio profesionalek urte berean egindako kongresuetan berretsi zen plan hori. Eskualde integrala ere askoz eragingarriago bilakatu da aldi horretan, antolamendu aldaketa guztien onuragarritik zalantzarik gabe.

**00. 126.** Afiliazio mailan, X. Kongresuak 100.000 afiliatu lortzea ezarri zuen helburutzat 2004rako, eta aise gainditu dugu kopuru hori. Eta, horregatik, diskriminazio baldintzak jasaten dituzten langileei gure eredu sindikalak erantzun egokia ematen dienean ondoriozta dezakegu areago garelako bihurtzen erreferentzia langileentzat. Handitu egin dugu, baita ere, geure ordezkaritza maila.

**00. 127.** Sindikatuaren zerbitzu guztiak indartu dira, gure eredu sindikala sendotuz joan dadin. Zerbitzu juridikoa eta greba-kutxa indartu ditugu besteak beste, afiliatuen interesen defentsarik onena bermatzeko. Lan osasunaren bulegoa ere handitu da, gure militanteek gai horretan prestakuntza hobea izan dezaten. Ildo beretik, hobekuntza handiak egin dira teknologia berrietan, eta web orriak garatu dira.

## C) PROPOSAMENAK ETA LAN ILDOAK

**00. 128.** Egoeraren diagnostikoa eginik eta orain arte egindako urratsak aztertutik, Konfederazioak datorren lau urterako dituen proposa-

[ Lan munduari dagokionez, oso anbizio handiz ekin diogu negoziazio kolektiboari. Iritzi eta irizpide operatibo sendoak ditugu horretarako, eta iruditzen zaigu euskal langileriaren zati handi batean ere badirela horiek. ]

[ X. Kongresuak 100.000 afiliatu lortzea ezarri zuen helburutzat 2004rako, eta aise gainditu dugu kopuru hori. ]

[ Kongresu-testuak dio  
gizarte ereduaren  
inguruko ekintza sindikala  
(politika sozialak, zergak,  
pribatizazioak...) dela  
aurrean ditugun erronka  
handienetako bat. ]

menak eta lan ildoak ezartzen ditu ponentziak bere hirugarren atalean.

**00. 129.** Lehen-lehenik, gogorarazten da premiazkoa dela globalizazio prozesuaren norabidea aldaraztea, giza eskubideak, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak nahitaez bete beharrekoak izan daitezzen; herrien Europa benetan sozialaren alde agertzen gara berriro, eta Foro Sozialak (Mundu, Europa nahiz Euskal Herri mailakoak) sendotzearen alde; foro horiek irekiagoak eta parte-hartze handiagokoak izatea nahi da, gainera.

**00. 130.** Lan munduan, ELAk negoziazio kolektiboa indartzearen alde egiten du apustu. Horretarako, lan merkatuan diskriminazioa eta eze-gonkortasuna gutxituko dituzten edukiak definitzen ditu, eta eduki horiei ematen die lehentasuna; gure sindikatuak oroitarazten du esparruak konbinatu eta batera jorratu behar direla negoziazioan; bestalde, zera bilatzen da, argi eta garbi: militanteek nahiz afiliatuek parte-hartze handiagoa izatea errebindikazio dinamikaren fase guztietan. Helburu horiek iristeko, bi gai garrantzitsu aipatzen dira: lehenik, bat datozen apustu sindikaletan oinarritzea aliantzak; bigarrenik, gatazkak sozializatzeko lan egitea, hau da, herritarren iritzia geureganatzea gatazkak irekita ditugun herrietan.

**00. 131.** Kongresu-testuak dio gizarte ereduaren inguruko ekintza sindikala (politika sozialak, zergak, pribatizazioak...) dela aurrean ditugun erronka handienetako bat. Horretarako, ELAko militanteak neoliberalismoaren aurkako militante aktibo izan daitezzen lortu behar dugu, eta toki guztietan izan daitezzen hala, enpresa eta gizartea bereizi gabe. Gai horri dagokionez, proposamen kopuru garrantzitsua egiten da ponentzian, eta gure ekintza sindikala zein gaitan egin zerrenda bat ematen da (prestazio ekonomikoak, osasun zerbitzuak, etxebizitza, oinarritako errenta, premia bereziak dituztenentzako arreta, ingurumena...).

**00. 132.** Sindikatuaren konpromiso politikoari buruz, lau lerro estrategiko aipatzen dira: demokrazia sakontzeko eta indarberritzeko lanean jarraitzea; giza eskubideen eta elkarbizitza gizatiarrago baten alde lan egitea; euskal autogobernua eduki sozialez hornitzea, euskal lan-harremanen eta gizarte-babes esparru bana errebindikatuz, eta, azkenik, autodeterminazio eskubidea eztabaida politikoaren erdi-erdian kokatzea.

**00. 133.** Ponentziak gure jarduera eremua sakontzera eta zabaltzera gonbidatzen du. Horretarako, gero eta konpromiso sakonagoa hartu behar da gazteen eta emakumeen alde. Eta hori baino urrats handiagoa egin behar dugu, oraindik, etorkinei dagokienez, bai diagnostikoaren mailan, bai jarduera proposamenen mailan, sindikatuaren egitura eta zerbitzu guztiak horretara jarrita. Prestakuntza sindikala ere behar-beharrezkoa da oraindik: batetik, sentiberago bihur gaitezen gizarte-ereduaren eta lan merkatuan diskriminatuen dauden taldeen problematika berri horietaz; bestetik, hobeki molda gaitezen gure jarduera sindikalaren alderdi arruntetan. Zeharka, berriz, euskararen erabilera normalizatu behar dugu sindikatuaren egituretan eta enpresetan, lan harremanen mundua baita hizkuntz normalizazioa atzeratuen dagoen arloetako bat.

**00. 134.** Azkenik, datorren lau urterako antolamendu lehentasunak ezartzen ditu ponentziak. Eta beronek dioen legez, lehentasuneko da "4x12=29" antolamendu plana garatzea. Horretarako, atal sindikalak sendotu behar dira aurrenik, eta jarraipen estua egin behar zaio zeregin horri. Hori egin ahal izateko, federazio profesionalek lan metodologia bat garatu behar dute, helburuak ezartzen eta ebaluatzen lagungarri izan-



go dena. Eskualde-batzorde federalak garatzea eta afiliazio nahiz langile guztiak enpresan parte hartzera bultzatzea are lagungarriago gertatuko zaizkigu helburu horiek iristeko.

**00. 135.** Eskualde integralari dagokionez, ponentziak herri-batzak eratzea eta garatzea dauka erronka handitzat, ELAko militantziaren oinarrizko gune izan daitezen, eta, bide batez, eskualde integrala indar dezaten: hori guztia, noski, eginkizun aktiboago bat izateko negoziazio kolektiboan, eta hausnarketa zein ekintza konfederala lantzeko.

**00. 136.** Urrats sendoak egin ditugu urte hauetan: enpresa txiki eta ertainen ardura ez dago jada erakunde profesionalen esku; eskualde integrala eta aitzindaritza konfederala indartu ditugu, zerbitzu juridikoak eta pertsonenganako arreta eskualdera ekarriz eta hedatuz. Horrek guztiak erraztu egiten digu geure funtsezko helburua iristea, hau da, enpresan botere sindikala irabaztea.

[ Urrats sendoak egin ditugu urte hauetan: enpresa txiki eta ertainen ardura ez dago jada erakunde profesionalen esku; eskualde integrala eta aitzindaritza konfederala indartu ditugu, zerbitzu juridikoak eta pertsonenganako arreta eskualdera ekarriz eta hedatuz. Horrek guztiak erraztu egiten digu geure funtsezko helburua iristea, hau da, enpresan botere sindikala irabaztea. ]

# 1. ATALA

GURE  
DIAGNOSTIKOA



**KONGRESUA**

2004. azaroak 26-27 noviembre  
BILBO

**ELA**

EUSKAL SINDIKATUA

XI. KONGRESU KONFEDERALA

# 1.

## NEOLIBERALISMO EKONOMIKOA ETA GERRAREN ESTRATEGIA

**01. 101.** Aurreko kongresuan globalizazioaren azterketa bat egin genuen, bereziki ikuspegi ekonomikotik. Datu ugariaren arabera, globalizazio neoliberalaren garaiak ez dakarkio onurarik, oraindik ere, biztanleriaren zatirik handienari. Aski da 90etako hamarkadako (etsipenaren hamarkada, zinez, herri askorentzat) bilakaerari buruzko datu batzuk oroitzea, Nazio Batuen Erakundearen Garapenerako Programako "Giza Garapenari buruzko 2003ko Txostena" izenekoan daude jasorik eta:

**01. 102.** – 54 bat herri pobrego dira orain, 1990ean baino (*per capita* sarrerak jaitsi egin dira). Horietatik, 20 Saharaz hegoaldekoak dira, 17 Ekialdeko Europakoak, 6 Latinoamerikakoak edo Karibekoak, 6 Asia ekialdekoak edo Ozeano Barekoak eta 5 Arabiar estatuak.

**01. 103.** – 21 herritan, lehen baino jende gehiago da gose orain, eta beste 14tan, berriz, 5 urtez beheko haur gehiago hiltzen da.

**01. 104.** – 34 herritan, laburtu egin da bizi-esperantza. Gutxitan izan dira, txostenaren arabera, horrelako atzerakadak biziraupen mailan.

**01. 105.** – 21 herritan, jaitsi egin da Giza Garapen Indizea (GGI): oso gertakari bakana, ez baitira erraz galtzen GGIak hartzen dituen gaitasunak.

**01. 106.** – Giza garapen maila apala duten eta horren datuak dau- den 67 herrietatik 37tan, igo egin ziren pobrezia mailak.

### A) GLOBALIZAZIO EKONOMIKO NEOLIBERALA

**01. 107.** Hauek dira globalizazio ekonomikoaren prozesuaren ezau- garri nagusiak:

**01. 108.** – Gero eta gehiago liberalizatzen dira sektore ekonomiko guztiak. Gobernuak zenbait neurri hartu dituzte kapitalen mugimen- duak liberalizatzeko, eta horrek finantza merkatuen nagusitasuna ekarri du, horiek baitira jadanik politika ekonomikoen egiazko gida- riak. Baina harago joan da liberalizazioa, ondasun eta zerbitzu guz- tiak hartu nahian.

**01. 109.** – Negozio arlo bihurtzen ditu jarduera guztiak. Zerbitzu publiko guztiak liberalizatzen eta pribatizatzen dira, jarduera guz- tiak (gizadiarentzat funtsekoak barne: ura, osasuna, hezkuntza etab.) lehiaren legeen arabera ibil daitezten, eta, beraz, etekin ekonomiko pribatuak sortzeko iturri izan daitezten.

**01. 110.** – Eskubideak ezartzen dira enpresentzat eta kapitalaren- tzat. Nazioarteko arautzeak hainbat tresna, itun etab. sortu ditu, en- preseari eta kapitalari bermeak eskaintzeko neurriak (nahitaez bete be- harrekoak) dakartzatenak, eta hainbat organo jarri dira enpresen eta kapitalaren eskubide horiek babesteko.



**01. 111.** – Giza eskubideak, eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo ingurumen mailakoak asmo adierazpen hutsak dira. Giza Eskubideen Adierazpena nahiz Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Itun Politikoa ez dira nahitaez bete beharrekoak, eta ez ditu inongo erakundek babesten; enpresen eskubideak, aldiz, bai.

**01. 112.** Estrategia horretan, funtsezko eginkizuna izan dute nazioarteko erakunde batzuek; bai tradizionalak, Nazioarteko Moneta Funtzak (NMF) eta Munduko Bankuak (MB), nola Merkataritzaren Mundu Erakundeak (MME).

**01. 113.** NMF edo MB izan dira finantza erakunde ezagunenak. Horiek, MME bezala, gobernu arteko erakundeak dira, eta, beraz, gobernuak dira horien arduradun, maiz ahanzten baita xehetasun hori. Kritika nagusi bat egiten zaie NMFri eta MBri: mailegu politika berezi bat praktikatzan dute herriekin (eta kanpo zor publiko handi bat sortzen dute haietan, sekulako oztopo bihurtzen dena gero), eta, horren truke, herri horiei politika zehatz batzuk ezartzen dizkiete (baldintza sortak): gastu soziala murriztea, pribatizazioak etab. Hori kaltegarri gertatzen da beti enpleguarentzat eta pertsonen bizi kalitatearentzat. Politika horiek sekulako hondamena sortu dute horien herri jarraitzaile nagusietan (Latioamerikako herrietan, oro har, eta, bereziki, Argentinan, Argentina baitzen jarraitu beharreko ereduak).

**01. 114.** Beste erakunde ez hain ezagun batek izan du funtsezko eginkizuna estrategia horretan: MMEk, hain zuzen. Porrot egin zuen Cancuneko goi-bileran gertatua aztertuz hurbil gaitzke apur bat gehiago MMEren izaerara. Goi-bilera horretan, bizitzako arlo guztiak salgai bihurtzeko erak eztabaidatzen ziren: enpresek eskubide osoa izan behar omen dute gobernuak (lan arloan, arlo sozialean, ingurumenean...) ezarritako arauen aurka jotzeko, baldin eta arau horiek lehiari kalte egiten badiote; enpresa pribatuek eman behar omen dituzte funtsezko zerbitzuak, zerbitzu horiek unibertsalak izan beharrik gabe, eta batere kezkatu gabe sendagaien, hezkuntzaren edo uraren prezioak handiegiak badira biztanleriaren zati handi batentzat. Ageri denez, interesen joko bat baizik ez dira MMEren negoziazio horiek. Horietan, gobernuak ahalik eta abantailarik handienak bilatzen dituzte beren enpresentzat (bereziki multinazionalentzat, nahiz eta ez bakarrik horientzat).

**01. 115.** Guztien ona deritzana (hots, pertsonak bizitza duina egiteko oinarriko eskubide batzuk ezartzea) eta gizarte nahiz ingurumen garapen jasagarria bilatzea litzateke globalizazioaren helburu egokia. Hori egin beharrean, MMEk eta antzeko erakundeek merkataritza eta finantza interesen zerbitzura ipintzen dituzte pertsonak. Horregatik, Cancuneko eta Seattleko porrotak berri ona dira gizartearentzat.

## **B) GERRAREN ESTRATEGIA: I-11TIK M-11RA, AFGANISTANDIK ETA IRAKETIK IGAROTA**

**01. 116.** 2001eko irailaren 11ren ondoren gora egin du militarismoak. 'Munduko ordena berria' deitu zaio horri. Horrek askatasuna mugatzeko neurri mordoak ekarri du berekin mundu osora. Data horren ondoren, bestalde, oso garbi gelditu da globalizazio neoliberalaren estrategia ekonomikoa eta militarra elkarren eskutik doazela. Afganistan eta Irak okupatzea dira horren froga.

**01. 117.** Hauek dira globalizazio kapitalista eta neoinperial berri horren ezaugarri nagusiak:

[ Giza Eskubideen Adierazpena nahiz Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Itun Politikoa ez dira nahitaez bete beharrekoak, eta ez ditu inongo erakundek babesten; enpresen eskubideak, aldiz, bai. ]

[ 2001eko irailaren 11ren ondoren gora egin du militarismoak. 'Munduko ordena berria' deitu zaio horri. Horrek askatasuna mugatzeko neurri mordoak ekarri du berekin. ]

[ "Terrorismoaren aurkako gerra" deritzanak interes inperialistak ezkutatzen ditu: interes ekonomikoak eta geostrategikoak. ]

[ Prozesu bortitz horien bultzatzaileek mundu osora hedatzen dituzte gatatzak. ]

**01. 118.** – Aldebakartasuna. EEBBetako gobernuak bakarrik erabakitzen du. Nazioarteko erakundetan adostasunik iristen ez badu, bere eskumakilen babes hutsaz hartzen ditu erabakiak. Indartsuenaren legea da nagusi, eta NB bezalako erakundeen formalitatea ere ez da errespetatzen. Nahikoa baliogabeturik dira jadanik erakunde horiek, zenbait herriri aitortzen zaion beto eskubideagatik (Estatu Batuetako gobernuak erabiltzen du gehien, alde handiz, eskumen hori).

**01. 119.** – Militarizazioa. Ahal diren bide guztiez ezartzen da ordena berri hori, baita militarraz ere, egoki irizten bada. Helburuak (gezurrezkoa maiz, suntsipen handiko armen kasuan bezala) beti zuritzen ditu bitartekoak (nahiz eta horiek giza eskubideak urratu). Hor kokatzen da gerra prebentiboaren argudioa: zilegi omen da bonbardatzea eta erailtzea, etorkizuneko balizko ekintzen kalteak saihesteko. Estrategia militarra kanpo politikaren giltzarri bihurtzen da, horrela.

**01. 120.** – Interes ekonomiko jakin batzuen zerbitzuko. "Odol gehiagorik ez petrolioagatik" esapideak oso ongi salatzen du Iraki erasotzeko benetako arrazoiak. Publikoki aitortu dute hori, gainera, Estatu Batuetako administrazioko kide esanguratsu batzuek. Baina interes ekonomikoak petrolioaren kontrola baino harago doaz. Hor ditugu arma industria, Irak "berreraikitze" enpresak ("laguntza emaileen konferentzia")... horiexek baitira gerra horien onuradun handiak.

**01. 121.** "Terrorismoaren aurkako gerra" deritzanak interes inperialistak ezkutatzen ditu: interes ekonomikoak eta geostrategikoak. Eta politika horiek zuritzeko aitzakiatzat erabili dira irailaren 11ko erasoak. Ikusi genuen Afganistanen gertatua, eta ikusi dugu haren emaitzak nolakoak diren: giza eskubideak ez dira errespetatzen oraindik, baina ederki babesten dira petrolio enpresen interesak; Unocal-enak, esaterako, harentzat aritu baitzen lanean Afganistango egungo presidentea.

**01. 122.** Gainera, martxoaren 11ko Madrilera justifika ezineko erasoek frogatu duten bezala, mundua leku seguruago bihurtu beharrean, prozesu bortitz horien bultzatzaileek justu aurkako errazten dute: gatatzak bide politikoetatik, demokratikoetatik eta baketsuetatik konpondu ordez, inbasioek eta bonbardaketek mundu osora hedatzen dituzte gatatzak.

**01. 123.** Horri guztiari beste oker bat erantsi behar zaio: segurtasunaren aitzakian, askatasunak eta eskubideak murrizten dira mundu osoan, eta ideiak eta legezko erakunde sozialak eta politikoak jazartzen. Era berean, Estatu Batuetako gobernuak bultzatutako zapalketa estrategia aitzakia ederra da munduko beste toki batzuetan ere zapalketa handitzeko: Txetxenian, Palestinan... Beste gatatzak batzuetan, Saharakoan adibidez, munduko potentzia militarren interesen menpe jartzen da konponbidea.

## C) EUROPAKO BATASUNA, GLOBALIZAZIO NEOLIBERALAREN BULTZATZAILA

**01. 124.** Duela hamar edo hamabost urte, iritzi desberdinak ziren Europako Batasunaren ekonomia diskurtsoetan eta norabideetan; egun, aldiz, mezu neoliberalak aho batekoa da haren goi-bileretan, eta politika ekonomiko eta sozial atzerakoiak bultzatzen dituzte: lan eskubideen



murrizketa, lan malgutasuna handitzea, gastu sozialak eta zergak jaiste...

**01. 125.** 2002ko martxoan Bartzelonan egindako gailurra da horren adibide egokia, eta lan politikak eta politika sozialak eztabaidatu ziren zehazki:

**01. 126.** – Enpleguari dagokionez, lan erreforma gehiago (hau da, lan baldintzak okertzea) egin beharra azpimarratu zen, eta neurri zehatzak proposatu ziren: lan baldintzak (soldatak, batez ere) enpresan erabakitzea, sektore-hitzarmeneko gutxienekoak ezarri gabe; aldi baterako enplegua eta lanaldi partzialekoa gero eta gehiago erabilteza; despidoa (iraizpena) merkatzea etab.

**01. 127.** – Langabezia-prestazioei buruz, kopuruak gutxitzea eskatzen da, eta aldi laburragoan ordaindu behar izatea horiek.

**01. 128.** – Pentsioei dagokienez, horiek zenbateraino murrizt daitezkeen zehazten da. Bestalde, zaildu egiten da lehenago erretiratzea, eta, aldiz, beranduago egitea proposatzen.

**01. 129.** European politika neoliberalak ezartzeak handitu egiten ditu diferentziak, ezegonkortasuna bultzatzen du, iraizpena eta lanaldi partzialeko enplegua errazten ditu, gizarteko sektore ahulenak (emakumeak eta gazteak, ia beti) pobretzen...

**01. 130.** Barne merkatuko zerbitzuei buruzko arteztarau proiektua da EBren norabide politikoaren beste adibide bat. Zerbitzu-jardueren garapena eragozten duten oztopoak kentzeko helburu teorikoaz, ia zerbitzu jarduera guztiak (zerbitzu publikoak barne) desarautzeko eta liberalizatzeko neurriak proposatzen ditu. Arteztarau proiektuan enpresa eta kontsumitzaile guztiei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak dira barne: publizitatea, kontratazioa (ABLEak ere bai), merkataritza, garbiketa zerbitzuak, eraikuntza, garraioa (sektore batzuk salbu: 3,5 tonatik gorakoak), telekomunikazioak, finantza zerbitzuak, botere publikoek bakarrik zuzenean eta dohainik eskaintzen dituzten zerbitzuak...

**01. 131.** Horren ondorioz, osasun zerbitzuak, hezkuntza, kultura, ikus-entzunezkoak eta beste batzuk salgai huts legez hartuko dira aurrerantzean, eta merkatuaren legearen pean gelditu dira zeharo, haien izaera espezifikoak eta haien helburu soziala aintzat hartu gabe. Zerbitzuen barne merkatua gauzatzeko, proiektuak bi oinarri ditu funtsean: lehenagoko baimen eta eskakizun guztiak kentzea, prozesua sinpletzeko eta errazteko, eta jatorrizko herriaren printzipioa, hots, zerbitzu-emailea berak egoitza daukan estatuko legearen mendean dagoela bakarrik, eta ez zerbitzua ematen duen estatuko legearen mendean. Proiektu hori onartzeak hauek guztiak ere ekarriko ditu berekin: Europako lan merkatua desegituratzea, langile klasearen eskubideen desarautzea, eta *dumping* ekonomiko, sozial eta ingurumenezkoa.

**01. 132.** Esan daiteke Europa mailan isileko itun bat dagoela sozialdemokrazia tradizionalaren eta aldaera liberal nahiz kontserbadore guztien artean. Hori dela medio, jatorri ideologiko ezberdinetako gobernuak (Frantziakoak eta Alemaniakoak) eskubide sozialak murrizten dituzten politika berak ezartzen dituzte, eta galarazi egiten dute, gainera, politika horiek gizartean eztabaidatzea. Bi familia ideologikoak bi prozesu oso kaltegarri ari dira eramaten aurrera:

[ European politika neoliberalak ezartzeak handitu egiten ditu diferentziak, ezegonkortasuna bultzatzen du, iraizpena eta lanaldi partzialeko enplegua errazten ditu, gizarteko sektore ahulenak (emakumeak eta gazteak, ia beti) pobretzen. ]

[ Osasun zerbitzuak, hezkuntza, kultura, ikus-entzunezkoak eta beste batzuk salgai huts legez hartuko dira aurrerantzean, eta merkatuaren legearen pean gelditu dira zeharo. ]

[ Esan daiteke Europa mailan isileko itun bat dagoela sozialdemokrazia tradizionalaren eta aldaera liberal nahiz kontserbadore guztien artean. Hori dela medio, jatorri ideologiko ezberdinetako gobernuak (Frantziakoak eta Alemaniakoak) eskubide sozialak murrizten dituzten politika berak ezartzen dituzte. ]



[ Elkartasunaren eta integrazioaren paradigmen ordez, banakoarena eta komunikazioarena nagusitu da. "Zaharra", "modernoaren" aurka. ]

[ Mugatu egiten da Estatuak zerbitzu publikoak antolatzeko daukan gaitasuna, eta lehiaren mende jartzen dira zerbitzu horiek. ]

**01. 133.** – Ongizate estatutik laguntza-estatura igarotzea. Ongizate Estatuak bizitza duina bermatu behar du, enplegu, soldata, lanbaldintza eta bizi mailan; babesa, osasuna, heziketa etab. ziurtatu behar ditu. Printzipio hori koloka dago egun, eta politika publikoak diseinatzen eta erabakitzen dituztenek erabaki dute laguntza estatu minimo bat atxikitzea: bizirik irautea bermatuko duena, baina ez bizimodu duina. Horrela, elkartasunaren eta integrazioaren paradigmen ordez, banakoarena eta komunikazioarena nagusitu da. "Zaharra", "modernoaren" aurka. Hori XIX. mendera itzultzea da, egia esan.

**01. 134.** – Lan- eta gizarte-erreforma prozesu etengabeak. Neoliberalen estrategia oso garbi dago: maiz aldatu legeak, aldiko zerbait (asko edo gutxi) murrizten dela. Era horretan, ahuldu edo ezereztu egiten da erantzun soziala, eta emaitza ikusgarriak eskuratzen dira epe ertainean eta luzean.

**01. 135.** Azken lau urte honetan, funtsezko aldaketak gertatu dira "Europa eraikitzeke prozesua" izendatu duten horretan: Nizako Itunak (2000ko abendua) Europako erakundeetako boterea banatu zuen; moneta bakarra ezarri zen 2002ko urtarrilean; batasuna beste hamar estatutara hedatu da 2004ko maiatzaren 1ean, eta europar konstituzio bat ezarriko duen itun proiektu bat egin da. Halere, Europako Batasuna esparru ekonomiko handi bat baizik ez da oraindik. Europako Batasuneko gobernuak 2003 amaierako nahi zuten iritsi akordioa Konstituzioaz. Baina, iritsi ez zuten arren, 2004ko ekainean egingo dute hori. Akordioa iristeko koska bakarra, estatuetako gobernuen artean boterea nola banatuko zen; hots, nor agindu apur bat gehiago edo gutxiago. Gobernuetako eliteei eta erakundeetako burokratei soilik interesatzen zaie eztabaida hori. Beste behin ere, bazterturik gelditu da giza eskubideei, eskubide sozial, ekonomiko, kultural edo ingurumenezkoen buruzko eztabaida.

**01. 136.** – ELAk dio Europak Europa sozial eta herriena izan behar duela, eta bere oinarriak demokrazia eta justizia soziala izan behar direla. Tamalez, Konstituzio proiektua ez doa bide horretan:

**01. 137.** – Dagoen proiektua, izan ere, gizarteari eztabaidatzen utzi gabe egin dute, eta herritarrei hartaz ezer erabakitzeko aukerarik eman gabe onartzea aurreikusten da.

**01. 138.** – Egia da Oinarrizko Eskubideen Agiria txertatzen duela. Alabaina, Agiri horretan jasotako eskubideak ez dira nahikoak, berez (adibidez, ez da jaso lanerako eskubidea, ez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarena, ez abortatzeko eskubidea, ez kontrazepzioarena, ez sexu joera aukeratzeko eskubidea). Bestalde, horko eskubide urriak Estatu bakoitzaren tradizioari jarraiki aitortuko dira; non, hala. Esan dezagun garbi: eskubide gehiago aitortu behar lirateke, eta zinez aitortu, gainera.

**01. 139.** – Merkatu ekonomia ireki eta lehia libreko baten printzipioaren azpitik ipintzen da gizarte eta ingurumen eredia. Bestela esanda, garrantzitsuagoa da ustezko lehiakortasuna, eskubide sozialak baino.

**01. 140.** – Mugatu egiten da Estatuak zerbitzu publikoak antolatzeko daukan gaitasuna, eta lehiaren mende jartzen dira zerbitzu horiek. Labur esanda, zerbitzu publikoak (merkatuaren filosofiatik at

gelditu behar luketenak) "interes ekonomiko orokorreko zerbitzu" bihurtzen dira, terminoa bera ere Merkataritzaren Mundu Erakundeari kopiatua baita. Oinarrizko zerbitzu publikoak (osasuna, ur edangarria, hezkuntza, garraioa...) Zerbitzuei buruzko Merkataritzaren Akordio Orokorrek ukitutako 160 "zerbitzu ekonomikoen" artean galduta geratzen dira. Horren aurrean, guk diogu zerbitzu publiko unibertsal eta doakoak bermatu behar liratekeela.

**01. 141.** – Eredu neoliberala sendotzen da ekonomia politika, moneta politika eta abarretan (Egonkortasun Ituna, Banku Zentralaren independentzia, kapitalen liberalizazioa...).

**01. 142.** – Denentzako lana ziurtatzea eta ezegonkortasuna kentzea bilatu beharrean, lan merkatua malgutu beharraz ari dira etengabe.

**01. 143.** Nekazaritza produkzioa handitzea dute lehentasun nekazaritza politikek, janari subiranotasuna, enplegua, ingurumena eta janarien kalitatea bermatuko dituen nekazaritza eredu baten kaltetan.

**01. 144.** – Adierazten da Batasunak zintzo errespetatuko dituela egungo estatu kideen funtsezko ezaugarriak, bereziki lurralde osotasuna bermatzeko, ordena publikoa zaintzeko eta barne segurtasuna babesteko zeregina dutenak. Ez da aitortzen, bada, herrien autode-terminazio eskubidea; aitzitik, sendotu egiten dira hura ukatzen duten politikak eta botereak.

**01. 145.** – Ez dira aitortzen, ez hizkuntz aniztasuna, ez identitate aniztasuna, eta ez dira jartzen parte-hartzezko demokrazia tresnak.

**01. 146.** – Pertsonen mugak ixten dizkien Batasun bat ari dira egiten, eta politika militarra hobesten da (NATOn mendekoa, gainera), gatazkak era politikoan, demokratikoan eta baketsuan konpondu ordez.

[ Eredu neoliberala  
sendotzen da ekonomia  
politika, moneta politika  
eta abarretan  
(Egonkortasun Ituna,  
Banku Zentralaren  
independentzia, kapitalen  
liberalizazioa...). ]

# 2.

## LANAREN MUNDUA EUSKAL HERRIAN

### A) ABERASTASUNAREN BANAKETA

**02. 101.** 1994an hasitako hazkunde ekonomikoaren fasean jarraitzen dugu. Aurreko urteetan euskal gizarteak jasandako atzerapen ekonomikoaren eta industria krisiaren ondoren hasi zen hazkunde hori. Azken lau urte honetan, sortutako aberastasunaren hazkundera (Barne Produktu Gordinaren –BPG– arabera neurtua EAEn, eta Balio Erantsi Gordinaren –BEG– arabera, Nafarroan) ez da izan aurreko urteetako bezain handia, baina Euskal Herriko ekonomiaren hazkundera ez da gelditu, gure inguru ekonomikoko zenbait lekutan (Frantzia, Alemanian...) urte batzuetan gertatu den bezala. Beraz, urrun egon gara hainbat erakunde publiko eta enpresaburuk komunikabideen bitartez saldu nahi izan dituzten krisitik.

#### Hazkunde ekonomikoa Hego Euskal Herrian. 1993-2003

	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
EAE (BPG)	3,4	3,5	3,2	5,0	6,0	4,9	5,2	2,9	1,7	2,4
NAFARROA (BEG)	3,2	4,4	2,1	3,8	5,6	3,4	4,4	2,8	2,8	3,0

*Iturriak: Eustat eta Nafarroako Estatistika Erakundea*

**02. 102.** Aberastasunaren banaketa da, ordea, BPGk edo BEGek iristen duten hazkundera baino garrantzitsuago, eta, alde horretatik, hazkunde ekonomikoko hamarraldiaren emaitzak ez dira batere pozgarriak. Ondorio horretara garamatzaten lau puntu aipatu behar ditugu:

**02. 103.** – Lan errentek aberastasunean duten zatiaren bilakaera. Izan ere, 1993an, lan errentak BPGaren %55,4 ziren EAEn. 2002an, aldiz, %50,3 bakarrik. Beste era batera esanda: azken hamar urte honetan izandako aberastasun hazkunderak mesede txikiagoa egin die langileei, enpresariei eta kapitalari baino, azken bi horiek izan baitira hazkunde ekonomikoaren benetako onuradunak. 2001ean eta 2002an, ordea, igo egin da, apur bat, lan-errentek aberastasunean daukaten zatia.

#### Lan errentek BPGean duten zatia, 1993-2002 (BPGaren %)

	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002
EAE	55,4	53,6	51,6	51,5	50,5	50,6	50,1	48,7	49,8	50,3

*Iturria: Eustat*

**02. 104.** – Enpresa irabazien eta lan-kostuen bilakaera. 1995etik 2001 arteko aldiran, EAEko industriako eta eraikuntzako enpresa irabaziak hiru aldiz gehiago hazi dira, lan-kostu totalak (pertsona enplegatuen soldata igoerak eta enplegu mailan izandako hazkundera barne) baino. Zehazki, 2001ean, lan kostuak %47,3 handiagoak ziren 1995ean baino; aldiz, irabazien maila, 2001ean, %150,7 handiagoa zen 1995ean baino (hots, 2,5 bider handiagoa).



## Lan-kostuen eta enpresa irabazien bilakaera EAeko industrian eta eraikuntzan. 1995-2001

% ALDAKETA 1995-2001

LANGILE GASTUAK	+47,3%
IRABAZI GORDINAK	+150,7%

Iturria: Eustat.

**02. 105.** – Gastu sozialaren bilakaera BPGarekiko. EAEn, BPGaren %20 gastatzen da babes sozialean. Europako Batasuneko batez besteko gastu soziala BPGaren %27,5 zen 2001ean. Horrek esan nahi du BPGaren 7,5 puntuko defizita dugula arlo horretan.

**02. 106.** – Euskal erakunde zerga politika. Euskal zerga presioa %32,6 da (biltzen diren zerga guztiak eta kotizazio sozialak barne). Balio hori beheraka doa pixkanaka. Europako Batasuneko batez besteko zerga presioa % 41,1 da; horrek esan nahi du BPGaren 8,5 puntuko defizita dugula horretan. Bistakoa da oso lotuta daudela gastu sozialeko defizita eta zerga presioko defizita.

### B) ENPLEGUAREN BILAKAERA

**02. 107.** Laneko errentek pisua galdu dute, bada, aberastasunaren osotasunean. Orain, azpimarratu nahi dugu lan merkatuan izan den bilakaera funtsezkoa izan dela prozesu horretan guztian. Lan merkatuan, izan ere, joera batzuk sendotu dira, eta aldaketa garrantzitsuak gertatu. Hona hiru:

**02. 108.** – Enplegua hazi da.

**02. 109.** – Ezegonkortasuna handia da, eta diskriminazio mota ugari ari dira hedatzen.

**02. 110.** – Jaitsi egin da langabezia, nahiz eta 2001etik hona berriz hazten ari den.

**02. 111.** Goazen enpleguaren egoera eta bilakaera aztertzeraz, beraz.

#### \* *Europako Batasunekoaren mailako jarduera tasa, baina desberdina gizon eta emakumeen artean*

**02. 112.** Gure jarduera tasa (lan ordaindua duten edo bila dabiltzan 16 urtetik 64 urte arteko pertsonen ehunekoa) %69,8 da, Europako Batasuneko (EB) %69 baino zertxobait handiagoa. Datu horrek, gainera, bilakaera positiboa izan du lau urte honetan, 2000 hondarreko %67tik 2003 hondarreko %69,8ra igaro baita.

#### Hego Euskal Herriko eta Europako Batasuneko jarduera tasak. 2003

	HEH	EB	DIFERENTZIA
OROTARA	%69,8	%69	+0,8 PUNTU
GIZONAK	%80,6	%78	+2,6 PUNTU
EMAKUMEAK	%58,8	%60,1	-1,3 PUNTU

Iturria: ELAko Azterketa Bulegoa, Eustaten, Estatistikako Institutu Nazionalean (INE) eta Eurostaten oinarriturik.

**02. 113.** Gizonezkoen jarduera tasa (%80,6) ia 22 puntu handiagoa da emakumezkoena (%58,8) baino. Alde hori 1,34 puntu bakarrik jaitsi da

[ Urrun egon gara hainbat erakunde publiko eta enpresaburuk komunikabideen bitartez saldu nahi izan diguten krisitik. ]

[ Azken hamar urte honetan izandako aberastasun hazkundeak mesede txikiagoa egin die langileei, enpresariei eta kapitalari baino. ]

[ Enplegua hazi da. ]

[ Ezegonkortasuna handia da, eta diskriminazio mota ugari ari dira hedatzen. ]

[ Jaitsi egin da langabezia, nahiz eta 2001etik hona berriz hazten ari den. ]

[ Emakumeek bereganatu dute 2000tik sortutako enplegu guztia. Lana duten gizonen kopurua 800 jaitsi da, aldiz. ]

[ Enpleguaren bilakaera nabarmenki desberdina izan da ekonomia sektoreka. ]

2000tik. Emakumezkoen jarduera tasa EBkoaren azpitik dago (1,3 puntu, zehazki), eta gizonezkoena, berriz, hangoa baino handiago da (2,6 puntu).

**\* Enpleguaren eta lana dutenen hazkundera**

**02. 114.** 1993tik (hor hasten baita hazkunde garaia), 282.700 lagun gehiagok du lana Hego Euskal Herrian, hau da, %31,83 izan da igoera. Lana dutenen igoera hori etengabea izan da azken urteetan, nahiz eta 2003an apalagoa izan den.

**02. 115.** 2003 amaieran, 1.140.000 lagunek zeukan lana. Horietatik, emakumeak %40 inguru dira, eta gizonak, %60 inguru. Jakina, 20 punturen alde hori oso handia da oraindik, nahiz eta jaitsi den apur bat, bai hazkunde ekonomikoaren garai osoa badugu kontuan (1993an 33 puntutik gorakoa zen aldea), bai kongresu arteko aldiari bakarrik begiratzeko badiogu (5,4 puntu).

**02. 116.** Emakumeek bereganatu dute 2000tik sortutako enplegu guztia. Lana duten gizonen kopurua 800 jaitsi da, aldiz. 2003an, esate baterako, sortutako enplegu guztiak (10.600) ez ezik, gizonak galduak beste 2.200 enplegu ere bereganatu dituzte emakumeek.

**02. 117.** 2003 hondarrean, emakumeen egoera oso diskriminazio handikoa da oraindik, ordea: laneko adineko 100 gizonetatik 75,7k lan ordaindua dute, eta emakumeen % 52,2 soilik daude egoera horretan; bi sexuen artean, beraz, 23 puntuko aldea dago lana dutenengan.

**Enpleguaren bilakaera Hego Euskal Herrian. 1993-2003**

	1993	2000	2003	2000-2003	1993-2003
Orotara	857.300	1.072.900	1.140.000	67.100	282.700
Gizonak	567.800	679.200	678.400	-800	110.600
Emakumeak	289.500	393.600	461.600	68.000	172.100
Nekazaritza	30.400	33.600	33.200	-400	2.800
Industria	260.500	323.400	317.000	-6.400	56.500
Eraikuntza	78.600	96.700	103.400	6.700	24.800
Zerbitzuak	487.700	619.200	686.300	67.100	198.600

**02. 118.** Enpleguaren bilakaera nabarmenki desberdina izan da ekonomia sektoreka. Beraz, 282.700 enplegu berri horiek oso modu desberdinetan banatu dira:

**02. 119.** – Zerbitzuen sektoreak du pisu handiena enpleguan, eta bera hazi da gehien, bai enplegu bolumenean, bai pisu erlatiboan. 1993tik hona, 198.600 enplegu berri sortu dira sektore horretan, Hego Euskal Herrian; sektore horrek ekonomian daukan pisua 3,7 puntu hazi da, eta totalaren %60,2 da orain. Gainera, sektore horrek goranzko joera izan du hamarkada osoan.

**02. 120.** – Industria sektorea da bigarrena enplegu bolumenean. 56.500 enplegu berri sortu dira hor, baina pisu erlatiboa galdu du. Industria enpleguaren %31,2 zen 1993an, eta %27,8 bakarrik, 2003an (%29 Nafarroan, eta %27,6 EAEn). Jakina, 3,4 punturen jaitsiera hori urte hauetan guztietan (azken lauetan barne) joan da gertatuz.

**02. 121.** – Eraikuntza sektorean, ostera, 24.800 enplegu gehiago sortu dira. Sektore hori, beraz, enpleguaren %9,1 da Hego Euskal He-



rrian, 2003an; 1993an, %8,7 zen. Enplegu kopuruaren igoera urtez urte gertatu da, nahiz eta batez ere 2002an egin duen gora sektore horren pisuak, eta, neurri txikiagoan, 2003an.

**02. 122.** – Nekazaritza-abeltzaintzan, azkenik, 2.800 enplegu berri sortu dira hamarkadan zehar (4.600eko igoera Nafarroan, eta 1.800eko jaitsiera EAEn). Pisua galtzen du, beraz, ekonomiaren totalan, eta %3,5etik %2,9ra igaro da (%6,1 Nafarroan, eta %2,1 EAEn). Adierazi behar da, dena den, egonkor dirauela azken hiru urtean.

**02. 123.** Beraz, ondokoa esan dezakegu:

**02. 124.** – Hego Euskal Herrian, lehen sektoreko eta industriako (batez ere bigarreneko) enplegua ari da pisua galtzen, eta eraikuntzako eta zerbitzuetako (bereziki bigarrenekoa) ari da irabazten.

**02. 125.** – EAEko joera Hego Euskal Herri osokoaren antzekoa da.

**02. 126.** – Nafarroan, eraikuntzak eta industriak (batez ere azken horrek) galtzen dute pisua, eta lehen sektoreak eta zerbitzuek (bereziki bigarren horrek) irabazten dute.

**02. 127.** Lau sektore horietan, gizonen eta emakumeen parte hartzea oso desberdina da. Zerbitzuen sektorean, emakumeak %55,2 dira, eta gizonak, %44,8. Industrian, %78,2 dira gizonak, eta %21,8 emakumeak. Eraikuntzan, aldea are handiagoa da, zeren %94,3 baitira gizonak, eta %5,7 emakumeak. Eta, azkenik, lehen sektorea dugu. Lana dutenen %2,9 bakarrik ari dira hor; %75,9 gizonak, eta %24,4 emakumeak.

**02. 128.** Interesgarria da, halaber, azpisektoreka eta adinaren arabera aztertzea enpleguaren bilakaera. EAerako bakarrik dago informazio hori, eta 2002 arte soilik. 1993tik 2002 arte, honela banatu da EAEko soldatapeko biztanleriaren igoera:

**02. 129.** – Enpresentzako zerbitzu azpisektorean hazi da gehien lana dutenen kopurua: 30.400 lagun, zehazki.

**02. 130.** – Osasun/zerbitzu sozialak azpisektorea izan da gehien hazten bigarrena: 23.000 langile gehiagok topatu du lana hor.

**02. 131.** – Merkataritza azpisektorea dator hirugarren: 21.200 langile berri.

**02. 132.** – Eraikuntzan, soldatapeko 17.000 langile gehiago sartu da bederatzi urte horretan.

**02. 133.** – Industria azpisektoreen artean, makinak eraikitzeak nabarmentzen da, 14.800 langile gehiago hasi baita bertan.

**02. 134.** Datu horiek erakusten digute aldaketa handia ari dela gertatzen enpleguan azken urteetan. Askoz garbiago ageri da hori, sexua- ren eta adinaren arabera aztertzen badugu azpisektore horietan gertatu dena:

**02. 135.** – Gizonen enpleguen igoera handienak industriako azpisektoreetan eta eraikuntzan gertatu dira (%56, zehazki). Industria sektorean, izugarri gaztetu da lana duten gizonen multzoa; orain, esate baterako, 35 urtetik gorako gizon okupatu gutxiago dago industrian, 1993an baino; 35 urtetik beherakoak, aldiz, 30.000 gehiago dira.

[ Hego Euskal Herrian, lehen sektoreko eta industriako (batez ere bigarreneko) enplegua ari da pisua galtzen, eta eraikuntzako eta zerbitzuetako (bereziki bigarrenekoa) ari da irabazten. ]

[ Enpresentzako zerbitzu azpisektorean hazi da gehien lana dutenen kopurua: 30.400 lagun, zehazki. ]

[ Soldatapekoa izan da  
sortu den enplegua. ]

[ Sortutako enplegua  
behin-behinekoa da, aldi  
baterakoa. Hego Euskal  
Herriko ia hiru  
langileetatik batek aldi  
baterako kontratua du. ]

**02. 136.** – Eraikuntzan, berriz, gizonen igoera berdin banatzen da 35 urtetik gorakoen eta 35 urtetik beherakoen artean, eta horrek ere esan nahi du gaztetu egin dela nabarmenki sektorea. Soldatako emakumeak ez dira %7 baino gehiago, hor.

**02. 137.** – Soldatapeko emakumeen igoera ia %90 izan da zerbitzuetako azpisektore desberdinetan. Igoera handienak hauetan izan dira: osasun/zerbitzu sozialetan (19.000 lagun), enpresentzako zerbitzuetan (16.000) eta merkataritzan (15.000). Adinaren arabera, adintarte guztietan egin du gora emakumeen enpleguak, zerbitzuen sektorean: 25 eta 34 urte bitartean, batez ere merkataritzan eta enpresentzako zerbitzuetan; 35 eta 44 urte bitartean, hezkuntzan eta osasun/zerbitzu sozialetan; 45 eta 54 urte bitartean, osasun/zerbitzu sozialetan, hezkuntzan eta neskametzan.

**02. 138.** – Zerbitzuen sektore barruan, emakumeek bete dute gehien bat azpisektore ezegonkorrenetan eta lan-baldintza kaskarrengoetan izan den enplegu igoera, eta azpisektore hobetoetan, berriz, banaketa proportzionalagoa izan da gizonen eta emakumeen artean.

**\* Soldatapeko, aldi bateko eta lanaldi partzialeko enpleguaren hazkundera**

**02. 139.** Soldatapekoa izan da sortu den enplegua. Aurreko Kongresuan ikusten genuen hazten ari zela soldatapeko langileen tasa (hau da, enplegu osotik soldatapekoek osatzen duten ehunekoa), eta, azken lau urte honetan ere, eutsi egin zaio joera horri. Kopuru absolututan ere, soldatapeko langileak gehiago hazi dira, lana duten lagunen multzoa baino; langile autonomo, kooperatibista etab. ugari igaro dira, bada, soldatapeko langileen multzora.

**02. 140.** 2003ko abenduan, %80,34 zen soldatako langileen tasa. 2000tik izan den enplegu hazkundera guztia soldatako langileena izan da (2000n, %79,1 zen soldatako langileen tasa Hego Euskal Herrian). Ehuneko hori 6,5 puntu apalagoa da gizonen kasuan (%77,7), emakumeen kasuan (%84,2) baino, zeren langile autonomo gehienak gizonetzkoak baitira.

**02. 141.** Sortutako enplegua behin-behinekoa da, aldi baterakoa. Hego Euskal Herriko ia hiru langileetatik batek aldi baterako kontratua du. Behin-behinekotasun tasa %29,3 zen 2003an (%27,4 zen 1993an). Hala ere, 2,7 puntu jaitsi da tasa hori 2000tik.

**02. 142.** INEMen erregistratutako kontratuei begiratu gero, ikusten da aldi baterako kontratuak %92 baino gehiago zirela 2003an, eta ehuneko hori hazten ari da urtetik urtera. Horra kontratazioan dagoen iruzur handiaren agerpen garbiena: ehunka aldi baterako kontratu egiten zaizkie behin eta berriz langile batzuei, langile horiek betiko kontratatu ordez. Enpresarien praktika hori (lan agintaritzak ametitua eta legegileek onartua) da lan ezegonkortasun ikaragarriaren kausa nagusia.

**02. 143.** Bestalde, oso handia da oraindik Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) erabilera ere. 2003an, enpresa horiek 182.397 kontratu egin zituzten Hego Euskal Herrian (urte horretan erregistratutako kontratu guztien %19,22). Enpresa horiek lan ezegonkortasuna dute negozio. 1998tik, halako geldialdi bat nabari da ABLEek egiten duten kontratu kopuruaren igoeran, baina bide horixe da lanean behin-behineko-





tasuna hedatzeko legezko bide nagusia oraindik ere. Horien jarduera salatzen eta eragozten jarraitu behar dugu, beraz.

**02. 144.** Emakumeei eta gazteei eragiten die gehien bat laneko behin-behinekotasunak; %35,3 emakumeei, eta %69,9 gazteei. Sexuen arabera neurtuta, emakumeen behin-behinekotasun tasa nabarmenki handiagoa da, baina gainera behin-behinekotasun horren kalitatea ere askoz txarragoa da. EAEn (ez dago Nafarroako daturik), soldatapeko pertsonen %4 kontraturik gabe dago, emakumeak ia denak (soldatapeko emakumeen %8 kontraturik gabe daude).

### Behin-behinekotasun tasa (%). Hego Euskal Herria, Europako Batasuna

	HEH (2003)	EB (2002)	Diferentzia (puntu)
OROTARA	29,3	13	16,3 puntu
GIZONAK	24,9	12	12,9 puntu
EMAKUMEAK	35,3	14,2	21,1 puntu
GAZTEAK	69,9	37,8	32,1 puntu

**02. 145.** Datu horien eta EBkoen (2002ko informazioa) arteko aldea sekulakoa da: euskal behin-behinekotasun tasa 16 puntu handiagoa da Europakoa baino; 21 puntu handiagoa emakumeengan, eta 32 puntu handiagoa, gazteengan.

**02. 146.** Lanaldi partzialekoa izan da sortutako enpleguaren oso zati handi bat (hor, EAEko informazioa dugu bakarrik), eta 1993ko %9tik 2002ko %12,7ra igaro da. Azken urteetan, jaitsi egin da apur bat enplegu mota horren pisua. Enplegu mota horrek, gainera, diskriminatu egiten ditu, garbi-garbi, emakumeak: lanaldi partziala duten langile guztien %85 emakumeak dira, eta soldatako emakumeen %25 ari dira lanaldi partzian; gizonen artean, %3,5 bakarrik.

### Lanaldi partzialeko enpleguaren ehunekoa. EAE 2002

	Orotara	16-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte
OROTARA	%12,7	%18,5	%12,4	%12,9	%10,7	%10,7
GIZONAK	%3,5	%8,5	%4,3	%2,9	-	%1,7
EMAKUMEAK	%25,8	%32,1	%22,0	%25,6	%26,7	%36,4

**02. 147.** Politikari ugari errepikatzen dute lanaldi partzialeko kontratazio txikiagoa dela hemen Europan baino, eta aurrera egin behar dela bide horretan, "familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiten direla". Kontratazio mota horren egia, ordea, oso bestelakoa da: ez da borondatezkoa, malgutasun handiagoa uzten die enpresei eta oso ondorio txarrak ditu etorkizuneko prestazio sozialetan. Kontratazio mota horrek emakumeen lan baldintzen ezegonkortasun handiagoa dakar, eta ez da, inondik ere, deusekin bateragarri izateko formula egokia.

\* **Azpikontratak eta pribatizazioak: emakumeen eta gazteen esklabotza XXI. mendean**

**02. 148.** Azpikontratatea gero eta leku handiagoa ari da hartzen lan ezegonkortasun formula desberdinen artean. Industriaren esparruan (Aurrezki Kutxen Federazioak dioenez), jarduera nagusia azpikontratatea duten enpresetan dago enplegu guztiaren %31,1. Zerbitzuen sekto-

[ Emakumeei eta gazteei eragiten die gehien bat laneko behin-behinekotasunak; %35,3 emakumeei, eta %69,9 gazteei. ]

[ Lanaldi partzialekoa izan da sortutako enpleguaren oso zati handi bat eta 1993ko %9tik 2002ko %12,7ra igaro da. ]



[ Pribatizazioak eta azpikontratazioak txanpon beraren bi aldeak dira. ]

[ Gauza larria da hori administrazio publikoek berek sustatzea hori: Eudel, EAeko udalen elkarteak, adibidez. Duela gutxi, erakunde horretako batzorde eragileak, EAJ, EA, PSOE eta PP alderdien laguntzaz, bat egin du diskriminazio horiek jasaten dituzten langileek dagozkien eskubideak eskura ez ditzaten ]

[ Ikusten dugu 1993ko 220.000tik 2003ko 99.600era urritu direla pertsona langabeak Hego Euskal Herrian (120.400 gutxiago). ]

rean ere, bai sektore pribatuan, bai administrazio publikoetan, goraka doa etengabe kontratazio mota hori.

**02. 149.** Administrazioaren kasuan, egoera are larriagoa da, zeren azpikontratzea sektore publikoen pribatizazioarekin baitago loturik. Praktika neoliberal peto-petoa da hori: negozio pribatua hedatzen da, eta adiskideen eta kidekoen sareak bultzatzen dira, zerbitzuen kantitatearen eta kalitatearen kaltetan beti.

**02. 150.** Pribatizazioak eta azpikontratazioak txanpon beraren bi aldeak dira, bada, eta batera azertu behar dira. Modu ezegonkorrean ari diren langileen lepotik eskuratzen dira hor irabaziak, langile horiek soldata apalagoz, behin-behineko kontratuz eta lanaldi partzialean ari baitira. Pertsona horiek, beraz, diskriminazioa pairatzen dute, Administrazioak zuzenean kontratatzen dituenen (eta lan berbera egiten dutenen) aldean. Gazteak eta emakumeak jarduten dira nagusiki azpikontratatu-tako enpresetan, eta kontratuak normalean halako iraupen zehatz batekoak izaten dira. Azpikontratatu-tako enpresak kontrata galtzean amaitu ohi dira kontratu horiek, nahiz eta zerbitzuak aurrera jarraitu.

**02. 151.** Kasu ugaritan, azpikontratazio katea hain izaten da eskandaluzkoa, non galdu egiten den enpresa nagusiaren aztarna. Pertsonen trafiko nazkagarri bat gertatzen da horietan, lan-baldintzak etengabe okertuz dirua irabazi nahi duten enpresen aldetik. Horixe da, beraz, XXI. mendeko esklabotza motetako bat: ahalik prezio apalenean iritsi kontratak, langile kualifikatuak eskaini eta pertsonen trafikoa egiten delarik.

**02. 152.** Gauza larria da hori legearen babesean egitea eta enpresa pribatuak (ahalik eta irabazirik handiena eskuratu beste helbururik ez duten horiek) horretaz baliatzea... Baina are larriagoa da administrazio publikoek berek sustatzea hori: Eudel, EAeko udalen elkarteak, adibidez. Duela gutxi, izan ere, erakunde horretako batzorde eragileak, EAJ, EA, PSOE eta PP alderdien laguntzaz, bat egin du diskriminazio horiek jasaten dituzten langileek dagozkien eskubideak eskura ez ditzaten, hots, administrazioek zuzenean kontratatutako langileen eskubide berak eduki ez ditzaten. Administrazioen kasuan, gainera, pribatizazioak eta azpikontratateak ez dute esan nahi kostuetan aurrezten denik; filosofia politiko neoliberal hutsagatik jokutzen dute horrela. Kasu gehienetan, okerrera egiten du zerbitzuaren kalitateak, langile eta bitarteko urriagoz eskaini nahi izaten baita hura.

**\* Langabezia jaitsi da, baina goraka doa 2001etik**

**02. 153.** Gauza bat esan behar dugu lehenik langabeziari buruz: aldatu egin da kalkulatzeko era. 2002tik aurrera, eta Europako Batzordearen araudian oinarriturik, pertsona bat langabetzat jo ahal izateko, pertsona horrek lana bilatzeko ahaleginak egin behar izan ditu datu hori jaso aurreko lau asteetan, eta benetan egin, gainera. Langabetzat jotako jendea dezente urritu zen horrela (2002 langabeen ia %9). Aldaketa horiek gehiago eragin diete emakume langabeei, 1,5 puntu jaitsi baita horrela haien langabezia tasa. Gazteen kasuan, 2,3 puntu egin du behera tasa horrek.

**02. 154.** Hori gogoan izanik, eta azken hamar urteko bilakaera ikustearren datuak homogeneousaturik, ikusten dugu 1993ko 220.000tik 2003ko 99.600era urritu direla pertsona langabeak Hego Euskal Herrian (120.400 gutxiago).



**02. 155.** Hala ere, bestelakoa da kongresu arteko aldiko gertakari aipagarrienetako bat: 2001etik, gero eta jende ugariago dago lanik gabe, nahiz eta oraindik badirauren hazkunde ekonomikoak. Oso gauza negatiboa da hori, eta ezin da ezkutatu (eta ez da ezkutatu behar ere), 1993tik enpleguak izan duen bilakaera ikusita.

**02. 156.** Langabezia tasa EBkoaren mailan dago 2003ko abenduan, hots, %8,2an. Beraz, 12 puntu jaitsi da tasa hori hamarkadan zehar, nahiz eta esan dugun hazi egin dela berriro azken bi urtean.

**02. 157.** Gai horretan ere, desberdina da gizonez edo emakumez aritzea. Emakumeen langabezia tasa gizonena halako bi da ia, 5,1 puntu-ren alde dago bi datuen artean. Langabeen multzo osoa hartzen badugu, 99.600 pertsona alegia, %56,1 emakumeak dira, eta %43,9 gizonak. EBrekin alderaturik, gizonek 1,2 puntu langabezia apalagoa dute hemen; emakumeek, aldiz, 2,3 puntu handiagoa. Beraz, garbi ageri da sexu arteko aldeak handiagoak direla gurean EBkoan baino.

**02. 158.** Gazteen langabezia tasa, berriz, %21,4 da hemen, EBn baino 6 puntu handiagoa, %15,4 bakarrik baita han. Alde hori nabarmen handitu da 2003an, hango langabezia tasa bere horretan egon baita, eta Hego Euskal Herrikoa, 2,4 puntu hazi.

#### Hego Euskal Herriko langabezia tasa (%). 1993-2003

	1993	2000	2003
OROTARA	21,3	10,3	8,2
EMAKUMEAK	28,4	15,7	11,2
GIZONAK	17,1	6,8	6,1
GAZTEAK (<25 urte)	50,2	21,4	25,26

**02. 159.** Multzo horretan, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde orokorrean baino handiago da oraindik, hots, 11,5 puntukoa. EBn, aldiz, gizon eta emakume gazteen egoera berdintsua da.

**02. 160.** Langabeziaren beherakada gogor hori gertatu den arren, esan daiteke langabezia egiturazko arazoa dela. EBrekin dugun alde (0,2 puntu) estua da, lehenagokoaren aldean, eta politikari ugarik arazoa konpontzearekin nahasten dute alde hori estutu izana. Ahaztu egiten zaie esatea han ere enpleguaren krisia dagoelako gertatu dela parekatze hori hein batean.

**02. 161.** Gauza esanguratsu bat dakusagu: politika publikoek nahiz enpresarien politikak ez diote eman zegokion lehentasuna langabeziaren arazoari, nahiz eta hamar urteko hazkunde fasea (abagune txit egoia, alegia) izan dugun horretarako.

**02. 162.** Ildo horretan, gogorarazi behar da bai Eusko Jaurlaritzak bai Nafarroako gobernuak hainbat Enplegu Plan onartu dutela aspaldian, baina plan horiek itxura hutsa baizik ez dira izan, ez baitzuten batere aukerarik benetako enplegu politikarik abiarazteko. Oroitarazi behar da Espainiako Parlamentuaren esku dagoela oraindik enplegu alorreko legegintza, eta horregatik dute ezer egiteko aukera gutxi euskal erakundeek.

**02. 163.** Eusko Jaurlaritzaren enplegu planek zabal-zabal onartu dute Europako Batasunetik bultzatutako ideologia neoliberala, arestian salatu dugunez. Plan horietan ez da antolatzen inongo estrategiarik alor ho-

[ Hala ere, 2001etik, gero eta jende ugariago dago lanik gabe. ]

[ Politika publikoek nahiz enpresarien politikak ez diote eman zegokion lehentasuna langabeziaren arazoari, nahiz eta hamar urteko hazkunde fasea izan dugun horretarako. ]

[ Eusko Jaurlaritzaren enplegu planek zabal-zabal onartu dute Europako Batasunetik bultzatutako ideologia neoliberala, arestian salatu dugunez. ]

rretako eskumenak eman diezazkiguten, ez eta lan arloko eskumenak Euskal Herrian egon daitezen ere. Plan horiek, izan ere, egiten ari denaren deskribapen hutsa dira (gai batzuk eta diru-laguntza batzuk kudeatzea besterik ez). Horregatik, gogor salatu behar da plan horietaz erakundeek darabilten hizkera baikorra, plan horiei egiten zaien gorespena. Zeren jende guztiak bai baitaki hazkunde ekonomikoagatik hazi dela enplegua, ez haien politikengatik.

**02. 164.** Eusko Jaurlaritzaren planei buruz dugun iritzi bera dugu Nafarroako Gobernuaren planez ere. Gobernu foralak enplegu eta prestakuntza politikak kudeatzeko hainbat eskumen bereganatu ditu, baina gauza larria egin du, aldi berean: halako konplizitate gune berezi bat sortu, bera, CEN (Nafarroako Enpresarien Konfederazioa), UGT eta CCOO artean. Hor, mota askotako planei ematen zaie babes; baliabide ekonomiko ugari jartzen dira horretarako, erakunde horiek kudeatuta, baina erakundeek berentzat erabiltzen dituzte baliabideak, hein handi batean.

**02. 165.** Badira oso egoera zaila bizi duten bi multzo berezi, aparte aipatu beharrekoak: etorkinak eta pertsona minusbaliatuak. Bai lana aurkitzeko duten zailtasunagatik, bai hura eskuratutakoan ere izan ohi duten ezegonkortasunagatik, diskriminazio garbiko egoerez hitz egin behar da.

#### \* *Langile etorkinen egoera*

**02. 166.** Honako hauek dira Europako Batasunaz kanpoko pertsonen lan egoeraren ezaugarrietako batzuk:

**02. 167.** – Etxeko zerbitzuan, eraikuntzan eta nekazaritzan aritzen dira lanean batez ere. Emakume etorkinen %60 etxeko zerbitzuan (neskametzan) aritzen dira.

**02. 168.** – Langabezia %27 da haien artean, bertoko biztanleriaren langabezia tasa baino askoz handiagoa. Gauza guztien (konplexutasun osoaren) argigarri ez badira ere, hiru faktore garrantzitsu ageri dira gai horretan: etortzen diren uneko lanik eza; urtarokako lanik eza, sektore jakin batzuetan bereziki, eta diskriminaziozko lanik eza, arautu gabeko eta babestu gabeko testuinguru batean. Aipagarria da, bestalde, gizonezkoen langabezia tasa handiagoa dela hor, emakumezkoena baino.

**02. 169.** – Langile multzo horrek lan baldintza bereziki txar eta diskriminaziozkoak ditu orokorrean: arautu gabeko kontratazioak, lanaldi luzeegiak, ohi baino soldata apalagoak, etab. Bistakoa denez, faktore batek eragiten du hor, egoera horretara heltzeko: pertsona horien egoera administratibo legezatuak edo legezatu gabeak. Legezatu gabe egoteak esan nahi du horien eskubideak ez direla errespetatzen, eta edozein eratako bidegabekeriak jasango dituztela. 2000 hondarrean, lanean ari ziren langile etorkinen %50 baino gehiago arautu gabeko enplegutuan ari ziren, lan-baimenik gabe haietako gehienak, eta %7, aldiz, lan-baimenaz, gehienak etxeko zerbitzuan ari ziren emakumeak, edo nekazaritza sektorean.

**02. 170.** – Lanaldiari dagokionez, langile horietako gehienek 40 ordu baino gehiago egiten dituzte astean; sektore batzuetan, baita 80 ordu baino gehiago ere, etxeko zerbitzuan esate baterako. Jasotzen dituzten soldata apalak, berriz, bitxiago gertatzen dira horiek eskura-

tzeko egin duten ordu kopuruagatik, kopuruagatik beragatik baino.

**02. 171.** – Soldaten mailak bereziki apalak dira, eta bermatutako gutxienetatik beherakoak: langile etorkinen %18k LAGSa (lanbide arteko gutxieneko soldata) baino gutxiago kobratzen du orduko, eta langile horien laurdenak LAGSa baino gutxiago jasotzen du bere lanagatik, hilean.

**02. 172.** Lan egoera kaskarrak gainera, etorkinek, multzo gisa, diskriminazio eta urraketa egoera garbi eta ezin onartuzkoak jasaten dituzte beren eskubide ekonomiko, sozial eta politikoetan. Gainera, maiz,aldi baterako bakarrik egoten legezko egoeran, eta berengandik at dauden erabakien mendean (kontratu bat sinatzea...), eta horrek are zailago bihurtzen du haien eskubideak babestea.

**02. 173.** – Atzerritarren legeak. Atzerritarren legeen bata bestea- ren ondoko aldaketek (PPk eta PSOEk hitzartutako azkenak barne) ikaragarri mugatu dituzte Europako Batasunaz kanpoko pertsona etorkinen eskubideak (legeztatu gabeko egoeran dauden pertsonen biltzeko, agertzeko, elkartzeko eta sindikatzeko eskubideez ari gara). Lege horiek atzerritarren oinarritzko eskubideak urratzen dituzte, atzerritarra estatutik presaz egozte aurreikusten baitute; edo hura giltzapean sartzeko prebentiboki, egozte kausa jakin batzuen aurrean, dagokion epaile esku-hartzerik gabe; edota haiei batere arrazoirik gabe bisak ukatzea. Horiek eta beste neurri anker batzuek pertsona horien babesik eza dakarte, eta nekezago bihurtzen da haiek gizarte- tean integratzea. Horrek eurei eta gizarte osoari egiten die kalte.

**02. 174.** – Eskubide sozialak. Etorkinen multzoak, bereziki legez kanpo dagoenak, sekulako oztopoak ditu eskubide sozialak eskuratzeko. Etxebizitza aurkitzea dute arazo nagusi bat. Batzuetan, etorkin izate hutsagatik ukatzen zaie etxe bat alokatzeko eskubidea. Beste batzuetan, eskandaluzko errenta kobratzen diete. Era horretan, eraso egiten zaio haien duintasunari; oinarritzko eskubideak ukatzen zaizkie; ez zaie bizimodu duin, autonomo eta kalitatezkoa egiten uzten. Etorkinen fenomenoak eragin handia izan du hezkuntzan ere, zeren izugarri ugalduta baitira etorkin familietako ikasleak eskoletan azken urte hauetan, baina Administrazioek ez dute ipini behar beste bitarteko ikasle berri horiei aurre egiteko, eta kontuan izan behar da, gainera, horiek arreata handiagoa behar izaten dutela maiz, dela hizkuntzagatik, dela beste edozein arrazoigatik. Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren ardua duten erakundeek gain da, bada, lan hori, eta ELAk, sindikatu den aldetik, gogor eskatuko du bete dadin: hezi eta prestatu egin behar dira haur horiek, kontuan izanik horien ohiturak, kulturak eta hizkuntzak gureak ez bezalakoak direla kasu askotan. Gure sistema pedagogikoez ikasleria osoa hezi behar dute, eta oinarri sendoak ipini behar dituzte, halaber, ikasle horiek aukera berdintasun osoa izan dezaten ikasketetan, lanean eta gizartean, edozein dela ere ikasleen sexua, herritartasuna, etnia, erlijioa edo kultura.

#### \* *Minusbaliatuen egoera*

**02. 175.** Euskal Herriko minusbaliatuen multzoari gagozkiola, azpimarratu behar da ez dela datu zehatzik haien minusbaliotasun motaz edo mailaz, sexuaz, adinaz, lan-egoeraz... Hori bera oso esanguratsua da berez, eta ez digu uzten egoeraren diagnostiko bat egiten, ez eta Europako beste herri batzuetako egoerarekin konparatzen ere. Esan behar da,

[ Lan egoera kaskarrak gainera, etorkinek, multzo gisa, diskriminazio eta urraketa egoera garbi eta ezin onartuzkoak jasaten dituzte beren eskubide ekonomiko, sozial eta politikoetan. ]

[ Etxebizitza aurkitzea dute arazo nagusi bat. Batzuetan, etorkin izate hutsagatik ukatzen zaie etxe bat alokatzeko eskubidea. ]

[ Minusbaliatuen multzoari gagozkiola. Esan behar da, goraka doala, bai biztanleria zahartzen ari delako, bai eta orain bizirik irteten delako ere lehen hilgarri ziren eritasunetatik eta istripuatik. ]

[ EZBek ez dute lortzen, inondik ere, langile horiek lan merkatu arruntean sar daitezten, zeren, kasu gehienetan, zentro horietan lanean hasten diren langileak ez doaz enpresa arrunt batera ]

haatik, multzo hori goraka doala, bai biztanleria zahartzen ari delako, bai eta orain bizirik irteten delako ere lehen hilgarri ziren eritasunetatik eta istriputatik.

**02. 176.** Multzo osoaren ia bi heren 65 urtetik gorakoak dira. Bestalde, %58 emakumeak dira (bizi esperantza handiagoa dute), eta %42, gizonak.

**02. 177.** Multzo horren enpleguaz bezainbatean, bi erronka handi daude: lehena, horiek lan merkatuan sartzea bera; bigarrena, horientzako zerbitzu sozialak garatzea, lana ere berdintasun handiagoz egin dezaten, eta bizimodu duin, autonomo eta kalitatezkoa eduki dezaten.

**02. 178.** Lan merkatuari dagokionez, eta soilik EAEko datuekin, zera esan daiteke:

**02. 179.** – 16 eta 64 urte bitarteko 57.500 minusbaliatu zegoen erregistraturik 2001ean; %62, gizonak, eta %38, emakumeak. Gizonen kasuan, adin bereko biztanleriaren %4,6 da hori; emakumeen kasuan, %2,9. Datu horrek pentsarazten du emakumeek, hainbat arrazoigatik, gutxiago erregistratzen dituztela beren minusbaliotasunak.

**02. 180.** – Erregistratutako multzo horren jarduera tasa %32 inguru zen 1999an, egungo %69,8aren aurrean. Gizonen eta emakumeen arteko diferentzia, ostera, hiru punturena da, gizonen alde.

**02. 181.** – Langabezia tasa %33,3 zen 1999an, hau da, orokorra baino 20 puntu gehiago. Hor, ez dago alde handirik sexuen artean (minusbaliotasunak erregistratzeaz esan dugunaz aparte).

**02. 182.** – Kontratazioei begiratuz gero, 2003ko lehen hiruhilekoa aztertutik, hor egin ziren 176.420 kontratuetatik, soilik 304 egin zitzaizkien pertsona minusbaliatuei, hots, %0,2 bakarrik.

**02. 183.** – Lanean ari diren pertsona minusbaliatuen ia %80 enplegu zentro berezietan (EZB) ari dira; %20 bakarrik ari dira, bada, enpresa arruntetan.

**02. 184.** Datu horiek guztiek ederki erakusten dute zein zaila zaien lana eskuratzea pertsona horiei. Gainera, EZBek ez dute lortzen, inondik ere, langile horiek lan merkatu arruntean sar daitezten, zeren, kasu gehienetan, zentro horietan lanean hasten diren langileak ez doaz enpresa arrunt batera, horrek lan baldintzen mailan eta zentroak beste pertsona batzuk kontratatzeke aukeran esan nahi duenarekin. EZB gehienak, gainera, azpikontratazio enpresak izan ohi dira, esku-lan intentsibokoak, eta oso balio erantsi txikiko lana egiten dute. Lan baldintza kaskarra goak dituztela baliaturik, erraza gertatzen zaie enpresa arrunten aurka aritzea lehiaketetan.

**02. 185.** Hori guztia gauza baten ondorio da, neurri handi batean. Izan ere, ez da betetzen, inondik ere, 50 langile baino gehiagoko enpresetan lanpostuen %2 pertsona minusbaliatuentzat gordetzeko betebeharra. Postu gehiago lirateke horrela, eskatzaileak baino, baina inon ez da betetzen betebeharrak hori. Egoera hori larria da enpresa pribatuetan, baina are larriagoa erakundeen eta enpresa publikoen kasuan. Beste alde batetik, berriz, administrazioak, Lan Ikuskaritza, ez du ageri jarrera egokia enpresek betebeharrak hori ez betetzearen aurkako borrokan. Hori

guztia dela eta, EZB batetik irteteko aukerak oso mugatuak dira, eta betikotu egiten dira lan baldintza kaskarrak.

**02. 186.** Egoera horren aurrean, Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Sailaren ekimena garrantzitsua da (lan plan baten zirriborroa aurkeztu zuen), baina joan dira jadanik sei hil hura aurkeztu zuenetik, eta ez da izan inongo aurrerakadarik hura gauzatzeko. Gainera, ez dituzte behar bezain kontuan hartu gizarte erakundeak, plan horretan.

**\* Ezbehar kopuru handia eta laneko osasuna ahazturik**

**02. 187.** Lan ezbehar kopuru ikaragarri handia dugu Hego Euskal Herrian. Ondoko taulan ageri den bezala, ia 70.000 lan istripu izaten da hemen urtero. Horietatik, ia 800 larriak. Gainera, 130 soldapetako langile baino gehiago hiltzen da lan istripuz urtero. Egoera latza bada ere, enpresariak eta administrazioak ez diote behar besteko garrantzirik ematen, ezta urrundik ere, egoera horri.

**Lan ezbeharrak Hego Euskal Herrian. 1999-2003**

	1999	2000	2001	2002	2003
Bajadun istripu guztiak	65.145	73.817	72.297	70.736	67.657
Larriak orotara	883	761	787	785	766
Hilgarriak orotara	146	159	121	138	136

**02. 188.** Sindikatuak ez gara joera iraunkor hori jaitsi arazteko gai izan, ez eta Osalari eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari politika zorrotzago eta eraginkorragoak abiarazteko ere.

**02. 189.** Bien bitartean, enpresariak aitzakiak jartzen dihardute: "istripuak ezin dira saihestu, kultura berezia behar da, langileek ez dute egiten kasurik...". Antzekoak dira kargu politiko batzuen adierazpenak ere, horiek baitiote "Jainkoaren eskuetan" jarri behar dugula... Egia esan, ez da segurtasunik enpresetan: ez da bitartekorik, ez inbertsiorik, segurtasuna ez dago integratuta aginte katean, ez dago segurtasun talderik, ez dago batere prebentziorik...

**02. 190.** Espainiako gobernuak, berriz, ez du agertu behar diren transferentziak egiteko inongo asmorik, transferentzia horiekin gaia oso bestela kudea bailiteke. Bestalde, Gizarte Segurantzaren pribatizatzeko gogoz jarraitzen du, eta maila berean jartzen ditu, kasu horretan, mutualitateak eta osasun publikoa, gaixotasun arruntengatikoko baja kontingentzien kudeaketan.

**02. 191.** Biak salatu behar dira, enpresariak segurtasun arauak ez betetzea eta administrazioek enpresari horiek ez jazartzea. Hona egoeraren ezaugarri batzuk:

**02. 192.** – Lan ikuskatzaile bakarra dago (edozein ikuskatze mota egiten, eta ez soilik gai honetakoak) 22.000 langileko, EAEn. Europako Batasunean, aldiz, 6.000 langileko dago ikuskatzaile bat.

**02. 193.** – EAEn lan osasunerako erakunde autonomoa, Osalan, ez da batere egokia bere eginkizunerako: informazioaren kudeaketa hutsa baino haragoko lanik egiteko behar den langile tekniko kopurua oso urria da, eta ez daukate baliabiderik egoerari erantzun onargarria emateko.

[ Lan ezbehar kopuru ikaragarri handia dugu Hego Euskal Herrian. 130 soldapetako langile baino gehiago hiltzen da lan istripuz urtero. ]

[ Espainiako gobernuak, Gizarte Segurantzaren pribatizatzeko gogoz jarraitzen du, eta maila berean jartzen ditu, kasu horretan, mutualitateak eta osasun publikoa, gaixotasun arruntengatikoko baja kontingentzien kudeaketan. ]

[ Lan ikuskatzaile bakarra dago 22.000 langileko, EAEn. Europako Batasunean, aldiz, 6.000 langileko dago ikuskatzaile bat. ]



[ Gaixotasun  
arruntengatiko bajak  
ordaintzen dituztenez,  
mutualitateek prozesu  
osoa kontrolatu nahi dute,  
eta baita alta emateko  
eskumena eduki ere. ]

**02. 194.** – Gogor salatu behar da Eusko Jaurlaritzak eraikuntza sektoreko ikasgela iraunkorrarekin duen jokaera. Bi urteko eztabaida egin zen (sindikatuak eskari eta ekarpen ugari egin zituzten hor), eta Administrazioak enpresariekin sinatu zuen akordioa azkenean, sindikatuen ezkutuan (eta, beraz, sindikatuak hura kontrolatzerik ez zutela), eta akordio horrekin Administrazioak itxura besterik ez du egiten komunikabideen aurrean, nahiz eta egoera izugarri larria den. Horretarako, Osalan erabiltzen du bere aldetik, eta, gainera, funts publikoak ematen dizkie enpresariei, haiei bakarrik dagozkien erantzunkizunak ordaintzeko.

**02. 195.** – Nafarroan, Gobernuak ametitu egiten du egoera. Lan osasuna apaingarri hutsa da Gobernuak, CEN (Nafarroako Enpresarien Konfederazioa), UGT eta CCOO arteko itun sozialen politikan, eta ez zaie erantzuten benetako premiei.

**02. 196.** – Herrilanak egiteko lehiaketetan ere, administrazioek ia sekula ez dute eskatzen lan arriskuak saihesteko edo segurtasuna handitzeko planik edo neurririk.

**02. 197.** Gaixotasun profesionali dagokienez, egungo egoerak ez du inongo alderik orain lau urtekoarekin. Lan munduarekin lotutako beste gai batzuetan legezko araudia modernizatu behar dela eta gaurkotu behar dela etengabe errepikatzen zaigun arren, gaixotasun profesionalen 1978ko Errege Dekretua dago oraindik indarrean.

**02. 198.** Gaixotasun profesional zerrenda bat dago araudi horretan, eta horrek esan nahi du zerrenda horretakoak bakarrik joko direla gaixotasun profesionaltzat, eta gainerakoak lan istripuztat jo beharko dira. Gehienetan, ordea, ez diete irizten ez gaixotasun profesional ez lan istripu, eta horrek esan nahi du gaixotasun arrunt legez tratatzen direla, bai osasun sisteman, bai enpresetan neurri prebentiboez hitz egiten denean. Egoera hori are gehiago okertzen da emakumeek jasaten dituzten gaixotasun profesionalen kasuan, haiek dauzkaten lanengatik eta jasaten dituzten lan baldintzengatik.

**02. 199.** Azkenik, enpresek, kontratu bidez, mutualitateen gain uzten dute gertakizun arruntak kudeatzea. Egun, enpresek mutualitateen esku utz dezakete zerbitzu hori ematea, eta mutualitateak arduratzen dira gaixotasun arruntengatiko bajak eta haien kostuak zaintzeaz. Salatu beharra dago zaintze hori bajan dagoen langileari presio egitea bihurtzen dela, hark lehenbailehen senda-agiria har dezan, osatuta egon edo ez. Egun, langile guztietatik gutxienez %40 daude egoera horretan, Euskal Herrian.

**02. 200.** Gaixotasun arruntengatiko bajak ordaintzen dituztenez, mutualitateek prozesu osoa kontrolatu nahi dute, eta baita alta emateko eskumena eduki ere. Aukera hori Legeak garatuko duen araudiaren baitan dago. Araudi hori edo antzeko bat laster onartzekotan direnez, negoziazio kolektiboaren bidez eta mobilizazio sindikalaz bakarrik eragotz daiteke egoera negargarri hori.

## C) SOLDATEN BILAKAERA

**02. 201.** Azken hamarkadan, aberastasuna gehiago hazi da enplegua baino, eta horrek produktibitatea handitzea ekarri du. Gogoan baldin baditugu, gainera, enplegu berriaren lan baldintza kaskarragoak (soldatarnak barne), enpresen produktibitatearen igoera erantsi bat ageri zaigu.



\* **Soldata igoera apalak negoziazio kolektiboan**

**02. 202.** Soldata igoerak prezioen igoeraren oso antzekoak izan dira azken urte hauetako negoziazio kolektiboan. Ondoko taulan ikus daitezkeenez, susperraldi ekonomikoa hasi zenetik, negoziazio kolektibo sektorialeko batezbesteko eros-ahalmenaren igoera %2,6 metatu bat izan da ozta-ozta, Hego Euskal Herrian. 1998tik aurrera bakarrik lortzen dira Kontsumoko Prezioen Indizeaz (KPI) goragoko igoerak, baina igoera horiek ere ez dira esanguratsuak, 1999an eta 2002an izan ezik.

**Soldataren eta aurreko urteko KPIaren igoerak Hego Euskal Herrian. 1993-2003**

	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	1994-2003
Soldata	3,4	4,4	4,4	3,1	2,5	2,3	3,6	4,4	4	4,2	36,3
KPI	4,9	4,3	4,3	3,2	2	1,4	2,9	4	2,7	4	33,7
Eros-ahalm.	-1,5	+0,1	+0,1	-0,1	+0,5	+0,9	+0,7	+0,4	+1,3	+0,2	2,6

**02. 203.** Hego Euskal Herrian, emakumeen soldatak %32 apalagoak dira gizonenak baino. Ugari dira diskriminazio horren kausak, baina hiru nabarmenduko ditugu:

**02. 204.** – Emakumeen presentzia txikiagoa da lan baldintza ho-beak dituzten sektoreetan. Eta presente daudenean ere, okerrago ordaindutako postuetan egoten dira normalean, eta urriago izaten dira zuzendaritza postuetan ere. Era berean, badira langile gehienak emakumeak diren sektoreak ere, soldata apalagoekin eta lan baldintza kaskarragoekin noski.

**02. 205.** – Lanaldi partzialeko enplegu tasa handiagoa da emakumeen artean.

**02. 206.** – Soldata diskriminazio zuzena egiten delako: gutxiago ordaintzen zaie emakumeei gizonen baino, lan bera egiteagatik, edo kategoria espezifikoak sortzen dira emakumeentzat, gizonentzako baino soldata apalagoekin, edota plus bereziak sortzen dira gizonentzatzat.

\* **Enpresa irabazien hazkunde bizia eta soldata kostuen pisuaren beherakada**

**02. 207.** EAEko industria eta eraikuntza enpresen kontuek (sektore horietan eta lurralde horretan bakarrik baititugu bilakaeraren datuak) erakusten dute %17,5 igo direla lana duen langile bakoitzaren lan kostuak 1995-2001 aldian (hau da, 6 urtean). Aldi horretan berean, %17,8 igo da KPI.

**02. 208.** Bestela esanda: hazkunde ekonomiko biziko aldi batean, enpresen irabaziak %15 igo diren aldi batean, inflazioa baino gutxiago igo da aldiz langile bakoitzaren kostua, EAEko industrian. Egoera horren atzean bi faktore nagusi daude: 1) lan hitzarmenetan jasotako soldata igoera kaskarrak; 2) enpleguan gertatutako aldaketak (aldi baterako lanaren hazkundera, soldata eskala berezi eta apalagoak hasi berrientzatzat...).

**02. 209.** Industrian eta eraikuntzan jarraiturik, lan-kostuak produkzioaren balioaren %19 izatetik (1995) %16 izatera igaro dira (2001), eta

[ Soldata igoerak prezioen igoeraren oso antzekoak izan dira azken urte hauetako negoziazio kolektiboan. ]

[ Hazkunde ekonomiko biziko aldi batean, enpresen irabaziak %15 igo diren aldi batean, inflazioa baino gutxiago igo da aldiz langile bakoitzaren kostua, EAEko industrian. ]



[ **Hazkunde ekonomikoko fasea lan-kostuak merkatzeko erabili dute enpresek, eta beren emaitzak gizentzeko. ]**

[ **Europako Batasuneko langile bakoitzeko lan produktibitatea hartzen badugu balio-erreferentziatzat EAEko produktibitatea %15,1 handiagoa da. ]**

enpresen irabazi gordinak goraka joan dira aldi guztian (produkzioaren balioaren %4tik %8ra). Enpresek sekula ezagutu gabeko errentagarritasun mailetara heldu dira, eta gure inguru ekonomikoko mailetara baino gorago, alderatuz gero.

**Lan kostuak eta irabaziak. Industria eta Eraikuntza. EAE. 1995-2001**

	1995	2001
Costes laborales / ventas	%19	%16
Beneficios / Ventas	%4	%8

**02. 210.** Ageri denez, hazkunde ekonomikoko fasea lan-kostuak merkatzeko erabili dute enpresek, eta beren emaitzak gizentzeko.

**02. 211.** Batzuek diote murriztu egin behar direla lan-kostuak, lan-kostu horiek euskal enpresen produktibitatea moteltzen omen dute eta, euskal enpresak arriskuan ipintzen omen dituzte eta. Hala diotenenk, ordea, ez diete kasurik egiten datu ofizial errealei. Eta datu horiek diote, argi eta garbi, euskal langileen produktibitatea Europako Batasuneko eta munduko handienetako bat dela.

**\* Lan produktibitatea Europako Batasuneko baina handiagoa da**

**02. 212.** Europako Batasuneko langile bakoitzeko lan produktibitatea (produkzio osoaren balioa langile kopuruaz zatiturik) hartzen badugu balio-erreferentziatzat (100 balioa izaki batezbestekoa), EAEko produktibitatea %15,1 handiagoa da. Europako Batasunean, soilik Luxenburgoko (131,7), Irlanda (124,1) eta Belgika (118,9) daude euskal produktibitate mailaren gainetik.

**Langile bakoitzeko lan produktibitatea. EAE eta EB. 1995-2002**

	1995	2002
15en EB	100,0	100,0
Belgika	120,4	118,9
Danimarka	94,1	97,2
Alemania	98,9	94,9
Grezia	78,2	89,1
Espainia	95,9	95,5
Frantzia	114,4	114,8
Irlanda	105,6	124,1
Italia	114,0	106,3
Luxenburg	129,7	131,7
Herbehereak	98,7	96,3
Austria	97,3	98,2
Portugal	57,6	65,0
Finlandia	99,7	100,3
Suedia	96,5	95,8
Erresuma Batua	89,3	96,3



	1995	2002
<b>ELGEko beste batzuk</b>		
Estatu Batuak	119,9	119,1
Japonia	93,6	87,6
<b>EAE</b>	<b>117,0</b>	<b>115,1</b>

[ Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatak 20,7 puntuko eros-ahalmena galdu du 20 urtetan. ]

**\* Gutxieneko Soldata: eros-ahalmen galera eta pobrezia mailaz behetik**

**02. 213.** Soldaten inguruan, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin (LAGS) gertatzen ari dena nabarmendu behar da. Datu horrek agintzen du zer soldata izango duten lan hitzarmenik ez duten langileek. Datu hori erreferentziatzat erabiltzen da soldata tauletako soldata apaleneztat, eta erreferentziatzat, halaber, gutxieneko pentsioak eta beste presztazio batzuk ezartzeko.

**02. 214.** Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatak 20,7 puntuko eros-ahalmena galdu du 20 urtetan. Egun, 460,5 euro da LAGSa. LAGSak izan duen bilakaerak eta lan ezegonkortasun mota desberdinek argitzen digute, neurri handi batean, zergatik dauden gero eta langile gehiago pobrezia mailaz behetik.

**LAGSaren eta inflazioaren bilakaera. 1983- 2001 (% aldaketa)**

	KPI historikoa	LAGS	LAGSaren Eros-ahalm.
1983	14	13,1	-0,9
1984	12,2	8	-4,2
1985	9	7	-2
1986	8,2	8	-0,2
1987	8,3	5	-3,3
1988	4,6	4,5	-0,1
1989	5,8	6	+0,2
1990	6,9	7,1	+0,2
1991	6,5	6,5	=
1992	5,5	5,7	+0,2
1993	5,3	4	-1,3
1994	4,9	3,5	-1,4
1995	4,3	3,5	-0,8
1996	4,3	3,5	-0,8
1997	3,2	2,6	-0,6
1998	2	2,1	+0,1
1999	1,4	1,8	0,4
2000	2,9	2	-0,9
2001	4	2	-2
2002	2,7	2	-0,7
2003	4	2	-2
2004	2,6	2	-0,6

Galera metatua 1983-2004

-20,7 puntu

**[ Batez Besteko Soldataren % 60 izan behar duela gutxienez LAGSak, errenta duin izango bada. Irizpide hori erabiliz gero 2004an, hileko 800 euro litzateke LAGSa Hego Euskal Herrian. ]**

**02. 215.** Europako Kontseiluaren Agiri Sozialak (Espainiako estatuak 1980an sinatua) dio Batez Besteko Soldataren % 60 izan behar duela gutxienez LAGSak, errenta duin izango bada. Irizpide hori erabiliz gero 2004an, hileko 800 euro litzateke LAGSa Hego Euskal Herrian.

**02. 216.** Beste alde batetik, oroitarazi behar da LAGSaren eros-ahalmena sistematikoki murriztea gastu sozialaren kontrol politikako tresna gisa ari dela erabiltzen aurrekontuetan.



# 3.

## ERAKUNDEEN JOKABIDEA

**03. 101.** Azken urteetan ezarri diren politika ekonomikoek, sozialek eta lanekoek ere lagundu dute aberastasunaren banaketa langile-klasaren kalterako izan dadin.

**03. 102.** Atal honetan, langabezia prestazioen eta pentsioen esparuan (Espainiar Estatuaren esku daude bi eskumen horiek) gertatuaz mintzatuko gara lehenik. Horren ondoren, euskal erakundeek egindako politika publikoei helduko diegu.

### A) ESTATUAREN POLITIKA PUBLIKOAK

#### \* *Langabezia prestazioak*

**03. 103.** 2003 azkenean, lanik gabe zeudenen ia erdiek ez zuten INEMetik (Enpleguaren Institutu Nazionala) inongo prestaziorik jasotzen. Hego Euskal Herrian lanik gabe zeuden 102.000 lagunetatik, 30.101ek (langabeen %34,9k) ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzen zuten, eta beste 16.837k (%16,5ek), laguntza prestazioa. Langabeen %49,1ek, beraz, ez zuten jasotzen inongo langabezia prestaziorik.

**03. 104.** INEMek, baina, superabit handia du. Kasu honetan, EAEko informazioa dugu soil-soilik. 2002an, 455,3 milioi euro izan zen langabezia prestazioen (ordaindutakoaren arabera prestazioak, laguntza prestazioak eta INEMen kontura gizarte segurantzari ordaindutako kotizazioak) gastu totala; langabezia kuotetan bildutakoa, berriz, 873,7 milioi euro. Hau da, 2002an INEMek 418,4 milioi euroren superabita (ia 70.000 milioi pezeta) izan zuen, hots, horretarako ordaindutako kotizazio guztien %47,9.

**03. 105.** 2000-2002 aldian (hiru urte) gertatutakoa aztertzen badugu, ikusiko dugu 1.199 milioi euro (200.000 milioi pezeta) izan zela INEMek EAEn bakarrik metatutako superabita. Gastu sozialerako erabili beharrean, Estatuaren beste gastu batzuk osatzeko ari dira erabiltzen superabit hori.

#### **Langabezia kotizazioak eta guztira langabezia gastatutakoa EAEn 2000-2002an (milioi eurotan)**

	2000	2001	2002	2000-2002
KOTIZAZIOAK	751,3	832,0	873,7	2.457,0
GASTU TOTALA	392,6	409,6	455,3	1.257,5
SUPERABITA	358,7	422,4	418,4	1.199,5

*Iturriak: INEM eta Gizarte Segurantza*

**03. 106.** INEMen estaldura oso apala izan arren, PPren Gobernuak, "dekretazoaren" bidez, prestazioak murrizteko hainbat neurri onartu zituen, eta horrexek eragin zuen 2002ko ekainaren 19ko greba orokorra.

[ 2003 azkenean, lanik gabe zeudenen ia erdiek ez zuten INEMetik inongo prestaziorik jasotzen. ]

[ INEMek, superabit handia du. 2002an, 455,3 milioi euro izan zen langabezia prestazioen gastu totala; langabezia kuotetan bildutakoa, berriz, 873,7 milioi euro. ]

[ Euskal pentsio sistemak ere superabit handia du. 2002an, 5.251,4 milioi eurora heldu zen pentsioetarako kotizatutako dirua. Urte horretan berean, pentsioetan egindako gastua 4.688 milioi euro izan zen. ]

[ Susmo txarreko interes bat dago gastu soziala beti defizitarekin, murrizketekin eta pribatizazioekin lotzeko. Badira, haatik, defizita sortzen duten beste gastu batzuk (justizia, armada, polizia eta azpiegiturak, esaterako), eta ez da murrizketen premiarik aipatzen horientzat. ]

Neurri horiek dira Espainiako gobernuaren politiken adierazlerik onenak. Neurri horiek, izan ere, ahalmen handieneko klaseei zaizkie mesedegarri, eta zeharo kaltegarri, aitzitik, langileei.

**\* Pentsioak**

**03. 107.** Euskal pentsio sistemak ere superabit handia du. 2002an, Hego Euskal Herri osoko datuak ditugun azken urtean, 5.251,4 milioi eurora heldu zen pentsioetarako kotizatutako dirua (ez dira sartzen langabeziarako, lan istripuetarako, Fogasarako eta lanbide heziketarako kotizazioak). Urte horretan berean, pentsioetan egindako gastua (zenbateko osoa barne, eta, beraz, baita gutxienekoen osagarriak ere, zein zergen bidez ordaindu behar bailirateke, eta ez kotizazioen bidez) 4.688 milioi euro izan zen. Beraz, euskal pentsio sistemak 563,4 milioi euroren superabita izan zuen (310,6 milioi EAEn, eta 252,8 milioi Nafarroan).

**03. 108.** Baina Estatuak kudeatutako babes sozialeko sistemaren superabita are handiagoa da: lan istripuetarako kotizazioak askoz handiagoak dira aldi baterako ezintasunen prestazioak baino, eta 338,4 milioi euroren superabita erantsi behar zaio horri. Fogasak ere superabita du.

**Pentsio sistemaren finantza egoera Hego Euskal Herrian 2002an (milioi eurotan)**

	Pentsioak			L.I./G.P.		
	PENTSIO KOTIZAZIOAK	PENTSIO GASTUAK	PENTSIO SUPERABITA	I.i./g.p. KOTIZAZIOAK	a.b.e. GASTUA	ISTRIPU SUPERABITA
EAE	4.174,9	3.864,3	310,6	433,8	190,8	243,0
NAFARROA	1.076,5	823,7	252,8	129,3	33,9	95,4
HEH	5.251,4	4.688,0	563,4	563,1	224,7	338,4

Iturria: Gizarte Segurantzza

**03. 109.** Errealitate horren aurrean, gogor salatu behar ditugu klase politikoak eta komunikabideek behin eta berriro errepikatzen dizkiguten bi gauza, gezur hutsa dira eta: lehena, pentsio sistema lur jota dagoela edo egongo dela; bigarrena, guztiz egingaitza dela babes sozialeko euskal sistema bat.

- *Pentsio sistema lur jota omen dago edo egongo omen da*

**03. 110.** Justu aurkakoa gertatzen da, ikusi berri dugunez. Gizarte Segurantzza bideragarria ez dela dioten mezuak eta hark laster lurra joko duela esatea ugaritu egin dira aspaldi honetan, baina denborak ez du mehatxu hori berresten. Erreserba-funtsa hornitu beharrean, beste gastu batzuk osatzeko erabiltzen da superabita. 2010eko zeukaten iragarria zoritxarra batzuek; orain, 2025 arte atzeratzen dute krisia, edo are 2040 arte.

**03. 111.** Gainera, susmo txarreko interes bat dago gastu soziala beti defizitarekin, murrizketekin eta pribatizazioekin lotzeko. Badira, haatik, defizita sortzen duten beste gastu batzuk (justizia, armada, polizia eta azpiegiturak, esaterako), eta ez da murrizketen premiarik aipatzen horientzat. Kontua ez da zerbitzu publiko bat defizitarioa den edo ez, baizik eta zein gastu publiko motari ematen zaion lehentasuna; hautu eta borondate politiko kontu bat da.



**03. 112.** Bistakoa da, bestalde, era horretako mezuek negozio pribatua bultzatu nahi izaten dutela sarri; pentsio planen negozioa, zehazki. Eta inork ez du azaldu, oraindik, gizarte segurantzaren publikoa zergatik ez den biztanleria guztiari estaldura egokia eskaintzeko gai izango, eta sistema pribatuak, aldiz, bai. Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeak (BGAE) pentsio sistema publikoaren osagarri gisa bakarrik onar daitezke, diru sarrera egoki bat bermatzeko. Inoiz ere eta inolaz ere ezin dute izan pentsio sistema publikoak baino tratamendu hoberik, eta BGAE kolektiboek edo lanekoek ere tratamendu hobea izan behar dute, banako sistemek baino.

- *Zeharo ezinezkoa omen da Euskal Herriak berezko babes sozialeko sistema bat izan dezan*

**03. 113.** Baieztapen horrek ez du euskarri empirikorik, eta interes politikoak ditu atzean, ez interes ekonomikoak. Zeren, lehenik, babes sozialeko sistemaren egungo finantza egoerak diosku sistema hori guztiz egingarria dela. Bigarrenik, ez da inongo arrazoi sendorik, sinesteko sistema hori etorkizunean egingarria izango dela Estatuan baina ez Euskal Herrian; inongo azterketa seriok ez du horrelakorik esango.

**03. 114.** Edozein moduz ere, ELAk legeak egiteko eskumen osoa eskatzen du, babes sozialeko geure sistema antolatzen hasteko, tresna horrekin bakarrik bermatu ahal izango baitugu bizimodu duin, autonomo eta egokia hemen bizi diren pertsona guztientzat. Hori onartzen ez dutenen jarrera ez da arrazoi ekonomikoen ondorio, zio politiko hutse-na baizik.

## **B) HEGO EUSKAL HERRIKO ERAKUNDEEN JOKABIDEA**

**03. 115.** Euskal erakundeen (EAE eta Nafarroa) joera neoliberalak ez da berria, baina bai gero eta nabarmenagoa.

### **\* Aurrekontu politika murriztailea**

**03. 116.** Euskal erakundeen (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak eta EAEko Foru Diputazioak) aurrekontu politikak bi joera nagusi ditu:

- *Gastu publikoaren pisua behera doa ekonomian*

**03. 117.** Eusko Jaurlaritzaren 2004rako aurrekontu proiektuaren datuen arabera (Legebiltzarrean onartu ez zena), BPGaren %13,21 zen gobernuak aurtengo aurreikusita zeukan gastu osoa. Horrek beheranzko joera bat ageri du, 2003ko aurrekontuen aldean (orduan BPGaren %13,24 izan zen gastua). Azken urteotan, izan ere, jaisten ari da etengabe gobernuaren gastuak ekonomian daukan pisua. 1998an, BPGaren %13,81 izan zen gastu publikoa, 2004rako aurreikusten dena baino sei hamarreko gehiago. Alde hori 280 bat milioi euro da urtean.

**03. 118.** Politika murriztaile hori are gogorrago ezarri du Nafarroako Gobernuak. Gobernu horren gastu publiko totala Balio Erantsi Gordinarekin (BEG) %24,7tik (1998) % 1,4ra igaro da (2004). 1998an gastu publikoak ekonomian zeukan pisua atxiki izan balu Nafarroako Gobernuak, aurtun 434,2 milioi euro gehiago gastatuko zukeen (781 euro pertsonako), aurrekontuetan aurreikusi duena baino.

[ Ez da inongo arrazoi sendorik, sinesteko sistema hori etorkizunean egingarria izango dela Estatuan baina ez Euskal Herrian ]

[ Euskal erakundeen joera neoliberalak ez da berria, baina bai gero eta nabarmenagoa. ]

[ Deigarria gertatzen da zorra gogor murriztera jotzea, superabit maila horiek izanik, eta premia sozial larriak daudenean betetzeke (etxebizitza, zerbitzu sozialak, oinarrizko errenta, gizarte-larrialdirako laguntzak, 0 eta 3 urte arteko heziketa, osasun prestazio jakin batzuk, ingurumena...). ]

[ Euskal erakundeen zerga politika guztiz erregresiboa da. ]

[ Lan-errentek 15.900 euro aitortzen dute, batez beste, urteko, Hego Euskal Herrian; enpresa-errentek eta errenta profesionalak, 10.200 euro soilik: 5.700 euroren aldea, urtean. ]

### Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoaren pisua (BPGaren %) eta Nafarroako Gobernuaren gastu publikoarena (BEGaren %). 1998-2004.

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
EAE	13,8	13,7	13,4	13,3	13,4	13,2	13,2
NAFARROA	24,7	24,3	24,1	23,6	22,4	22,3	21,4

- *Superabita hobesten da gastu soziala handitu ordez*

**03. 119.** EAEko erakundeen (Eusko Jaurlaritza, Foru Diputazioak eta Udalak) aurrekontu likidazio bateratuek BPGaren %2ren superabita ematen dute, batez beste, 1998tik. Eskandaluzko egoera da.

**03. 120.** Politika horren ondorioz, zor publikoaren pisua modu ikusgarrian ari da jaisten. 1998tik 2003 arteko aldiari, BEGaren %8,92tik %5,21era igaro da Nafarroako Gobernuaren zorra, eta BPGaren %6,09tik %3,78ra, Eusko Jaurlaritzarena.

**03. 121.** Deigarria gertatzen da zorra gogor murriztera jotzea, superabit maila horiek izanik, eta premia sozial larriak daudenean betetzeke (etxebizitza, zerbitzu sozialak, oinarrizko errenta, gizarte-larrialdirako laguntzak, 0 eta 3 urte arteko heziketa, osasun prestazio jakin batzuk, ingurumena...). Gai horiek guztiak euskal erakundeen eskumenak dira, eta aurrekontu kaskarrak hornitzen direlako daude halako gabezia handiak.

\* *Errenta handien, enpresa errenten eta kapitalaren errenten zerbitzuko zerga politika, iruzurra ametitzen duena*

**03. 122.** ELAk euskal zergen egoera aztertzen duen txosten bat egin du urtero. Azterketa horrek erakusten du lan-errentek zerga presio handiagoa jasaten dutela enpresa-errentek eta kapitalaren errentek baino. EAEn, adibidez, BPGaren %6,43 osatzen dute lan errentek PFEZean; enpresa errentek, errenta profesionalak eta kapitalarenak (PFEZ + Sozietateen gaineko Zerga), berriz, %3,05, hots, erdia baino gutxiago. Nafarroan ere, aldea, txikiagoa izan arren, handia eta ezin zurituzkoa da. Lurralde horretan, lan errenten zatia BEGaren %6,26 da, eta enpresa errentena, errenta profesionalena eta kapitalena, BEGaren %3,83.

**03. 123.** Euskal erakundeen zerga politika guztiz erregresiboa da:

**03. 124.** – Zergak jaisten zaizkie errenta handienei. 2003an, EAEko Diputazioek PFEZaren beste gutxitze bat onartu zuten. Zergaren beste aldaketa bat onartu da Nafarroan ere. ELAk gogor gaitzetsi zituen, bere garaian, aldaketa horien edukiak eta 2001ekoak. Gehiago dutenek onura handiagoa jasotzen dute aldaketa horietatik (zergaren tasa marjinal maximoaren jaitsieraren eta beste neurri batzuen bitartez), eta errenta apalenak dauzkatenek, berriz, edo ia kopuru bera ordaintzen dute, edo ez dute inongo onurarik jasotzen. Zerga bilketa urriagoa, gainera, gastu sozialaren kalterako egiten da, eta, jakina, gastu horixe dute beharren gutxien daukatenek.

**03. 125.** – Handitu egin da leizea, bada, PFEZean lan-errentak eta bestelakoak aitortzen dituztenen artean. Lan-errentek 15.900 euro aitortzen dute, batez beste, urteko, Hego Euskal Herrian; enpresa-errentek eta errenta profesionalak, 10.200 euro soilik: 5.700 euroren aldea, urtean. Bost urtean, 2.000 euro handitu da alde hori, eta hor

ageri da hemengo zerga politika gero eta bidegabeago eta intsolidariagoa dela.

**PFEZean aitortutako batez besteko errenta (eurotan).  
1994-2000**

	1994	2000	1994-2000
Lana	13.000	15.900	+2.900
Jard. enpres. eta prof.	9.300	10.200	+900
Diferentzia	3.700	5.700	+2.000

**03. 126.** – Ez da borrokatzen zerga iruzurraren aurka. Laneko ez diren errenten %1,2 bakarrik ikuskatzen dira urtero, eta horrek erraztu egiten du soldatapeko ez diren multzoen zerga iruzurra. Euskal ogasunek ez dute benetako gogorik zerga iruzurrari aurre egiteko. Belgikan, Alemanian eta beste herri batzuetan, gutxienez bost urtez behin ikuskatzen dituzte enpresa guztiak eta lanekoak ez diren errenta guztiak. Horregatik da han zerga iruzurra Euskal Herrian baino askoz txikiagoa.

**\* Indar politikorik gabe negoziatutako Kontzertu Ekonomikoa**

**03. 127.** 2001ean zehar, negoziazio prozesu bat izan zen Estatuko Gobernuaren eta EAEko erakundearen artean, Kontzertu Ekonomikoari buruz. Gizartea eztabaida horretatik at gelditu zen. ELAk ez zuen jaso inongo argibiderik zuzenean, hor gertatzen ari ziren aurrerakadez edo atzerakadez, eta gertatutik ondoko ondorioak ateratzen ditugu:

**03. 128.** – Kontzertua ez da berdinen arteko ituna. Mito hori hankaz gora joan da. Alde batek luzapena ezartzeak erakusten du, garbi asko, adostasunik ez denean Estatuaren erabakia ezartzen eta indarrean jartzen dela EAEko erakundearen nahiaren gainetik.

**03. 129.** – Kontzertua ez da arrotza autogobernuaren beste alor batzuetan gertatzen denarentzat. Aznarren Gobernuaren alde bateko luzapena haren estrategiaren beste urrats bat baizik ez zen izan. Esparru guztietan (hezkuntzan, osasunean, enpleguan...), beste eskumen banaketa bat ezartzeko erabili dira legeak, eta autogobernu maila murrizteko.

**03. 130.** – Euskal erakundeek Kontzertuaren gatazkari emandako erantzuna autogobernuari egin zaizkion beste erasoetan emandakoaren antzekoa izan da, tamalez. Asmo handiak agertzen dira, hitz handiak esaten, baina azkenean Madrilen alde bakarrez hartutako erabakiak ezartzen dira zintzo-zintzo, erantzun politiko zehatz bat asmatzeko gaitasunik gabe. Kontzertuaren kasuan, orobat gertatzen da funtsean.

**03. 131.** – Egungo eskumen banaketa oztopo latza da subiranotasunaren bidean. EAEko erakundeek emandako erantzunetan ikusi da oso interes desberdinak izan daitezkeela Diputazioen eta Eusko Jaur-laritzaren artean, edo Diputazioen artean ere. Helburu estrategikotzat boterea egungo erakunde esparrutik kudeatzea erabaki dutenak eragozpen handia dira burujabetzarantz daraman prozesuan aurrera egiteko, prozesu horrek jokaera aktibo bat eta erakunde aitzindari-tza sendo bat eskatzen baititu.

**[ Euskal erakundeek Kontzertuaren gatazkari emandako erantzuna autogobernuari egin zaizkion beste erasoetan emandakoaren antzekoa izan da, tamalez. Asmo handiak agertzen dira, hitz handiak esaten, baina azkenean Madrilen alde bakarrez hartutako erabakiak ezartzen dira zintzo-zintzo, erantzun politiko zehatz bat asmatzeko gaitasunik gabe. ]**



[ Euskal erakundeen politika publikoek etxebizitzaren arazo honi ez diote behar bezala aurre egin. ]

[ Oso aurrekontu zati txikiak erabiltzen dira etxebizitzaren alorreko gastu publikoan. ]

[ Eusko Jaurlaritzak osasunean egin duen gastua publikoa BPGaren %4,45etik (1998) %4,25era igaroko da (2004). ]

\* ***Etxebizitza: luxu, eskubide orde***

**03. 132.** ELAK Euskal Herriko etxebizitzaren egoerari buruz argitaratutako txostenaren azken kopuruak gogoratu behar ditugu:

**03. 133.** – Eskaintzen direnak baino 100.000 etxebizitza gehiago behar dira, bai errentan emateko, bai saltzeko.

**03. 134.** – Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa etxe beharrean direnek ordain dezaketena baino 1,6 aldiz handiagoa da; erabilitako etxebizitzaren batez besteko prezioa, berriz, bi aldiz handiagoa.

**03. 135.** – Aldatzeko beharra zuen jendeak bere diru-sarrerren %29,4 erabili behar zuen etxea ordaintzeko, eta etxea hartu beharrean zenak, %49.

**03. 136.** – Batez besteko alokairua ere hileko 260 euro handiagoa zen aldatzeko beharra zuen jendearen gaitasuna baino, eta 200 euro handiagoa, etxea hartu beharrean zen jendearen gaitasuna baino.

**03. 137.** Langabeziak eta lan ezegonkortasunak are okerrago bihurtzen dute arazoa. Gazteek atzeratu egiten dute beren gain jartzea eta familia bat osatzea. Etorkinekin sekulako bidegabekeriak gertatzen dira alor horretan. Hori asko ez dela, egoera okerragotu egin da txostena egin zenetik.

**03. 138.** Euskal erakundeen politika publikoek arazo honi ez diote behar bezala aurre egin, eta beren politikak ezaugarri hauek ditu:

**03. 139.** – Oso aurrekontu zati txikiak erabiltzen dira etxebizitzaren alorreko gastu publikoan.

**03. 140.** – Zerga-arintzeak lehenesten dira, eta hori etxebizitzan egindako gastu publikoa halako bi da jadanik. Zerga-arintze horiek halako irabazi maila batera heltzen direnei bakarrik egiten diete mesede, eta estaldurarik gabe uzten dute premia handiena duen jendea.

\* ***Murrizten ari dira gastu publikoa osasunean***

**03. 141.** Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuak Osasun sailen arduradunek diote, behin eta berriro, osasun gastua ekonomia baino bizkorrago ari dela hazten azken urte hauetan. Datu hori gezur biribila da, aurrekontuen edo gastu sozialaren bata bestearen ondoko azterketetan agerian ipini dugun bezala:

**03. 142.** – Eusko Jaurlaritzak osasunean egin duen gastua publikoa BPGaren %4,45etik (1998) %4,25era igaroko da (2004).

**03. 143.** – Nafarroako Gobernuak osasunean egin duen gastu publikoa BEGaren %5,22tik (1998) BEGaren %4,90era jaitsiko da (2004).

**03. 144.** Osasun gastua neurririk gabe hazten ari dela diotenek gezur hutsa diote. Horiek osasun sistema publikoaren estaldura murriztu nahian dabilta, eta osasun sistema pribatuak hedatu nahian. Hau da, negozioa egin nahi dute oinarritzko giza eskubide denarekin; osasun zerbitzuarekin, alegia.

**03. 145.** Badira sistema publikoak eskaintzen ez dituen edo erdizka eskaintzen dituen zenbait estaldura (odontologia, optika, osasun mentala...). Defizit horiek estali beharrean, euskal erakundeek osasun zerbitzu

privatuei handitzen uztea erabaki dute, eta zenbait zerbitzu azpikontratzea, bai osasunekoak, bai bestelakoak.

**\* Hezkuntza gastu publikoa, gainbehera**

**03. 146.** Hezkuntza gastu publikoa ere gainbehera doa. 2001ean, BPGaren %3,68 zen EAEn. 2002an, %3,77ra igo zen zifra hori, baina lanpostu mailako osagarriaren gaineko epai bat bete behar izan zelako, egia esan. Geroztik, jaitsi egin da berriro ehunekoa, %3,64raino 2003an, eta %3,56raino 2004an.

**03. 147.** Gastuaren bilakaera hori arrazoi nagusi bategatik da, funtsean: oso igoera urria gertatzen da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (%2,99 hazten da 2004an, 2003an %1,39 jaitsi ondoren). Oso igoera urria gertatzen da, halaber, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan (%1,86 bakarrik hazten da 2004an, 2003an %6,29 jaitsi ondoren). BPGarekin alderatuta, BPGaren hamarren bat baino gehiagoko jaitziera gertatzen da bi sailetan bi urte eskaseko epean. Ezin onartuzko bilakaera da hori.

**03. 148.** Gastu publikoaren atal horren bilakaera antzekoa da Nafarroan ere. 2001ean, Balio Erantsi Gordinaren (BEG) %3,75 zen hezkuntza publikoan egindako gastua; 2004an, berriz, aurreikusten da %3,45 izango dela.

**03. 149.** Gainera, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntzan (eta bereziki 2 urte artekoan) egundoko defizita dagoenean gertatzen da bilakaera hori. Euskal erakundeek politika ez doa arlo horretan dauden premia sozialak estaltzera. Aitzitik, erakunde horiek "hor konpon" esaten dute (Eusko Jaurlaritzak, adibidez, heziketa eskaintza hori garatu nahi duten udalerrietara zuzentzen du estaldura, eta batez ere zentro pribatuek ateratzen diote probetxu estrategia horri).

**\* Bizimodu duin, autonomo eta kalitatezkoa eramateko adinako gutxieneko diru-sarrerak ez bermatzea**

**03. 150.** Pobrezia larria deritzeten egoerak ugaltu dira hazkunde ekonomikoko zikloan. Hainbat faktoregatik: soldatak oso apalak diren enpleguak ugaltu dira, estaldura sozialak beheraka doaz etengabe...

**03. 151.** Errealitate horren aurrean, euskal erakundeek hobetu egin behar zuten beren esku duten babes sozialeko sistema zatia. Tamalez, oinarrizko errentatzat ezarritako kopuruak (are gehiago Nafarroan) pobrezia mailaz behetiko diru-sarreraz uzten du herritar eta familia anitz. Oinarrizko errenta horren azken urteetako bilakaerak erakusten du gure gizartean okerren daudenei inongo irtenbiderik emateko ez dagoela berrondatearik.

**03. 152.** Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) ditugu politika neoliberalaren adibide ona. Eusko Jaurlaritzak 20 milioi euro izendatu zuen alor horretarako 2004ko aurrekontuetan (ez ziren onartu), 2003an bezalaxe, hots, kopuru errealetan gutxiago. Horrek murrizketak ekarri ditu, ondorioz, alokairuak ordaintzeko laguntzetan adibidez, eta kalte egin die laguntzen jasotzaileengan. Hori guztia, gainera, aurrekontuetan superabita dagoen egoera batean egin da. Horrek ere ederki agertzen du nolako sortasuna eta gogortasuna dagoen gure gizartean okerren daudenen oinarrizko premien aldera.

[ Hezkuntza gastu publikoa ere gainbehera doa. ]

[ Gainera, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntzan (eta bereziki 2 urte artekoan) egundoko defizita dagoenean gertatzen da bilakaera hori. ]

[ Oinarrizko errentatzat ezarritako kopuruak pobrezia mailaz behetiko diru-sarreraz uzten du herritar eta familia anitz. ]

[ GLLak pertsonen eta familien premia gogor jakin batzuk estaltzeko laguntzak dira. Halere, eta oinarritzko errenta ez bezala, ez dira eskubide; aurrekontuko zuzkiduraren arabera ematen dira. ]

[ Frogatu da aurrekontuko zuzkidurak ez direla aski. ]

[ Zerbitzu pribatuak jarri dira, eta zerbitzuak pribatizatu, lan baldintza negargarriak sortzen direlarik. ]

**03. 153.** GLLak pertsonen eta familien premia gogor jakin batzuk estaltzeko laguntzak dira. Halere, eta oinarritzko errenta ez bezala, ez dira eskubide; aurrekontuko zuzkiduraren arabera ematen dira.

**03. 154.** Frogatu da aurrekontuko zuzkidurak ez direla aski, eta, horregatik, udalek utzi egin diote premia horiek estaltzeari urteko azken hiletan, edo gastuen zati bat baizik ez dute estali, bestela. Gainera, eta nahiz eta GLLak premia ugaritarako erabili behar liratekeen, aurrekontuaren %80 baino gehiago etxebizitza gastuak estaltzeko erabiltzen da, eta beste premia asko estali gabe gelditzen dira.

\* **Zerbitzu sozialen garapen eskasa**

**03. 155.** Bizimodu duin, autonomo eta egokia bermatu behar zaie pertsona guztiei. Horretarako, eskubide unibertsaltzat jo behar dira pertsonentzako eta familientzako laguntza zerbitzuak (adibidez, pertsona zaharrentzako edo minusbaliatuentzako etxez etxeko zerbitzuak, egoitzak, eguneko zentroak etab.).

**03. 156.** Gaur egun, ordea, eskubide horiek ez daude legez bermaturik. Gainera, maila desberdinen arteko eskumen banaketak (Diputazioak, Udalak) oso egoera bitxi eta desberdinak sor ditzake. Hain da egia hori, ezinezkoa baita zerbitzu horien estaldurari buruzko diagnostiko zehatzik egitea. Baina eman daitezke horien bilakaerari buruzko datu orokor batzuk:

**03. 157.** – Ugaldtu egin dira zerbitzu sozialak. Ugaldtu egin dira egoitzak, etxez etxeko laguntza ematen zaien pertsonak etab.

**03. 158.** – Ez da handitu zerbitzu sozialei eskainitako gastua. Harritzekoa bada ere, Eustatek urtero egiten duen azterketak erakusten digu 2001ean (datuak dauden azken ekitaldia) BPGaren %1,8 zela zerbitzu sozialetako gastua EAEn, 1993ko ehuneko bera.

**03. 159.** – Zerbitzu pribatuak jarri dira, eta zerbitzuak pribatizatu, lan baldintza negargarriak sortzen direlarik. EAEko eta Nafarroako gobernuek, esan bezala, zerbitzu pribatuen sorrera bultzatea erabaki dute, eta lehen (ziren tokietan) publiko ziren zenbait zerbitzu, pribatizatzea. Horren ondorioz, lan ezegonkortasuna eta lan esplotazioa arruntak dira, ez salbuespen. Era berean, jende gehiagori ematen zaio arreta, baina denbora laburragoa eskaintzen zaiola pertsona baikoitzari.

**03. 160.** Zerbitzu sozialen defizitak ondorio kaltegarriak ditu:

**03. 161.** – Pertsonen oinarritzko eskubideak estali gabe gelditzen dira.

**03. 162.** – Familiaren gain uzten da premia duten pertsonen zaintza, eta emakumeek egiten dute batez ere lan hori.

\* **Azpiegitura politika desegoki eta loturarik gabea**

**03. 163.** Hego Euskal Herriko azpiegituren inguruko eskumenak guztiz barreiatuta daude. Diputazioak arduratzen dira errepideez; Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, trenbideez. Horrek zera ekarri du, praktikan: ikuspegi osorik izan ez duten planak eta azpiegiturak egin dira, gehienetan, garraioaren alorrean.

**03. 164.** Errepidezko garraioa askoz handiagoa da hemen Europako Batasunean baino, eta trenbidez egindakoa, ostera, askoz txikiagoa. Gure errepideetan egun ditugun saturazioak, kutsadurak eta arriskuek be-rehalako erantzuna eskatzen dute, eta gure erakundeei dagokie erantzun hori antolatzea.

**03. 165.** Trenbidea da garraibiderik egokiena, alde askotatik begirata. Bistakoa da, ordea, egungo euskal trenbide sistema oso kaskarra dela, nola pertsonen garraiorako, hala salgaienerako.

**03. 166.** Orain arte, erakundeek errepide berriak eraikitzea (konpon-bide motza, horiek ere bete egiten baitira, edo toki batetik bestera aldatzen da arazoa) eta Abiadura Handiko Trena bakarrik eskaini dituzte al-ternatibatzat.

**03. 167.** Abiadura Handiko Trenak ez die erantzuten Euskal Herrian ditugun premiei:

**03. 168.** – Ez du eskaintzen irtenbiderik merkantziak garraiatze-ko, eta hori erabat onartezina da kostua inork ez dakien (baina ziu-rrerik milaka milioi euroena izango duen) azpiegitura batean.

**03. 169.** – Hiriburuak bakarrik lotzen ditu funtsean, eta elkarrekin lotu gabe uzten ditu euskal eskualdeak, eta zerbitzurik gabe, biztan-leriaren multzo handiak (egun, joan-etorrien %1 bakarrik egiten da hiriburuen artean).

**03. 170.** – 100 bat kilometroko bidea behar du lastertasunik han-diena hartzeko, eta ez luke hartuko beraz Euskal Herrian, eta horrek erabilera kaskartzea esan nahi du.

**03. 171.** – Txartelaren kostua handia litzateke, eta, horregatik, ga-rraiobide elitista eta garestia genuke hori. Ez litzateke lehiakorra izango beste garraibide batzuen aldean (autobusa).

**03. 172.** – Ibilbidearen eskakizunek eta energia kontsumoak da-karten ingurumen inpaktua nabarmenki handiagoa da ohiko tren on batena baino. Gure orografiak eta bazterrek zail egiten dute azpiegi-turak egitea, baina ezaugarri horiexek dira gure lurraren baliorik handienak, eta gorde eta zaindu egin behar ditugu.

#### \* *Ingurumen kostu handiak*

**03. 173.** Egungo garapen ekonomikoaren ereduak ingurumen kostu handiak ditu, zalantzarik gabe. Gai horretan, egoera oso kezkarria da. EAEn, esaterako, CO2 emisioak %28,6 handiagoak dira 1990ean baino, eta %15 da Espainiar Estatuari ametitzen zaion emisio-gehitze maila. Horrek esan nahi du ametitutakoa baino %13,6 gehiago isurtzen dugu-la. Hainbat gairen emisioan maila bat gorde behar luketen 258 enprestatik, 119k gairitu egiten dute maila hori gaitu batean edo gehiagotan. Nafarroan, %37,5 CO2 gehiago isurtzen da egun, 1990ean baino. Ez da-go informaziorik gai horiek ametitutako mailaz goitik isurtzen dituzten enpresen kopuruaz. Alemanian edo beste leku batzuetan, aitzitik, CO2 emisioak askoz beherago daude garai batean ametitzen zenetik, eta 1990koen azpitik, halaber.

**03. 174.** Adierazle ugari dio Euskal Herriko ingurumen egoerak oso bilakaera kezkarria daramala. Enpresei dagokienez, esan behar da 2005ean “emisioen merkataritza” jarriko dela indarrean. Horrek esan na-

[ Trenbidea da garraibiderik egokiena, alde askotatik begirata. Bistakoa da, ordea, egungo euskal trenbide sistema oso kaskarra dela, nola pertsonen garraiorako, hala salgaienerako. ]

[ Adierazle ugari dio Euskal Herriko ingurumen egoerak oso bilakaera kezkarria daramala. Enpresei dagokienez, esan behar da 2005ean “emisioen merkataritza” jarriko dela indarrean. Horrek esan nahi du ezarritako mailatik gora emititzen edo isurtzen dutenek “erosi” egin beharko dituztela emisio eskubide horiek. ]

[ Kongresu arteko aldian, Konstituzioaren aurkakotzat jo dute Estatuko etengabeko prestakuntza eredia (Forcem). Hala ere, Espainiako Gobernuak eredu horri egin behar izan dion aldaketa behartuak, baliogabetutako ereduaren fislosofia sendotu du. ]

hi du ezarritako mailatik gora emititzen edo isurtzen dutenek "erosi" egin beharko dituztela emisio eskubide horiek. Beraz, norberari dagokiona baino gehiago isurtzea ingurumen eta ekonomi arduragabekeria izango da aldi berean, biztanleria osoaren eta enpresa beraren kaltegarri.

**03. 175.** Egoera txarraren atzean bi sektore daude neurri handi batean: energiarena eta garraioarena. Energia ekoizpenari dagokionez, %92 hazi dira CO2 emisioak 1990etik. Jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, bistakoa da hemen kontsumitzen den energia hemen bertan behar litzatekeela ekoiztu, haren garraioan ez kutsatzeko eta haren ingurumen kostuak ere beste zona batzuetara ez aldatzeko. Baina horrek ez du inongo zerikusirik energia independentziarekin, zeren egungo energia ereduarekin gero eta erregai gehiago ari baikara inportatzen. Energia berriztagarriak erabiliz bakarrik irits daiteke energia independentzia hori. Zoritxarrez, energia mota horiek ez dira behar beste gartzen ari. Gainera, euskal erakundeek, hemen kontsumitzen den energiaren %100 ez ezik, gehiago ere produzitu nahi dute, eredu horixe ari dira bultzatzen eginahalean. Gu, jakina, ez gaude ados horrekin.

**03. 176.** Aipatu dugu garraioa aurreko paragrafoan. Bada, garraioak %77 gehitu ditu CO2 emisioak 1990etik.

**03. 177.** Ingurumenaren ikuspegitik aztertuta, bistakoa da transgenikoak arriskutsuak direla, bai pertsonen osasunarentzat (oraindik ez dira ezagutzen horien ondorioak), bai elikagaien jasangarritasun eta subiranotasunarentzat (urritu egiten dituzte tokian tokiko motak, eta mendekotasuna sortzen dute hazi horniketean, enpresa multinazional batzuei erosi behar izaten baitzaizkie). Hazi transgenikoek ohiko laborantza kutsatzen dute gainera.

#### \* *Politika negargarria Etengabeko Prestakuntzan*

**03. 178.** Kongresu arteko aldian, Konstituzioaren aurkakotzat jo dute Estatuko etengabeko prestakuntza eredia (Forcem), berari ez zegozkion eskumenak bereganatzen zituelakoan. Hala ere, Espainiako Gobernuak eredu horri egin behar izan dion aldaketa behartuak (CCOoren, UGTren eta CEOEren onespenez), defizit demokratiko hori zuzendu beharrean, baliogabetutako ereduaren fislosofia sendotu du.

**03. 179.** EAEn eta Nafarroan, bi errealitate desberdin baina gidoi bera izan ditugu. Nafarroan ukatu egin zaigu, era sektarioan, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte hartzea, eta EAEn, Hobetuz eredia beti zehaztu gabe eta erasopean da, barrutik eta kanpotik, praktikan Estatuko eredia defendatzen dutenen eskutik, eta horrek ataka larrian ipini du Hobetuz. Eusko Jaurlaritzak jokaera etsigarria agertu du, ez baitio aurre egin politikoki Espainiako Gobernuari, eta, gainera, erabaki garrantzitsuak ezarri egin ditu, dekretuz eta sindikatuekin adostu gabe.

**03. 180.** ELAk dio Lanbide Heziketari buruzko erabakiak ezin direla hartu gu gabe, ez eta gure interesen aurka ere. Horregatik, eskatzen du langile guztiek izan behar dutela eskubidea horko erabaki guztietan parte hartzeko, eta eredu hau defendatzen du:


**03. 181.** – Eskumen eksklusiboak izatea alor horretan, geure politika egiteko. Politika horren bidez eredu integral bat ezarriko genuke, eta lanbide heziketa erreferente bakarra litzateke, bai sektore pribatuko bai sektore publikoko langileentzat.

**03. 182.** – Etengabeko prestakuntzako akordioen errespetua. EAEko lanbide arteko akordioa izan zen akordio horietako bat, eta hortik sortu eta etorri zen Hobetuz.

**03. 183.** – Lanbide heziketarako kuoten itzultzetik finantzatzea hura, eta europar funtsekin ere bai aldi berean, hura zuzenean gidatzeko eta kudeatzeko.

**03. 184.** – Kalitatezko prestakuntza eskaintzea, funtsen gainean erabateko kontrola eta gardentasuna dela. Eskarian oinarrituko litzaiteke prestakuntza eskaintza, eta bereziki enpresa txiki eta ertainei (ETE) legoke zuzendurik eskaintza hori. Langile guztiei bermatuko litzaieke prestakuntza programetan aritzea, eta lanbide heziketa zentroetan emango lirateke horiek.

**03. 185.** ELAri iruditzen zaio, bestalde, etengabeko prestakuntza nahitaez sartu behar dela negoziazio kolektiboan. Ekintza sindikaleko tresna gisa txertatu behar da lanbide heziketa enpresen eta administrazio publikoen barruan.



# 4.

## ITUN ANTITERRORISTIK GOBERNU ALDAKETARA ESPAINIAR ESTATUAN

### A) ALDERDI POPULARRAK ZORTZI URTEZ GOBERNATU OSTEAN

**04. 101.** ELAk bere X. Kongresu Konfederala egin baino egun gutxi batzuk lehenago, PPK eta PSOEk "Askatasunen aldeko eta terrorismoaren aurkako ituna" ("Itun Antiterrorista" lege ezagunagoa) sinatu zuten, eta Estatua itun horren arabera aritu da Euskal Herriaren aurka, hurrez gero.

**04. 102.** Frankismoaren ondotik, oso estatu eredu berezia ezarri zen. Espainiar indar politiko nagusien arteko adostasunean oinarritu zen eredu hori, eta, estatuaren egiturari zegokionez, ezin zen joan boterea zentroaren eta periferiaren artean banatzea baino harago. Botere banaketa hori egoera politikoaren arabera administratuko zen, eta sekula ez zuen zalantzan jarriko non zetzan subiranotasuna. Horixe zen Espainiako eskuinak PSOErekin hitzartutako "Itun Autonomikoa". Estatuko gobernura heldu zenean, PPK iritzi zion itun autonomikoa motz gelditzen zela, eta harago joan behar zela: uniformizazio elementuak indartu behar ziren, eta bideragarritasun juridikoa eta zilegitasun demokratikoa ukatu behar zitzaizkien abertzaleen asmoei. ETAk Ermuko Miguel Angel Blanco zinegotzia hil ondoren gertatu zen Estatuko Gobernuaren estrategia aldaketa hori, eta, batez ere, Lizarra-Garazi adierazpena aldarrikatu zenean. Adierazpen horretan, esaten zen "Euskal Herriak hitza eta erabakimena eduki behar zituela", bere geroa eratzeko. Hitz hori, adierazpenak berak dioten bezala, errespetatu egin behar dute estatuek.

**04. 103.** Biraketa horren ondotik, baketzea eta normalizazio politikoa ezkutatu egin ziren espainiarren agendatik. Terrorismoaren aurkako eta askatasunen aldeko omen den itun baten babesean, Espainiako Gobernuak oso dinamika larriak bultzatzen ditu, eta kudeaketa irizpen berriak ezartzen ditu euskal auzirako. "Konstituzionalismoak" (horrela deitzen dio bere buruari fronte espainolak) botere alternatibatzat eskaintzen du bere burua EAEn, bere esku dituen baliabide guztiak darabiltzala. Bide demokratikoz defendatzen den edozein proiekturen zilegitasunetik, ideologia batzuk kriminalizatzeraz eta alderdi politiko nahiz gizarte erakunde batzuk legez kanpo ezartzera igarotzen da. Eta, azkenik, Estatua- ren botereek eta beste botere faktiko batzuek bat eginda jokatzeko dute, *status quo*a kolokan ipintzen duen edozein ekimen deusezteko.

**04. 104.** Batasuna nahiz haren espazio politikoa ordezka dezaketen hauteskunde plataformak legez kanpo ezartzea, Udalbiltza legez kanpotzat jotzea, *Egunkaria* ixtea, lan sozialean edo euskal kulturaren alde nabarmendu den jendea jazartzea... horra lau urte honetan gertatu denaren agergarri garbia. Askatasun osoan eztabaida politiko berri bat hasteko aukera bera ere galarazi dute, azkenik.

**04. 105.** Askatasunak murrizteko dinamika globalen babesean, PPK (PSOEren adostasunaz, betiere) zinezko sistema demokratiko batean onartuko ez lireratekeen lege-aldaketa eta ekimenak bultzatu ditu: adin



txikikoen legea, kode penalaren aldaketa, alderdien legea, atzerritarren legea...

**04. 106.** Era berean, sistema demokratikoaren muineko osagaiak (botereen banaketa, berme juridikoak...) hautsi egin dira, eta, orain, botere bakarra eta eginkizunen banaketa baizik ez dakusagu. Modu larrian urratu dira askatasunak eta giza eskubideak, talde batzuek eta nazioarteko erakunde ospetsu batzuek (Amnesty International, Nazio Batuen Giza Eskubideen Behatokia...) salatu duten bezala.

**04. 107.** Ildo horretan, aipatzekoak dira itun antiterroristaren babesean egindako atxilotze ugariak. Kasu askotan, indarkeriarekin loturirik ez duten erakunde, mugimendu eta proiektutako militante dira atxilotuta horien biktimak. Bakartzea eta lege antiterroristan aurreikusitako atxilotzealdi luzeenak ezartzen dira, gainera, sistematikoki. Torturak ohikoak izaten dira egoera horretan, baina epaileek oso gutxitan ikeretzen dituzte horiek.

**04. 108.** Lege antiterroristek ukitutako presoan baldintzak gogortzea presio eta mendeku tresna bihurtu da. Ohiko bilakatu da giltzapean aldi luzeak egin beharra, nahiz eta ez eduki gainean inongo sententziarik. Ohiko gauza dira, halaber, lehen espetxe-gradua (erregimenik gogorrena) ezartzea, sakabanatzeak bere horretan irautea, zigorraren hiru laurdenak betetzean ez askatzea, osasun alorreko oinarrizko eskubideak ukatzea edo presoan senideei ematen zaien tratu iraingarria.

**04. 109.** Euskal politikagintza, erakunde eta gizartearen judizializazioa ere oso aintzat hartzeko datua da. Txiklearen moduko sumarioak (18/98, esaterako), Eusko Legebiltzarreko mahaiko kideak auzipetzea... ezinezkoa da aldi horretan judizializatu den oro gogoratzea. Herritarren, elkartearen eta erakundearen eskubideen zaintzaile zorrotz izan ordez, auzitegiak Espainiako Gobernuaren erabaki politikoaren betearazle zintzo bihurtu dira.

**04. 110.** Aipagarria da komunikabideen zati handi batek aldi horretan izan duen jokabidea ere. PPK euskal politikarako ezarritako gidoia jarraitu dute ia zeharo: kontsignak eta bertsio ofizialak hedatu dituzte, unean uneko interesen arabera polemikak puztu dituzte, itsu egon dira diskurtso ofizialari laguntzen ez zion orentzat, eta, euskal gatazka-aren nondik-norakoak ezagutzen eta ulertzen lagundu beharrean, alderdietako baten propagandista gisa aritu dira bete-betean.

**04. 111.** Ezin ditugu ahaztu, azkenik, itun antiterroristak beste erakunde eta gizarte gune batzuetan izan dituen babesak eta laguntzak. Kultur eta unibertsitate munduko pertsonak, Espainiako sindikatu nagusiak (zeinek antzeko adierazpen bat sinatu baitzuten Frantziakoekin), Europako Parlamentua, enpresari elkarteak, Espainiako Arartekoa... guztiak etorri dira bat estrategia horrekin. Ezbairik gabe, Alderdi Popularrak ederki erabili ditu bere strategiaren alde, bai ETaren indarkeriak pizten duen gaitzespen zilegia, bai egungo esparru juridiko-politikoak auzitan jartzen ez dituzten sektore ugariaren interesak.

**04. 112.** Nafarroa da antiterrorismoaren mozorro horren atzean dagoen estrategia eta benetako helburu politikoaren adibiderik onena. Union del Pueblo Navarro alderdiak (PPren eskualde-adarrak) du gehien goa horko erakundeetan, eta horregatik zaie errazagoa beren programa gauzatzea. Ez da gehiegi esatea Nafarroaren euskal izatea ezabatu nahi duela programa horrek. Alderdi Popularraren eskualde besoak apaldu

[ Era berean, sistema demokratikoaren muineko osagaiak (botereen banaketa, berme juridikoak...) hautsi egin dira, eta, orain, botere bakarra eta eginkizunen banaketa baizik ez dakusagu. ]

[ Ezin ditugu ahaztu, azkenik, itun antiterroristak beste erakunde eta gizarte gune batzuetan izan dituen babesak eta laguntzak. Kultur eta unibertsitate munduko pertsonak, Espainiako sindikatu nagusiak (zeinek antzeko adierazpen bat sinatu baitzuten Frantziakoekin), Europako Parlamentua, enpresari elkarteak, Espainiako Arartekoa... guztiak etorri dira bat estrategia horrekin. ]

[ Alderdi Popularraren eskualde besoak apaldu eta zapaldu egiten ditu Nafarroako euskaldunak, ezin du jasan horien hizkuntza eta kultur nortasun berezia. ]



[ Nafar agintarien jarrera horrek konplexu edo bere buruaren gutxiespen ugari uzten ditu agerian, zeren, beren eguneroko jokabidean, kanpoko, urrutikoa jotzen baitute beti on, eta etxekoa (euskalduntasuna), lotsagarri. ]

[ Ez da ahaztu behar PSOEk ere hartu zuela parte Hego Euskal Herriaren zatiketaren tratuan, trantsizio politikoaren hasieran; oso zeken jokatu zuen autonomia estatutuen kudeaketan, unean uneko gobernagarritasun interesei loturik beti; Loapa ezarri zuen, autogobernua mutilatu oinarri legeen bidez, eta bere neurriko Auzitegi Konstituzional bat eratu, sortu ziren trasferentzia gatazka ia guztietan Estatuaren alde agertu zena. ]

eta zapaldu egiten ditu Nafarroako euskaldunak, ezin du jasan horien hizkuntz eta kultur nortasun berezia. Euskararen legea, bata bestearen ondoko dekretuak, Unibertsitatetik eta erakundeetatik euskara poliki-poliki erauztea, ikastolak boikotatzea... Nafarroatik euskal nortasuna erauzteko urratsak dira, horrela osatu nahi baitute mendetan aurrera eraman den ukatze eta asimilatze prozesua. Kultur genozidio iritzi dio horri Europako Hizkuntzen Bulegoak. PSOE laguntzaile izan da araudi bidegabe horien onarpenean, eta auzitegiek berek ere legez kanpoko jo dituzte horietako batzuk.

**04. 113.** Halere, nafar agintarien jarrera horrek konplexu edo bere buruaren gutxiespen ugari uzten ditu agerian, zeren, beren eguneroko jokabidean, kanpoko, urrutikoa jotzen baitute beti on, eta etxekoa (euskalduntasuna), lotsagarri.

**04. 114.** Mesprezu hori ez da kulturaren mundura mugatzen; UPNk gobernaturako erakundeek, espainiar sindikatuek eta enpresarien erakundeek egin duten itun antisozial eta antieuskaldunetik kanpoko edozein erakundetara edo ekimenetara ere hedatzen baita. Horregatik, ez da harrigarria gizarteko sektore herrikoenak, aktiboenak eta militantenak (antimilitarismoa, ekologia, sindikalismo alternatiboa...) izatea euskal kulturaren eta hizkuntzaren aldekoenak eta bultzatzaileenak.

**04. 115.** Garbi dago itun antiterrorista inposizio bat dela berez, bortxatze modu bat. Itun horrek aitortu gabeko helburu batzuk izan ditu haste-hastetik: ETAren jardura bortitza kapitalizatu, independentismoa zapaldu eta ahalik eta gehien estutu subiranismoaren espazioa; alderdi biko eredia sendotu Estatuan, adorerik eza egotzirik boterearekin ongi ez datozen alderdi nazionalistei, erregionalistei eta ezkerrekoiei, eta nazio-desintegraziotzat jotako 25 urteko autonomia estatutuen gehiegikeriak murriztu, konstituzioa-estatutua-hobekuntza blokea blindatzen dela.

## B) ESPAINIAN GOBERNUA ALDATU ONDOKO INKOGNITAK

**04. 116.** Alderdi Popularra (gobernuan egon den aldian gero eta eskuin muturrekoago agertu den hori) hauteskunde orokorretan galtzaile gertatu izana albiste ona da zalantzarik gabe, baina ikusteke dago nola helduko dion euskal auziari Gobernu berriak. Ez da ahaztu behar PSOEk ere hartu zuela parte Hego Euskal Herriaren zatiketaren tratuan, trantsizio politikoaren hasieran; oso zeken jokatu zuen autonomia estatutuen kudeaketan, unean uneko gobernagarritasun interesei loturik beti; Loapa ezarri zuen, autogobernua mutilatu oinarri legeen bidez, eta bere neurriko Auzitegi Konstituzional bat eratu, sortu ziren trasferentzia gatazka ia guztietan Estatuaren alde agertu zena.

**04. 117.** PSOEren gobernuaren garaian, GAL izenekoak sortu ziren segurtasun indarren barnean, eta oraindik ere gertakari ugari daude argitzeke gerra zikinaz eta Euskal Herrian zeuden espainiar indarren ekin-tzez... Gobernutik kanpo ere, azken zortzi urte honetan, PSOEk ia eragozpenik gabe lagundu ditu Aznarren gobernuaren politika antiterrorista eta "ingurunearen tesian" oinarritutako jarduerak, eta gero eta pertsona eta jarduera gehiago kriminalizatu ahal izan dute horrela.

**04. 118.** Maila ideologiko-sinbolikoan, PSOE erabat makurtu da frankistek trantsizioan ezarritako eredura: uko egin dio bere ideal errepublikazaleari, beso zabalik onartu du diktadoreak ezarritako monarkia, bere



egin du “Espainiar nazioa, espainiar guztien aberri komun eta zatiezina” dogma zaharra (1978ko Espainiar Konstituzioaren 2. artikulua). Ezin gartsuago ekin dio PSOEek 1978ko Konstituzioa espainiar nazioaren sorrera mito berri bihurtzeko lanari. Mito berri horren azpian, ordea, aise igartzen da betiko Espainia zaharra, bera handitzeko beste nazio nortasunak zapaltzen dituen.

**04. 119.** Sozialistentzat, Konstituzioak berri-berritik sortzen du nazioa eta estatua (herritarren eskubideen bermatzaile bakarra), eta ezin da izan lehenagoko naziorik, eskubiderik, nortasunik edo herririk, Konstituzioan onartu den neurrian edo eran, eta haren interpreteek ulertzen duten eran baizik. Konstituzioa unibertsalaren neurri bilakatzen da, eta soilik haren babespean eta barnean gauza ei daitezke balio eta ideia gorrenak: elkartasuna, demokrazia, modernitatea...

**04. 120.** Aldaketa zantzuak nabari dira Espainiako Gobernu berrian, itxuran eta gai garrantzitsu batzuetan: Iraketik tropak erretiratzea, etendako erakunde arteko harremanak berrabiatzea, Estatuoko beste hizkuntzei senatuan eta Europako Batasunean beste tratamendu bat emateko proposamena... Baina egia da, halaber, aurreko gobernuaren politikaren alderdirik zakarren eta atzerakoiak hobetzea (oso erraza, bestalde) ez dela ikaragarritzko urratsa.

**04. 121.** Bere horretan dirau subiranotasuna Espainiako Parlamentuan datzala dioen akordioak. Euskal auziari dagokionez, honela formulatuko litzateke akordio hori: sekula ez zaie galdetuko euskal herritarrei... edo, bederen, ez zaie galdetuko alde aurretik Estatuoko eta Euskal Herriko eliteek itundu ez duten ezer. Horiek dira jokoaren arauak. Horretan, orain gobernatzen ari den PSOEek ez du agertzen inongo berritasunik, Espainiako eskuinaren aldean.

### C) INDARKERIA ZIKLOAK AMAITU EGIN BEHAR DU

**04. 122.** Ia hogeita hamar lagun hil ditu ETAk kongresu arteko aldian. Beste asko, mehatxaturik daude eta ezin onartuzko eran bizitzera beharturik. Indarkeria ziklo baten biktima dira, eta amaitu egin behar du ziklo horrek behin betiko.

**04. 123.** Aurreko kongresu konfederalean esan genuenez, su-etena etetea huts galanta izan zen ikuspegi guztietatik. ETAk gehiago begiratu zien Estatuak zeraman zapalketa eskemari eta haren erasoei, burujabetzaren aldeko indarrek behar zituzten hipotesiei eta jokalekuei baino. Egin daitezkeen beste kritika ideologiko eta humanitarioez aparte, su-etena amaitzeak ondorio politiko aipagarriak izan zituen: indar politiko eta sozial funtsean abertzaleen arteko halako lankidetzaren maila bat eten zuen; Lizarrako adierazpeneko indarrak komunikabideen ofentsiba politiko-ideologikoaren helburu bilakatu ziren; Estatuak, ingurunearen tesiaren babesean eta PSOEren laguntzaz, demokraziaren eta giza eskubideen aurkako urrats berriak hasi zituen; estatutuaren aldeko indarrak sendotu zituen, eta ilundura eta etsipena sortu zituen euskal gizartearen.

**04. 124.** Hainbeste urtean indarkeria erabili izanak ondoren latza utzi du (eta utziko du) bizikidetzaren alor ugaritan, era guztietako indarke-riek astindu baitute bizikidetzaren hori. Politikaz kanpoko faktoreak izan dira nagusi politikan, errepresioaren premiak hartu du gaina askotan, maniobra birtual eta taktika hutsezkoak ugaritu dira... Duela lau urte

[ Ezin gartsuago ekin dio PSOEek 1978ko Konstituzioa espainiar nazioaren sorrera mito berri bihurtzeko lanari. Mito berri horren azpian, ordea, aise igartzen da betiko Espainia zaharra, bera handitzeko beste nazio nortasunak zapaltzen dituen. ]

[ Su-etena etetea huts galanta izan zen ikuspegi guztietatik. ETAk gehiago begiratu zien Estatuak zeraman zapalketa eskemari eta haren erasoei, burujabetzaren aldeko indarrek behar zituzten hipotesiei eta jokalekuei baino. ]

[ la indar politiko guztiek, eta bereziki Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea defendatzen duten guztiek, ideia berriak eta proposamenak ipini dituzte mahai gainean. Izaera, sakontasun eta ñabardura desberdinetako proposamenak dira. ]

[ Ibarretxeren proposamenari buruz ELAk agertu du bere iritzia. Badu alderdi positibo bat: esparru juridiko berri bat eskatzen da, eta euskal herritarrei omen dagokie hori erabakitzea, haiei galdetu behar omen zaie. ]

esan genuen bezala, ez dagokio ETArri prozesu politikoak gidatzea edo haietan eragitea.

#### D) PROPOSAMEN UGARIKO GARAIA

**04. 125.** Aldi horretan izan diren zailtasun objektiboak gorabehera, eta burujabetzaren aldeko indarrek jokalekurik onena eduki ez duten arren, iruditzen zaigu Lizarra-Garaziren kapitala ez dela erabat alferrik galdu. Jakina, alde guztien distentsio aldi batean burujabetzaren aldeko prozesu politikoak aurrerakada handiagoa egin zukeen ezbairik gabe, baina egin da gauza interesgarririk, halere.

**04. 126.** Eta horren agergarria, hauxe: ia indar politiko guztiek, eta bereziki Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea defendatzen duten guztiek, ideia berriak eta proposamenak ipini dituzte mahai gainean. Izaera, sakontasun eta ñabardura desberdinetako proposamenak dira. Eta egia da nork bere espazio politikoa markatzeko eta handitzeko egin dela hori askotan, ez eztabaida pizteko. Hala ere, proposamenek eragin onuragarriak dituzte, zeren egiten dituztenek hausnartu, argitu eta laburtu egin baitituzte proposamen horiek, eta horiek toki zehatzagoan ezartzen dute eztabaida politiko eta soziala.

**04. 127.** Egia da eraginkortasuna eta zehaztasuna falta direla... Ez gara sartu konponbide fasean oraindik. Baliteke, halaber, subiranotasunaren aldeko indarren multzoak ez jakitea oso garbi oraindik zein auziri heldu, noiz eta zein erritmotan... zer adostu behar den, zer gai utzi behar den dialektika politikoaren baitan... Baina pentsatu behar dugu, etsipenean erori gabe, horiek zalantza normalak direla izaera honetako prozesu batean.

**04. 128.** Nabarmentzekoa da Euskadirentzako Estatutu Politiko Berriaren Proposamena, ekimenaren erakunde mailagatik, aldarrikapena eta eztabaida kokatu den Parlamentu egoitzagatik, eta piztu duen eztabaida publikoaren oihartzunagatik. Eusko Jaurlaritzak berak aurkeztu du, ongi biribildurik, proposamen hori, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren ekimenez.

**04. 129.** ELAk fase guztietan agertu du bere iritzia Lehendakariaren ekimenaz, haren ardatz nagusiak iragarri zirenetik Legebiltzarrean bideratu eta aurkeztu zen arte. Badu alderdi positibo bat proposamenak: gure erakundeek aitortzen dute Konstituzioak, Estatutuak eta Hobekuntzak mugatutako zikloa agortuta dagoela. Beste alderdi on bat: esparru juridiko berri bat eskatzen da, eta euskal herritarrei omen dagokie hori erabakitzea, haiei galdetu behar omen zaie.

**04. 130.** Aldi berean, ELAk kritika egin dio. Lehenengo, aldebakarreko ekimena delako: lehenbailehen konpondu beharreko gauza, hori. Bigarrenik, autogobernu esparru jakin baten definizioa eta autodeterminazio eskubidea nahasten duelako. Hirugarrenik, proposamenari planteamendu politiko osagarri bat gehitzen ez diolako lurraldetasunaren gaiaz. Laugarrenik, helburu omen duena arrakastaz iristeko behar dituen aliantza politikoak eta sozialak falta zaizkiolako; badirudi ez dela bilatzen behar den babes soziala, ohiko hauteskunde babes baina harago (eta berrespen balioa emango litzaioke horri).

**04. 131.** Eusko Jaurlaritzaren proiektua eduki soziolaboraletatik aztertzen badugu, haren moztasuna bistakoa da; zeren, jadanik abiapuntutzat, Estatuan onartzen diren legeen pean ezartzen baitira eskumen



soziolaboralak. Eta hemen, zuzenketekin gertatua aipatu behar dugu: ELAk proposamenak helarazi zizkien alderdi politiko abertzaleei, zuzenketen bidez maila berean ipin zitzaten politika soziolaboralak, enpleguarenak eta babes sozialekoak, gainerako eskumenekin, horien lege-gintza eta gauzatze eskumenak ere eskusibotzat joz. Bada, alderdi horien erantzuna negargarria gertatu zaigu, formetan, prozeduran eta edukian. Testu garrantzitsu hori sustatzen dutenek dioskute estatutu berriaren proposamena proposamen irekia dela, baina, egiaz, ez da izan hain irekia, ELArentzat.

## E) ERAKUNDE ERREALITATE NEGARGARRIA

**04. 132.** Esan dugu, arestian, egungo estatutuaren zikloa agortutzat jo dela nahiko garbi, eta horren ondorio izan dela, nolabait, Eusko Jaur-laritzak aurkeztu duen estatutu politiko berriaren proposamena. Baina ez da ahaztu behar oraindik indarrean daudela Estatutua eta Hobekuntza. Eta, lau urte honetan, eraso gogorak egin zaizkie euskal erakunde-eei (EAEkoei, eta abertzaleak omen direnek gobernatzeko dute hor), baita gure autogobernuari ere.

**04. 133.** Nafarroaren kasuan, agintariak UPNren betiko eskaria berretsi dute: alda dadila Konstituzioa, eta ken dadila Nafarroak EA Erekin (edo Euskal Herriko beste lurraldeekin) harremanik izatea erabakitzeak aukera. Kaltegarritzat daukate nafarrentzat, nafarrek, kontsulta bidez, beren geroa eta beste erkidego batzuekiko harremanak aukeratu ahal izatea. Euskal Herriko beste lurraldeekiko etsaitasuna eta Madrilekiko mendekotasuna da UPNren programa guztia.

**04. 134.** EA Eren esparruari doakionez, agintariak Autonomia Estatu-tuaren kudeaketan zer irmotasun politiko eskasa darabilten ikusirik, herriarrak sinesgogor bihurtzen dira haiengandik datozen iritzi eta proposamen politikoaren aurrean. Esate baterako, Kontzertu Ekonomikoaren negoziatioaren ostean, epe bat ezarri zen: halako egunetik aurrera, euskaldunak ordezkaturik egongo ziren Europako erakundeetan, han guk eskumen beteak ditugun gaiak erabakitzen zirenean. Bestetik, hitzartu zen, Gasteizko Legebiltzarrean, Estatutuan aurreikusitako zenbait eskumen hartuko zirela alde bakarrez, baldin eta Estatuak ez bazituen horiek euskaldunen esku uzten, eta horien kostua Estatuarekin likidatu beharreko kupotik kenduko zela. Bada, ez da bete horietatik deus, agindu zirenetik.

**04. 135.** Hala eta guztiz ere, larriena ez da Estatuari politikoki aurre egiteko urratsik ez egitea, horretarako gaitasunik ez izatea, baizik eta gure erakundearen aitzindariak herriari ez azaltzea zer ari den gertatzen, ez azaltzea bidean zer arazo eta oztopo dauden, herritarrei ez eskatzea Estatuaren erasoei erantzuteko eta autogobernua defendatzeko... Aurreko estatutu faseko jokaera ustela dugu orain ere: EAE gobernatzeko zuten indar abertzaleek inork baino hobeto zekiten nolako krisi hondagarrian zegoen Estatutua, baina ez zuten aitortu nahi izan, harik eta gehiengo sozialaren salaketak (haren barnean, gure sindikatuak, Gernikan) fikzioari eustea ezinezko bihurtu zuen arte.

**04. 136.** Estatuaren aurrean agertutako irmotasun eskasak ez du deus onik iragartzen. Gogoan izan behar dugu autodeterminazio eskubidean oinarritutako estatus politiko berri baten defentsak aurre-aurrean izango duela azkenik bloke konstituzionalaren legeria. Euskal erakundeek

[ Eusko Jaur-laritzaren proiektua eduki soziolaboraletatik aztertzen badugu, haren moztasuna bistakoa da; zeren, jadanik abiapuntutzat, Estatuan onartzen diren legeen pean ezartzen baitira eskumen soziolaboralak. ]

[ Bistakoa da zerbitzu publikoak pribatizatu, azpikontratatu eta lagun eta bezero sareen esku uzten dituztenek ez dutela behar, ez arlo sozialean eskumen asko duen autogobernurik, ez burujabetzaren aldeko jarrera politikorik. ]

[ Askotan kargu hartu izan diete aitzindari politiko batzuk, Lehendakaria bera buru dela, sindikatu abertzaleei, ez omen dutelako elkarrizketa soziala onartzen, edo jarrera gogorregia agertzen omen dutelako. Lehendakariak enpresarien egoitzan errepikatu ditu horrelakoak, eta begiak itxi ditu milaka euskal langile jasaten ari diren egoera negargarriaren aurrean. Hori ikusirik, ez dugu dudarik haren posizio politikoaz. ]

aurkeztutako Planak bide motza du, jarrera politiko gogorragorik hartzen ez baldin bada.

## F) KEZKA SOZIALIK GABEKO GOBERNARIAK ETA ADMINISTRAZIOAK

**04. 137.** EAeko gobernuari gagozkiola, haren politika sozialaren gorespena egin duen programak ezin du ezkutatu Gobernu horrek egiten duen kudeaketa neoliberalak: Espainiako Gobernuaren kudeaketa neoliberalaren oso antzekoa, egia esan. Ikusten dugu, gainera, Gobernuan diren abertzaleek ez dutela batere interesik euskal autogobernuak arlo soziolaboralean eskumenak izan ditzan.

**04. 138.** Ikusten da, baita ere, erakunde ardurak dituzten alderdi gehienek adostasun zabala dutela gai soziolaboralean, lan baldintzen gaian eta gizarte ereduaren gaian. Ezkutuko adostasun hori agerian gelditzen da batzuetan, eta halaxe gelditu zen, esate baterako, EAJK, PPK, PSOEk eta EAk Eudelen baitan akordio hura iritxi zutenean. Akordioan bi gauza defenditu zituzten: batetik, zerbitzu publikoak pribatizatzea, eta, bestetik, azpikontratutako langileak (nahiz eta lan bera egin) erakunde publikoek zuzenean kontratatutako langileak baino lan baldintza kaskarragotan edukitzea. Antzeko eran ari dira erabiltzen, halaber: Gobernuak laneko auziengatik enpresak zigortzeko daukan gaitasuna, nahitaez bete beharreko laudoak, langileen eskariak neutralizatzeko gutxieneko zerbitzuak erabiltzea, langileen piketeak segurtasun publiko gaitzat jotzea, azpikontratazio eta pribatizazio politikak... Bistakoa da zerbitzu publikoak pribatizatu, azpikontratatu eta lagun eta bezero sareen esku uzten dituztenek ez dutela behar, ez arlo sozialean eskumen asko duen autogobernurik, ez burujabetzaren aldeko jarrera politikorik.

**04. 139.** Askotan kargu hartu izan diete aitzindari politiko batzuk, Lehendakaria bera buru dela, sindikatu abertzaleei, ez omen dutelako elkarrizketa soziala onartzen, edo jarrera gogorregia agertzen omen dutelako. Lehendakariak enpresarien egoitzan errepikatu ditu horrelakoak, eta begiak itxi ditu milaka euskal langile jasaten ari diren egoera negargarriaren aurrean. Hori ikusirik, ez dugu dudarik haren posizio politikoaz. Lehendakariak enpresarien ikuspegitik aztertzen eta azaltzen du errealitatea, haien irizpide berak dauzka, haien interesak kudeatzen ditu.

**04. 140.** Nafarroan, eskuin muturreko Gobernuak, enpresari klase atzerakoia eta burokrata huts bihurtu diren sindikatuak ditugu. Horiei esker, ikaragarri hazi da han diharduten multinazionalen boterea. Gobernuak erraztu egiten du enpresa horiek lurraldean kokatzea, negozioa egitea, langileak zapaltzea; enpresa multinazionalak, berriz, beste toki batera joateko edo erregulazio espedienteak irekitzeko mehatxuak erabiltzen dituzte agudo, eskakizun sozialik txikienaren aurrean.

**04. 141.** Salatu egin behar da nola kudeatzen dituzten enpresari elkarteek, CCOO eta UGTk zenbait eskumen publiko (enplegua, etengabeko prestakuntza, lan osasuna...), eta nolako funts publiko oparoak jasotzen dituzten horretarako. Horren ordainetan, bata bestearen ondotik sinatzen dituzten itunak, eta Nafarroako Gobernuak bake sozialaren txapeladun gisa agertzen du bere burua. Itun horren ifrentzu edo beste aldea: sindikatu abertzaleak erakundeetatik botatzea eta haiek politikoki jazartzea.

## G) IPARRALDEARI DAGOKIONEZ

**04. 142.** Frantziako eta Espainiako bi estatuak ezarritako banaketa politikoaren pean egotea Pirinioen bi aldeetako euskal lurraldeen arteko harremanen kalterako izan da. Ondorioz, Ipar eta Hego Euskal Herriko lurraldeak erregimen politiko eta juridiko desberdinen menpe egon dira, eta erreferentzia askotan diferenteak bereganatu dituzte, nahiz eta sekula ez duten galdu herri bakar bat izatearen kontzientzia, Euskal Herria diren kontzientzia.

**04. 143.** Azken hamarkadetan, hainbat ekimen eta mugimendu izan da Ipar Euskal Herrian. Horien xedea: herri kontzientzia piztea, bertako kultur nortasuna bultzatzea (bereziki euskara), eta beren erakundeak eraikitzea edo erdiestea, bai arlo politikoan, bai hezkuntzan, bai ekonomian, bai kulturaren.

**04. 144.** Gaineratu behar da, bestalde, mugaren bi aldean arteko harremana gero eta biziagoa eta errazagoa dela: muga hori ez da jadanik oztopo zirkulazio aserako; gero eta jende gehiago bizi da alde batean, nahiz eta bestean lan egin; ikus-entzunezko medioak bi aldeetan jasotzen dira; badira zenbait hedabide, idatzizkoak bereziki, zazpi lurraldeetako errealitatea agertzen dutenak, eta Euskal Herri osoaren erreferentzia gero eta hedatuago dago agente politikoan, sozialen eta herritarren artean.

**04. 145.** ELAk:

**04. 146.** – gero eta harreman handiagoa du Ipar Euskal Herriko errealitatearekin, hango erakundeekin eta agenteekin.

**04. 147.** – Ipar eta Hego Euskal Herriko agenteak batera arituko diren lan esparruak garatzeko premia defendatzen du.

**04. 148.** – ahalegina egingo du, sindikalismoaren esparruan ere mugaren bi aldeetako mugimendu sindikalak batera ari daitezen gero eta gehiago, nahiz eta errealitate desberdinetatik abiatu.

## H) ONDORIOAK

**04. 149.** Kongresu arteko aldiaren azterketa hau amaitzeko, esango dugu, alde batetik, Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko bereko egoera politikoak sekulako akatsak dituela giza eskubideen eta demokraziaren alorrean. Oso zaila ikusten dugu hori epe laburrean konpontzea.

**04. 150.** Burujabetzaren aldeko prozesuari dagokionez, ohartarazi behar dugu arlo soziala ez dela funtsezkoa, oraindik, herritarren gogoan, horretarako bidean. Era berean, lan asko dugu egiteke, oraindik, lan harremanetako eta babes sozialeko euskal esparrua eraikitzeko proposamen zehatzen mailan.

**04. 151.** Kongresu arteko aldiaren alde positibotzat nabarmendu behar dugu gero eta proposamen gehiago egin direla gatazka politikoa konpontzeko eta esparru juridiko-politiko berri bat eratzeko. Gero eta kontzientzia handiagoa dago, gainera, gure egungo esparru politikoa zein hauskor eta manipulagarria den, eta, aldi berean, autodeterminazio eskubidea behar dela. Nazio garen kontzientzia, beraz eskubide batzuen jabe garen kontzientzia, nortasun bat izatearen kontzientzia handitu egin da, ez bairik gabe, urte hauetan.

[ ELAk: ahalegina egingo du, sindikalismoaren esparruan ere mugaren bi aldeetako mugimendu sindikalak batera ari daitezen gero eta gehiago, nahiz eta errealitate desberdinetatik abiatu. ]

**[ Gero eta ageriago dago abertzaleek defendatzen dutela Nafarroak eta nafarrek ahotsa eta erabakia izan ditzaten, eta ez UPN buru duen erregionalismoak. ]**

**04. 152.** Nafarroan, beste autogobernu egoera batek, indar-harreman okerrago batek, euskaltasunaren eta abertzaletasunaren aurkako jazarpenak... batura sozial, sindikal eta are politiko interesgarriak ekarri ditzute. Badugu esperantza izateko arrazoirik lurralde horretan ere. Gure proiektuaren beraren aurrerakadak elikatzen du esperantza hori. Pentsatzen dugu inoiz baino biziagorik dagoela Nafarroan aldaketa sakona nahi duen indar politikoen, sindikalen, sozialen eta herritarren blokea. Bloke horrek aldaketa politikoa nahi du Nafarroan, harreman normalizatu izatea gainerako euskal lurraldeekin, gure hizkuntza eta kultura defenditzea, etorkizuna erabakitzeko eskubidea izatea, demokrazia, justizia... Gero eta ageriago dago abertzaleek defendatzen dutela Nafarroak eta nafarrek ahotsa eta erabakia izan ditzaten, eta ez UPN buru duen erregionalismoak.



# 2. ATALA

LAU URTE BORROKAN,  
SENDOTZEN ETA  
KONPROMISOAK  
HARTZEN



**KONGRESUA**

2004. azaroak 26-27 noviembre  
BILBO

**ELA**

EUSKAL SINDIKATUA

XI. KONGRESU KONFEDERALA



# 5.

## GLOBALIZAZIO NEOLIBERALAREN AURKA BORROKATZEKO KONPROMISOA

### A) GLOBALIZAZIO NEOLIBERALAREN AURKAKO MUGIMENDUAREN SORRERA ETA SENDOTZEA

**05. 101.** Aldaketa esanguratsu bat izan da 2000ko abenduan egindako azken Kongresu Konfederal hartatik hona, nazioartean (Europako Batasunean nahiz mundu mailan): mugimendu askotariko eta aktibo bat sortu da globalizazio neoliberalari aurre eta gogor egiteko. Cancuneko gailurraren porrota, Irakeko gerrari emandako erantzuna edo Europako Batasuneko politika neoliberalen aurka Bartzelonan izan ziren agerraldi handiak dira horren lekuko.

**05. 102.** Planeta eta bertako biztanleak salgai huts bihurtu nahi zituztenen aurka altxatu dira mugimendu eta erakunde oso desberdinak, baina globalizazio neoliberalaren aurka daudenak, honelakoak aldarrikatuz: "Mundua ez da salgai bat", "Bestelako mundu bat posible da"... Eta gauza asko ikusi ditugu: Inbertsioen Aldeanitzeko Akordioaren (IAA) aurkako mobilizazioak, Merkataritzaren Mundu Erakundeak (MME) Seattlen egindako milurteko gailurraren porrota, Davoseko nahiz Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) Washingtonen egindako gailurren aurkako protestak, 2000n egindako Emakumeen Mundu Martxa...

**05. 103.** Hasierako agerraldi eta protesta handien fase batetik proposamenak ere egiten diren fase batera igaro da. "Bestelako mundu bat" eraikitzeke erantzun zehatzagoak bilatzen dira orain, eta nahi da mundu berri horretan gerrarik ez izatea, eta ekonomia pertsonen zerbitzura egotea, ez alderantziz.

**05. 104.** Horrela sortu zen Munduko Gizarte Foroa (MGF) egiteko asmoa. Mundu mailakoa izan zen foro hura, eta agerraldietan eta protestetan aritzen ziren erakunde guztiak bildu ziren bertara. MGFk joera soziala zuen, Davoseko Munduko Ekonomia Foroak ez bezala. Orain diren Foro Sozialak (mundukoa, kontinentekoa, tokikoa...) elkarrizketa eta eztabaida gune irekiak dira. Geroago etorri ziren: MGF Porto Alegre 2001, 2002 eta 2003; MGF Mumbay 2004; Europako Gizarte Foroak (EGF) Florentzian (2002) eta Parisen (2003), eta Euskal Herriko Gizarte Foroa.

**05. 105.** Mugimendu sindikalak globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduan daukan parte-hartzea eta presentzia ere aldatu egin dira urte gutxi hauetan. Parte-hartze hori, gainera, dezente aldatzen da erakunde batetik bestera, herri batetik bestera, kontinente batetik bestera.

**05. 106.** Ezin esan bada ere sindikatu guztiak daudela foro horietan, aitortu behar da presentzia hori hasieran baino handiagoa dela. Sindikatuen nazioarteko erakundeek bultzatzen dute gainera presentzia hori, berak ere egoten baitira MGFren eta foro kontinentalen urteroko batzarretan. Sindikatu Librean Nazioarteko Konfederazioak (SLNK), Lanaren Mundu Konfederazioak (LMK) eta Europako Sindikatuen Konfederazioak (ESK), hirurek hartzen dute parte eta bultzatzen dute beren sindi-



katuen parte-hartzea Munduko Gizarte Foroan eta Europako Gizarte Foroan.

**05. 107.** Dinamika berri hori ez da mugatzen Foro desberdinetan parte hartzera, baizik eta hedapen logiko bat du foro horietako borondate-tik sortutako mobilizazioetan aritzera. Hain zuzen, esparru horretantxe da desberdinen presentzia sindikala. 2003ko otsailaren 15ean gerraren aurka mundu osoan izan ziren mobilizazioak dira mobilizazio horien adibide. Haietan, milioika lagun irten ziren kalera mundu osoan, eta Euskal Herrian ere izan zuen islarik mobilizazio handi hark. Historiako handiena izan da gerraren aurkako mugimendua, eta, lehen aldiz, dimentsio globala izan du.

**05. 108.** Egia da ez garela Iraken inbasioa galarazteko gauza izan. Baina adierazi den gaitzespen zabalak nekezago bihurtu du gerrazaleen lana, eta sekulako kostu politikoa ekarri die, gainera (ikus besterik ez dago zer gertatu zen Espainiar Estatuko aurreko hauteskunde orokorretan). Ezbairik gabe, hurrengoan hobeto pentsatu beharko dute, era horretan jokatu aurretik.

**05. 109.** Erakunde sozial desberdin ugari ados jarri ginelako eta lanari lotu ginelako lortu ahal izan ditugu garaipen eta mobilizazio horiek. Adibide praktiko horien bidez, erakutsi dugu ez gaudela globalizazioaren aurka (propaganda ofizialak dioen bezala), baizik eta giza eskubideen, eskubide sozialen eta eskubide kulturalen globalizazioaren alde gaudela, horixe adierazi nahi baita "Bestelako Mundu bat posible da" esaldiaz.

## **B) ELAREN PARTE-HARTZEA NAZIOARTE MAILAN**

**05. 110.** Argi esan genuen, aurreko Kongresuan, ELAk ezin zuela espero edukitzerik bere errealitateaz gaineko protagonismorik nazioartean, baina iruditzen zaigu badugula zer emanik eta, batez ere, zer jasorik, nazioarte mailan ere.

**05. 111.** Kongresu arteko aldian, ELA globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduan sartu da, eta presente egon da, halaber, bere nazioarteko afiliazioek ekarri dizkioten hitzordu garrantzitsuetan: Sindikatu Libreen Nazioarteko Konfederazioaren (SLNK) Biltzarrean, 2000n, Durbanen; Lanaren Mundu Konfederazioaren (LMK) Biltzarrean, 2001ean, Bukaresten, eta Europako Sindikatuen Konfederazioaren (ESK) Kongresuan, 2003an, Pragan. Gainera, bere afiliazioek behartzen duten urteroko bileretan izan eta aritu da: SLNKko Batzorde Eragilean; LMKko Batzorde Konfederalean; ESKko Batzorde Eragilearen hiru-hileroko bileretan; TUACen bileretan; Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) urteroko Batzarrean, Genevan, eta Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialaren bileretan.

**05. 112.** Era berean, ELAk handitu egin du bere parte-hartzea ESKn, bere Batzorde Eragilearen bitartez, eta bere Batzorde Iraunkor desberdinen (negoiazio kolektiboa, garapen jasangarria etab.) bitartez. Horrela bete da aurreko kongresuan adierazitakoa: parte-hartze aktiboagoa izan behar genuela barruan gauden erakundeetan eta gehien kezkatzen gaituzten gaitetan; negoziazio kolektiboan, esaterako. Geure esperientziatik abiatuta, geure ondorioak ekar ditzakegu eztabaida kolektibora, ados gaudenean eta kritika agertzea dagokionean. Topaketa horiek plataforma onak dira behaketarako eta eztabaidarako, eta bide onak, hala-

[ Erakunde sozial desberdin ugari ados jarri ginelako eta lanari lotu ginelako lortu ahal izan ditugu garaipen eta mobilizazio horiek. Adibide praktiko horien bidez, erakutsi dugu ez gaudela globalizazioaren aurka baizik eta giza eskubideen, eskubide sozialen eta eskubide kulturalen globalizazioaren alde gaudela, horixe adierazi nahi baita "Bestelako Mundu bat posible da" esaldiaz. ]

[ Kongresu arteko aldian, ELA globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduan sartu da, eta presente egon da, halaber, bere nazioarteko afiliazioek ekarri dizkioten hitzordu garrantzitsuetan. ]

[ Azken lau urte honetan, ELA oso era aktiboan aritu da Munduko Gizarte Foroaren eta Europako Gizarte Foroaren biltzarretan. ]

[ Estatu gabeko herri bateko sindikatu garen aldetik, lehentasuna eman diogu noski erakunde lagun batzuekiko harremanari. Erakunde lagun horietako bi: Quebeceko Sindikatu Nazionalen Konfederazioa (CSN) eta Eskoziar Sindikatuen Konfederazioa (STUC). ]

[ Globalizazio neoliberalaren prozesuari erantzun eraginkor eta gogorra ematea da nazioarteko sindikalismoaren zereginik premiazkoena. ]

ber, gureen antzeko azterketa, praktika eta eredu sindikalak dituzten erakundeak ezagutzeko.

**05. 113.** Azken lau urte honetan, ELA oso era aktiboan aritu da Munduko Gizarte Foroaren eta Europako Gizarte Foroaren biltzarretan. Hainbat hitzaldi eman dugu, gainera, horietan: gatazkak elkarrizketa bidez konpontzearen aldekoa (Porto Alegre, 2002); sindikalismoa eta genero berdintasuna lortzeko borroka (Florentzia, 2002); sindikalismoa Europan (Paris, 2003). Eta hainbat mintegi eta jardunaldi antolatu dugu, eta parte hartu dugu gainera haietan, gai ugari buruz, beste erakunde sindikal eta sozial batzuekin batera.

**05. 114.** Parisen 2003an egin zen Europako Gizarte Foroan, ELAko 25 arduradun politikoren ordezkari bat izan zen, eta hor ageri da nolako eginbeharraren pean jarri garen eta nolako ahalegina egin den alor horretan.

**05. 115.** Guk bezala sindikalismoa kontrabotere gisa ikusten duten beste erakunde sindikal batzuk ezagutzeko ere balio izan digute topaketek, eta alde biko harreman aberatsagoak izan ditugu beste sindikatu batzuekin.

**05. 116.** Estatu gabeko herri bateko sindikatu garen aldetik, lehentasuna eman diogu noski erakunde lagun batzuekiko harremanari. Erakunde lagun horietako bi: Quebeceko Sindikatu Nazionalen Konfederazioa (CSN) eta Eskoziar Sindikatuen Konfederazioa (STUC). Harreman horietatik sortu dira Quebecen eta Euskal Herrian izan diren bi nazioarteko topaketak, eta, azken horretan, Belgikako CSCren eta Galiziako CI-Gren ordezkariak ere izan dira.

**05. 117.** Aldi horretan, ELAk sindikatu lankidetzak jarduerak ere egin du nazioarte alorrean, Garapenaren bitartez. Alde batetik, aurreko periodoan hasitako lankidetzak proiektuak amaitu ditugu (Togon, Beninen, Dominikar Errepublikan); bestetik, beste proiektu batzuk hasi ditugu joera desberdin batekin (PGFTU eta PTUF, Palestinan; UGT-Sario, Saharan...). Fase berri horretan, ELAk ez du eskatu funts publikorik, baizik eta berak finantzatu ditu proiektuak, ELAk urtero egindako ekarpenetik (kuoten % 0,7) eta erakundeko afiliatuek egindako elkartzuneko beste ekarpen batzuetatik.

**05. 118.** Garapenak harremanak estutu nahi ditu nazio auzian, eredu sindikalean edo giza eskubideen errespetuan gurekin batera diren beste erakunde sindikal batzuekin. Fase berri horretako proiektuek kopuru txikiagoko finantzazioak jaso dituzte, lehenago baino, eta ondoko hauetarako izan dira zehazki proiektuak: erakundeak sendotzeko, prestakuntza sindikala emateko, genero berdintasun politikak sustatzeko etab.

### C) NAZIOARTEKO ERAKUNDE SINDIKALAK: SLNK-LMK ETA EGUNGO EGOERA

**05. 119.** Testuinguru honetan, nazioarteko sindikalismoa ere hausnarketa garaian dago. Testuinguru gaiztoa da, eta eskura diren tresnak eta baliabideak ahalik hobekien baliatzea bilatu behar da. Izan ere, globalizazio neoliberalaren prozesuari erantzun eraginkor eta gogorra ematea da nazioarteko sindikalismoaren zereginik premiazkoena.

**05. 120.** Nazioarte mailan, nazioarteko bi erakunde sindikal handiek (SLNK eta LMK) gero eta baterago jokatu dute azken urte hauetan, eta



esan daiteke horiek LANeren, NMF-MBren, MMEren, Davoseko Munduko Ekonomia Foroaren eta Munduko Gizarte Foroaren aurrean izan dituzten jarrerak eta ekintzak ez direla ia batere aldatu.

**05. 121.** Orain, beste etapa batean gaude, eta guztiok batera jokatzea baino handiagoa da helburua: beste formula batzuk bilatu behar dira, "egiazko batura" bat iristeko, nazioarte mailako indar-harremana geure alde hobetzeko.

**05. 122.** Nazioarteko bi erakunde sindikal handiak lanean ari dira, ea munduko erakunde sindikal berri bat sor ote daitekeen. Munduko erakunde sindikal berri horretan, egun SLNK eta LMK barruan dauden erakunde sindikalak ez ezik, munduan diren konfederazio sindikal demokratiko eta independente guztiak ere sar litezke. Helburu pozgarria iruditzen zaigu, baldin eta integrazio asmo zintzo eta mugarik gabeaz egiten bada. Hor, bi gauza lortu behar lirateke, besteak beste: mugimendu sindikal osoaren sinesgarritasuna, zilegitasuna eta ordezkamena sendotzea, eta, batik bat, globalizazioaren erronka gero eta handiagoei erantzutea.

**[ Nazioarteko bi erakunde sindikal handiak lanean ari dira, ea munduko erakunde sindikal berri bat sor ote daitekeen. Munduko erakunde sindikal berri horretan, egun SLNK eta LMK barruan dauden erakunde sindikalak ez ezik, munduan diren konfederazio sindikal demokratiko eta independente guztiak ere sar litezke. ]**

# 6.

## BESTE NEGOZIAZIO KOLEKTIBO EREDU BAT BILATZEKO KONPROMISOA

**06. 101.** Negoziazio kolektiboaren ikuspegitik begiratuta, aurreko kongresu arteko aldian eredu berri bat bilatzen jardun dugu, jokatzeko erreferentzia eta irizpide berri batzuk bilatzen. Zergatik bilaketa hori? Bada, gero eta kezka handiagoa zegoelako, ea orain arteko negoziazio kolektibo ereduak behar bezala erantzuten ote zion "lan merkatu berria" deitzen diogun horri.

### A) NEGOZIAZIO KOLEKTIBO EREDU BATEN KRISIA

**06. 102.** 80etan eta 90etan, bi eragile edo faktore nagusi izan zituen ELAk negoziazio kolektiboan: alde batetik, negoziazio esparru bat (euskal negoziazio esparrua) sendotu eta defenditu nahi zen, Espainiar Estatu-tuko gobernuaren, enpresariaren eta sindikatuen neurri eta asmo zentralizatzaileen aurka; bestetik, 80etako industria birmoldaketak eta krisiak, eta 1992 arte iraun zuen krisi ekonomiko gogorak, halako lan harreman kultura berezi bat sortu zuten, ezinbestean, Euskal Herrian. Enpresariak urte haietan langileei diziplina ezartzeko tresnatzat erabili zituzten langabezia eta krisia. Zeukan apurra ez galtzea, eta aldi batez bederen, beste helburu batzuei uko egitea oso sarturik izan ditu buruan euskal langileriaren zati handi batek, urte askoz.

**06. 103.** 1993tik, hazkunde ekonomiko iraunkor bat gertatu da, eta, aldi horretan berean, % 30 hazi da soldatapeko langileen kopurua. Horregatik pentsatu du ELAk krisiaren sindromeak luzeegi iraun duela jadanik. Beste era batera esanda, eta sindikatu nagusi garen aldetik geure buruari ere kritika eginez: hazkunde ekonomikoaren aldi osoan egindako negoziazio kolektiboak ez du eragotzi langile klaseak posizioak gal ditzan; aitzitik, negoziazio hori bateragarri gertatu da lan baldintzen kaskartzearekin, ezegonkortasuna hedatzearekin, diskriminazioa (sexualitate, arrazagatik, adinagatik...) handitzearekin. Sindikatu guztiak bat gendozen, hitzetan, eta genioen langabezia, ezegonkortasuna eta diskriminazioa zirela langile klasearen lehen arazoa, eta, hala ere, gai horiei heltzen egiten ez zieten, egoera horiek konpontzen ez zituzten hitzarmen kolektiboak negoziatzen jarraitzen zen.

**06. 104.** Egiaz, ez zen, ezta nagusiki ere, borondate kontu bat. Ez zen soilik toki jakin bateko problema ere, zeren European zerabilten negoziazio kolektibo ereduak, eta itun sozial ereduak oro har, krisiak jorik baitzeuden. Negoziazio kolektibo eredu horri bi arrazoigatik eutsi zaio luzaroan, beharbada: lehenengo, zaila zen beste eredu bat, beste erreferentzia batzuk asmatzea eta praktikan ipintzea; bigarren, enpresariak sekulako presioa egin dute eredu hori atxikitzeko, zeren irabaziak eman baitizkie, eta langabezia ez baizik ezegonkortasuna baitarabilte orain langileak kikiltzeko.

**06. 105.** Enpresa pribatuek eta publikoek uko egiten diote, oraingoz, eta uko egingo diote, ezegonkortasunarekin lotutako gaiari heltzeari, enpleguaren kalitatearekin lotutako auziak eztabaidatzeari. Azken ur-



teetako praktikak erakutsi duenez, soilik gatazka gogor eta luzeen ondorekin amaitzen dute botere ekonomikoek, ezegonkortasun eta diskriminazio egoeren gainean negoziatzeaz.

**06. 106.** Botere politikoen, gainera, erraztu egiten dituzte egoera negargarri horiek. Lehiakortasunaren izenean egiten dira lan erreformak, eta ez lan munduaren defentsa gogoan dela. Gobernuak eta enpresariak sindikatuen ahultasunaz (edo sindikatu batzuek itunetan duten konfiantza itsuaz) baliatzen dira beren artean adostutako erreformak egiteko. Gure kasuan, euskal administrazioek gero eta gehiago estutzen dute gatazka planteatzeko aukera, nahitaez bete beharreko laudoen, gehiegizko zerbitzu minimoen, polizia zapalketaren edo *status quo* onartzerazuzendutako kanpainen bidez.

## **B) FASE BERRI BATERAKO AINTZAT HARTU DIREN GAKOAK**

**06. 107.** Deskribatutako egoera horretan, eztabaida garrantzitsu bati ekin genion X. Kongresuan. ELAn diogu, oraindik ere, negoziazio kolektiboak eta hitzarmenek lan baldintzak hobetzeko egiazko tresnak izan behar dutela. Baina hori ez da mekanismo automatiko bat: hitzarmen kolektiboa hori izan dadin, baldintza batzuk bete behar dira, eta ondoren aipatutako ditugu batzuk:

**06. 108.** Lehenengo, errebindikazioek eta egiazko edukiek markatu behar dituzte gatazkaren norabidea eta etor daitezkeen negoziazio prozesuak. Ez da alde batera uzten den edukirik eta eusten zaion edukirik, edo, hobeki esan, ez da itxura hutsa egiteko erabiltzen den edukirik. Zehatzago esanda, lan baldintzei eragiten dieten errebindikazioek toki nagusia izan behar dute gatazkaren bilakaeran eta konponbidean.

**06. 109.** Bigarren, negoziazio esparrurik egokiena aukeratu behar da beti, indar-erlazioa ongi aztertu ondoren. Ez da ideia berria. Izan ere, "oso ELAren" jokoera izan zen hori 80etan eta 90etan, euskal lan-harreman esparrua blindatzeko asmoz. Orduan nahiz orain, estatu esparruaren aurrean, guk geure negoziazio esparrua (euskal esparrua) aldarrikatzen dugu, hor indar-erlazio desberdina ezar baitezakegu. Orain, urrunago daramagu esparruaren gaineko hausnarketa: kasu bakoitzean aztertu behar da indar-erlazioa, enpresaz enpresa, sektorez sektore.

**06. 110.** Hirugarren, sinetsita gaude, fase honi ekin genionetik, negoziazio kolektibo eredu berria ez dela benetan berria izango, prozesuak ukitutako langile guztien parte-hartzea eta inplikazio aktiboa gertatzen ez badira. Izan ere, edukiak zehaztetik azken konponbideraino hartu behar dute parte horiek, eta gatazkaren fase guztietan, noski.

**06. 111.** Laugarren, borrokarako gogoz eta jarrera positiboz heldu behar zaio negoziazio kolektiboari, hitzarmena langileen lan baldintzak hobetzeko tresna izan dadin benetan. Joan dira eredu fordistaren urteak (Euskal Herrian ez dugu bere osotasunean ezagutu, gainera): hor, gatazka handiegirik gabe, langileek produktibitatearen gehitzearen zati bat bereganatzen zuten gutxienez. Azken urteetan izan diren gatazkek (gatazka luze eta oso gogorrak, gehienak) erakutsi digute ez dela emaitzarik lortzen borroka egin gabe.

**06. 112.** Gure jarrera hori ez da baikortasunean edo arrakastaren uste seguruan oinarritzen, baizik eta ordezkatzeko ditugun balioek eta erakundeak sortutako konfiantzan. Egun, zoritxarrez, negoziazio kolekti-

[ Enpresa pribatuek eta publikoek uko egiten diote, ezegonkortasunarekin lotutako gaiei heltzeari, enpleguaren kalitatearekin lotutako auziak eztabaidatzeari. ]

[ ELAn diogu, oraindik ere, negoziazio kolektiboak eta hitzarmenek lan baldintzak hobetzeko egiazko tresnak izan behar dutela. Baina hori ez da mekanismo automatiko bat: hitzarmen kolektiboa hori izan dadin, baldintza batzuk bete behar dira. ]

[ Greba-kutxa, zeren, digresio semantikoak gorabehera, ezinbesteko elementu bihurtu baita praktikan, enpresariak ezarri nahi dituzten joko arauak aldatzeko. ]

[ Bistakoa da mugimendu sindikalaren benetako haustura (politikariek, enpresariak eta berriemailek hainbestetan aipatzen dutena) erduetan datzala. Bi erduen arteko sakoneko aldea hauxe da: zer eginkizun eman errebindikazio edukiei negoziazio kolektiboaren estrategian, eta zer eginkizun eman gatazkari, esku-hartze sindikaleko tresna gisa. ]

[ ELAren eredu sindikala oinarri ukaezin batean oinarritzen da: enpresan presente ez dagoen, antolatuta eta proposamenak zein ekintzak egiteko eran ez dagoen sindikalismoak ezin dio lan munduaren benetako egoerari erantzun. ]

boa zinez prestatzea gatazka prestatzea da. Enpresariak dakite hori inork baino hobeto, eta sindikalismo profesional eta "arduratsua" eskatzen dute horren aurrean, ia klase politiko osoak laguntzen diela.

**06. 113.** Bosgarren, eta praktikan ikusten ari garen bezala, hari luza-roan eusteko tresnak baldin baditugu bakarrik da posible errebindikazioa. Eta gure tresna nagusiak bi dira: alde batetik, erakundea, hau da, borroka egitea erabaki den alor horretara indartsu heltzen den sindikatu, eta, bestetik, greba-kutxa, zeren, digresio semantikoak gorabehera, hori ezinbesteko elementu bihurtu baita praktikan, enpresariak ezarri nahi dituzten joko arauak aldatzeko.

**06. 114.** Eta, azkenik, aliantzak. Eta azkenik diogu, zeren egiazko aliantzak, batzen dutenak, arestian aipatutako horietan adostasun minimo eta funtsezkorik baldin bada bakarrik egin baitaitezke. Batura egin denean, izan daiteke diferentzia taktikorik aliatuen artean, baina ez diferentzia estrategikorik, zeren zinezko aliantzetan funtsezko adostasunak izaten baitira eredu sindikalaz eta negoziazio kolektiboan antolatzeko zein aritzeko irizpideez. Ildo horretan, siglak batze hutsak ez du esan nahi indarrak batzea. Esperientziak diosku, esate baterako, nola egin daitekeen bat greba deialdirekin, aurretik enpresariekin ituna itxi denean ere.

### C) ONDORIOA: EREDU SINDIKALETAN DAGO BENETAKO EZTABAIDA

**06. 115.** Urte hauetako nondik norako estrategikoek askoz agerigoan utzi dituzte, zalantzarik gabe, Euskal Herrian lehian dabilzan eredu sindikal desberdinak. Eredu sindikal horiek gero eta garbiago eta elkarren aurkakoago ageri dira.

**06. 116.** Eredu horietako batean, negoziazio kolektiboa kudeatu beharreko errealitate bat da gero eta gehiago, zeren hitzarmena sinatzea aurretik erabakitako gauza baita, negoziazioan zehar edukiek jasango duten higadura edozein dela ere. Ez da harrizkoa eredu horrek elkarritzeta sozialaren beharra eta onura aldarrikatzea, negoziazio kolektibo eredu hori lanbide arteko beste gai batzuetara hedatzeko, non administrazioek ere parte hartzen duten inoiz. Eredu hori ez dago prestatuta, ez ideologikoki, ez bitartekoen mailan, errebindikazio erako negoziazio kolektibo baterako.

**06. 117.** Ikuspegi horretatik begiraturik, bistakoa da mugimendu sindikalaren benetako haustura (politikariek, enpresariak eta berriemailek hainbestetan aipatzen dutena) erduetan datzala. Bi erduen arteko sakoneko aldea hauxe da: zer eginkizun eman errebindikazio edukiei negoziazio kolektiboaren estrategian, eta zer eginkizun eman gatazkari, esku-hartze sindikaleko tresna gisa.

**06. 118.** ELAren eredu sindikala oinarri ukaezin batean oinarritzen da: enpresan presente ez dagoen, antolatuta eta proposamenak zein ekintzak egiteko eran ez dagoen sindikalismoak ezin dio lan munduaren benetako egoerari erantzun. Horretarako, guk darabilgun negoziazio kolektibo ereduak bi oinarri ditu: egiturazko egoeran sakoneraino heltzen diren edukiak errebindikatzea, eta ekintza sindikal antolatua.

**06. 119.** Ildo horretan, esparruen eta erduen eztabaidak elkarrekin lotuz, esan dezakegu enpresan ez dagoen sindikalismoa ez dela alternatiboa, ez baitauka inongo alternatibarik. Ez da hitz joko hutsa: enpresan



dagoen sindikalismoak, lurra ukitzen duenak, era dialektikoan erabil ditzake esparru desberdinak, bere emaitzak hobetzeko. Beste kontu bat da asmatzea, halako indar-erlazio bat iristea, irabaztea... hori faktore gehiagoren mendean baitago. Lurra ukitzen ez duen sindikalismoa, al-diz, ahula izango da nahitaez. Kupulan bakarrik ari baita hori, erakunde mailan, langileetatik aldentutako hartu-emanean.



# GIZARTE EREDU JUSTUAGO ETA SOLIDARIOAGOA SORTZEKO KONPROMISOA

**07. 101.** ELAren gizarte justuago eta solidarioago baten defentsa ez da mugatzen enpleguaren esparrura soilik. Politika sozialek eta fiskalek ere eragin indartsua dute pertsonen bizimoduan. Horregatik, ELAk badu zer esanik pentsioen, langabezia prestazioen, etxebizitzaren, zergen, heziketaren, osasunaren, zerbitzu sozialen, ingurumenaren eta oinarriko errentaren alorretan. Aski da alditxo batez hausnartzea gai horien garrantziaz, konturatzeko guztiz beharrezkoa dela gure sindikatua jo eta ke horietan jardutea.

## A) DIAGNOSTIKOA ETA PROPOSAMENAK EGITEKO GAITASUNA HOBETZEN

**07. 102.** X. Kongresu konfederaletik hona, diagnostikoa eta proposamenak egiteko gure gaitasuna areagotu egin da. Eta esan daiteke gure Egoeraren Azterketak zein Zergei Buruzko Urteroko Txostena agiriak sendotu eta hobetu egin direla, eta tresna oso garrantzitsu bilakatu dira biak ere, euskal errealitate ekonomiko eta sozialaren diagnostiko zehatz bat egiteko.

**07. 103.** Gainera, beste gai batzuk sartu ditugu. Hauek nabarmentzen dira: Nafarroako eta EAeko gobernuen aurrekontu proiektuen azterketak, etxebizitza, euskal trenbide sarea, ingurumena, etorkinen auzia...

## B) MOBILIZAZIOA, GEURE ERREBINDIKAZIO POSIZIOA INDARTZEKO BIDE

**07. 104.** Politika neoliberalak nagusi direnean eta gai sozialak eztabaidatik ezkututzen direnean, ahalegin handia egin behar da gure egituretan (eta langilerian oro har) kontzientzia pizteko. Soilik horrela egingo dugu aurrera geure proposamenen defentsan.

**07. 105.** Beste modu batean esanda, ez da nahikoa diagnostiko egoia eta proposamen onak egitea: kontzientziarik eta mobilizaziorik gabe, ez ditugu erakundeen politikak aldaraziko. Ez da aski arrazoia izatea. Geure posizioa indartu behar dugu, eta, horretarako, ideiak landu behar dira, eta gure errebindikazio posizioa hobetu, gizarte ereduaren esparruan.

**07. 106.** Azken urteotan, errebindikazio une desberdinak bizi izan ditugu. Zenbaitetan, erreforma antisozialen aurka gertatu dira mobilizazioak (E-19, PFEZaren erreforma, pentsioak). Beste batzuetan, erakundeek onartu ez dituzten neurriak eskatu ditugu (Gizarte Eskubideen Karta, etxebizitza, trenbide sarea...).

## C) EUSKAL HERRIKO GIZARTE FOROA

**07. 107.** Gizarte eredu bidezkoago eta solidarioago batekin dugun konpromisotik, beharrezkoa da Euskal Herriko Gizarte Foroaren proze-

sua aipatzea. ELA era aktiboan ari da Foroaren prozesuan parte hartzen, 2003an Gasteizen egin zen topaketan ikusi zen bezala. ELA hango hitzaldietan eta mintegietan izan zen, eta bai ondoko agerraldian ere.

**07. 108.** Gizarte Foroa gunea hauta da, Euskal Herriko gizarte erakunde guztiak bil daitezkeen lekua. ELAri oso esparru egokia iruditzen zaio:

**07. 109.** – Ideologikoki aberasteko. Foroak auzi ugariri heltzen die, eta ELAkooi ongi datorkigu horiek gertutik ezagutzea. Neoliberalismoak gizarte sektore guztiei eragiten die, eta, sektore horiek Foroan egoten direnez, sakonkiago eta osokiago ezagut ditzakegu arazo eta dinamika sozialak.

**07. 110.** – Geure esperientziak agertzeko. Foroak sindikalismotik egiten ari garena jakiteko aukera ematen die beste erakundeei eta militanteei: gure borroak, zailtasunak eta lorpenak.

**07. 111.** – Sareak osatzeko. Aurretik lan egokia eginez, guk interes berezia dugun gaiari buruzko sareak osatzen uzten digu Foroak.

**07. 112.** – Euskal Herri sozialago bat eskatzeko. Foroa oso gunea aproposa da egun dugun Euskal Herri neoliberala salatzeke, eta bestelako bat egingarri eta beharrezko dela ozen esateko.

[ Beharrezkoa da Euskal Herriko Gizarte Foroaren prozesua aipatzea. ELA era aktiboan ari da Foroaren prozesuan parte hartzen, 2003an Gasteizen egin zen topaketan ikusi zen bezala. ELA hango hitzaldietan eta mintegietan izan zen, eta bai ondoko agerraldian ere. ]

# 8.

## DEMOKRAZIAREKIKO ETA EUSKAL SUBIRANOTASUNAREKIKO KONPROMISOA

### A) ERANTZUN BEHARREKOAK...

**08. 101.** Erantzunek leku handia hartu dute, azken lau urtean, ELAren jarduera soziopolitikoan. Egoeraren larriak eskatzen zuen hori. Gauza ugariengatik mobilizatu gara tarte horretan: hilketengatik, mehatxuen-gatik, euskal presoen eskubideen alde, alderdiak eta erakundeak legez kanpo uztearen aurka, egunkariak eta aldizkariak ixtearen aurka, Espainiako Gobernuaren eta Estatuaren botereen neurri zapaltzaile ugariaren aurka...

**08. 102.** Euskal gizarteak kanpoko erasoei emandako erantzunen artean, *Egunkaria* itxi zutenean emandakoa nabarmendu behar da zalantzarik gabe: erantzunaren neurriagatik, erantzunaren pluraltasunagatik, euskal gehiengo sindikalak martxoaren 13an eta la Casillako ekitaldian agertu zuen ekimen mailagatik...

**08. 103.** Hala ere, askotan ez dugu lortu burutik irudipen bat kentzerik, hots, Estatua ari zela, bere botere eta bitarteko guztiekin, gure agenda ezartzen. Beste alde batetik, berriz, ETA hor egoteak gogortu eta zurrundu egiten zuen eztabaida politikoa, zeren diskurtso politiko itxietan gogortzen baitziren alderdiak. Zeharo premiazkoa zen, bada, geldikeria politikoaren zirkulu gaiztotik irtetea.

**08. 104.** Horregatik guztiagatik, behin baino gehiagotan deitu dugu beste fase politiko bat irekitzera, beste erreferentzia printzipio batzuk eta beste jokabide kode batzuk hartzera. Behar-beharrezkoak ziren, eta dira, besteekin partekatutako erreferenteak, gutxieneko komun eragin-garriak, Euskal Herriaren aurkako eraso ugarietan erantzun sakonagoak eman ditzagun, orain ematen ditugun unean uneko erantzun solteen orde.

### B) ... ETA HARTU DITUGUN EKIMENAK: 2002KO E-19KO GREBA OROKORRA

**08. 105.** Baina ez da izan guztia besteren ekimenez moldatutakoei erantzutea.

**08. 106.** ELAko Nazio Batzordeak agiri bat argitaratu zuen 2002ko apirilean: "Proposamen Soberanista Baterako Apunteak" zuen izenburua. Agiri horretan, egungo esparru juridiko-politikoa gaingintzeko prozesu bat proposatzen da, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidean oinarritua, eta eredu solidario eta sozialki integratu bat dakarten edukiak lehenesten dira bertan.

**08. 107.** 2002ko ekinaren 19ko greba orokorra nabarmendu behar dugu, jarduera sindikala egiteko era desberdin eta autonomotzat, eta ekintza hura erreferentetzat hartu behar dugu etorkizunerako.

**08. 108.** Espainiako Gobernuaren lege erreforma zeharo antisozial bati erantzutea zen kontua, eta kutsu horixe eman nahi izan zion bene-



tan Espainiako sindikalismoak E-20ko greba deialdiari. Baina sindikalismo abertzaleari iruditu zitzaion deialdiak helburu zabalagoa izan behar zuela.

**08. 109.** Bide horretan, gure deialdia subiranotasunaren aldeko praktikaren adibide izan zen, praktika aurrerakoiaren adibide, eta erakutsi zen behin betiko euskal sindikalismoa ez zela espainiar sindikalismoaren azpisistema bat. Gai horretan, greba orokorrak atzera egiterik ez den mugarri bat ezarri zuen.

**08. 110.** Greba hark agerian ipini zuen, gainera, ona dela indarrak metatzea helburu estrategiko komunak jarri ditugunean, are aurkakotasun politiko gogorreko testuinguruetan ere; grebak indartu egin zituen hura sustatu zuten erakundeak, erakunde horiek gaitasuna agertzen zutela egoerarik txarrean ere; grebak erakutsi zuen sindikalismo abertzaleak sekulako sinesgarritasuna duela gizarte oinarri zabal batean, eta badela gizarte masarik nahikoa apustu nazional eta sozial sakonei heltzeko; azkenik, adostasunaren ideologia era praktikoan jarri zuen zalantzan.

**08. 111.** Azken batean, ñabardura ugari duen ekimen bat, eta, gure iritzian, berorretan da laburturik ELAK etorkizunean egin behar duen ekarpen garrantzitsua.

[ 2002ko ekinaren 19ko greba orokorra nabarmendu behar dugu, jarduera sindikala egiteko era desberdin eta autonomotzat. ]

[ Gure deialdia subiranotasunaren aldeko praktikaren adibide izan zen, praktika aurrerakoiaren adibide, eta erakutsi zen behin betiko euskal sindikalismoa ez zela espainiar sindikalismoaren azpisistema bat. ]

# 9.

## ANTOLAMENDUA ETENGABE EGOKITZEN: KONTRABOTERE IZATEKO ASMOA

**09. 101.** 2003an egindako ELAren Ohiz Kanpoko I. Kongresu Konfederalak "4x12=29" deritzan Antolamendu Plan Berrira egokitu zituen estatutu konfederalak. Kongresu horren aurretik, sei federazioen Kongresuak egin ziren, haien estatutuak antolamendu egitura berrira egokitzeko eta federazio berriak eratzeko, Hainbaten eta Gizalanen kasuan bezala. Beraz, aipatu Kongresuetan sindikatu osoan egin zen antolamendu eztabaida hura bera jarraitzen eta sakontzen du, orain, kongresu ponentzia honen antolamendu hausnarketak.

**09. 102.** Orain, X. Kongresuan ezarritako antolamendu helburuak baloratu behar ditugu.

### A) AFILIAZIOA

**09. 103.** X. Kongresu Konfederalak 100.000 afiliatu lortzea ezarri zuen helburutzat 2004ko, eta aise gainditu da zifra hori. Helburuei etengabe jarraitzeak eta gure erakunde guztien etengabeko tentsioak erraztu dute emaitza horiek iristea.

	OROTARA	LANA DUTENAK (orot. eta %)	SINDIKATZE TASA
X. Kongresua (2000-10-31)	90.256	77.829 (%86,23)	9,45
2004ko maiatza	104.165	94.474 (%90,69)	10,28
Diferentzia	13.909	16.645	0,83
%	15,41	21,39	8,78

**09. 104.** Kopuru horiek ageri duten bilakaera oso esanguratsua da: gero eta testuinguru gaiztoagoan ari gara, gero eta lan merkatu eze-gonkorrago eta atomizatuagoan. Eta, hala ere, gure lanak erakusten du, garbi asko, langile multzo ezegonkorren eta diskriminatuen premiei eta nahiei erantzuten zaienean, sindikatua hedatzeko aukerak sortzen direla, afiliazio berriak egiteko aukerak. Ederki egiazta daiteke baieztapen hori, gure afiliazioen gorakadak sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero:

	EMAKUMEAK			GAZTEAK (<35)		
	OROTARA	LANEAN	SINDIKATZE TASA	OROTARA	LANEAN	SINDIKATZE TASA
2000KO URRIA	27.743	23.193	7.24	21.014	18.893	4.66
2004KO MAIATZA	35.204	30.547	7.69	25.821	23.944	6.46
DIFERENTZIA	7.461	7.354	0.45	4.807	5.021	1.80
%	26,89	31,7	6,21	22,87	26,57	38,63

**09. 105.** ELAren afiliazio egitura gero eta gehiago ari da, beraz, lan merkatu berriaren ezaugarrietara egokitzen. Datu horiek baikortasuna pizten digute, zeren erakusten baitute errebindikazio sindikalismoak baiduela etorkizunik.



**09. 106.** Atxiki ditzagun helburu handiak afiliazio mailan. Alor horretan ezarritako helburuen jarraipenak lehentasuna izango du, aurrerantzean ere, federazio eta eskualde guztietan, eta leku funtsezkoa hartuko du, halaber, erakundean ardurarik duten pertsonen lanean.

## **B) ORDEZKARITZA**

**09. 107.** Hauteskunde sindikalak ez dira helburu, berez, baizik eta ELAren ordezkari egitura sendotuz joateko bidea. Ordezkari gehiago behar dugu beti, geure proiektua hedatzeko, enpresetan eta sektoretan ELAren gehiengoa sendotzeko.

**09. 108.** Alor horretan egindako lana eta jasotako emaitzak nabarmenak dira. Helburu jakin batzuekin landu dugu sindikatu ordezkariak, eta jarraipen sistematikoa egin dugu, gainera, eskualdeetan eta federazioetan.

**09. 109.** Datuak: %35,62ko ordezkariak (8.174 ordezkari) abiatu ginen Euskal Herrian, 2000n. Eta, 2004ko apirilean, ordezkariak %36,15 (9.153 ordezkari) iritsi dugu (%41,02 EAEn, eta %20,93 Nafarroan).

**09. 110.** Enpresen tamainaz, enpresa batzordetan nahiz langileen ordezkariak handitu dugu ehunekoak. Enpresa txiki eta ertainetan (ETE), bost eskualdeetan gaitu dugu ordezkariak %50. Gainera, beste hiru konfederazioekin lehian iritsi ditugu emaitza horiek, eta enpresariak jo eta su hauteskunde sindikalak galarazi nahian zebiltzala (batez ere ETEetan).

## **C) ESKUALDE INTEGRALAREN ERAGINGARRITASUNA SAKONTZEA**

**09. 111.** Eskualde integrala IX. Kongresuan ipini zen abian, eta bera da azken urteetan ELA egin den antolamendu urratsik garrantzitsua. Errealitate sendotua da jadanik, nahikoa garatu baita, eta, garapen horren bidez, tokiko esparru edo mailara eraman nahi da ELAren eredu konfederala, aldaketa sozialei eta lan merkatu berriari hobeto erantzuteko. Izan ere, eskualdean diren antolamendu-bitarteko eta zerbitzu guztiak sektore arteko zuzendaritza bakar baten esku egoteak eta jardura sindikalean hori era koordinatuan aritzeak aukera handiak ditu, eta garatu egin behar ditugu oraindik potentzialtasun horiek.

**09. 112.** Eskualde integralari esker, oso modu eraginkorrean bete ahal izan dira, bere esparruan, erabaki konfederalak, federalak eta tokikoak. Eta, hor, 2002ko ekainaren 19ko greba orokorraren prestaketan egindako lan bikaina aipatu behar da. Aste gutxitan, eta geure datan (Estatuko grebarena ez beste batean), eskualde batzuk sekulako lana egin zuten diskurtso mailan, enpresa eta lantoki guztietara heltzeko, eta tokiko gizartea ukitzeko. Eragingarritasun hori bera erakutsi da Maiazaren Lehena prestatzeko zein beste mobilizazio batzuk (negoiazio kolektiboaren jardunaldi nazionalak eta eskualdekoak, *Egunkariaren* itxieraren aurkako lanuztea...) egiteko.

**09. 113.** Eskualde batzaren arduradunen lan koordinatuak emaitza aipagarriak izan ditu, halaber, hauteskunde sindikalen periodo kontzentratuaren prestaketan. Era berean, funtsezkoa da Eskualde Batzordeak periodo kontzentratutik kanpoko hauteskunde sindikalen aldizkako eta hileroko jarraipenean daukan eginkizuna.

[ Gure lanak erakusten du, garbi asko, langile multzo ezegonkorren eta diskriminatuen premiei eta nahiei erantzuten zaienean, sindikatua hedatzeko aukerak sortzen direla, afiliazio berriak egiteko aukerak. ]

[ Enpresa batzordetan nahiz langileen ordezkariak handitu dugu ehunekoak. Enpresa txiki eta ertainetan (ETE), bost eskualdeetan gaitu dugu ordezkariak %50. ]

[ Eskualde integralari esker, oso modu eraginkorrean bete ahal izan dira, bere esparruan, erabaki konfederalak, federalak eta tokikoak. Eta, hor, 2002ko ekainaren 19ko greba orokorraren prestaketan egindako lan bikaina aipatu behar da. ]

[ Aldaketa handia ari da gertatzen eskualdeak negoziazio kolektiboan izan behar duen eginkizuna ikusteko eran. Eskualdeak dinamizatu egiten du sektoreko eta enpresako negoziazioa, eta horretarako behar diren laguntza bideak antolatzen ditu. ]

[ ELAk erakunde indartsu bat behar du berekin, militantzian eta oinarri erakunde sendo eta dinamikoetan bermatua, eta militante eta oinarri erakunde horiek ere azterketak egiteko eta erantzunak emateko gaitasuna izan behar dute, zeinek bere lan arloan. ]

[ Gabezia horretaz ohartzeak eta sindikatuan militante gehiago integratu beharrak ekarri dute  $4 \times 12 = 29$  Antolamendu Plana onartzea. ]

**09. 114.** Aldaketa handia ari da gertatzen eskualdeak negoziazio kolektiboan izan behar duen eginkizuna ikusteko eran. Eskualdeak dinamizatu egiten du sektoreko eta enpresako negoziazioa, eta horretarako behar diren laguntza bideak antolatzen ditu. Eskualdearen laguntzari esker eutsitako sektore gatazka eta enpresa gatazka ugari aipa daiteke (Maria Cristina hotela, Caballito, Ariznabarra egoitza, Basauriko FCC, Tuterako TAO, Irungo Clece). Egin beharreko bidea luzea da oraindik, eta guztiz beharrezkoa, proposatzen ari garen negoziazio kolektibora heldu ahal izateko.

**09. 115.** Eskualde integralak ekarpen txikiagoa egin du, ordea, gizarte ereduaren alorrean. Ez ditugu aktibatu, behar beste, eskualdeko bi-tartekoak, toki esparruetan izan diren murrizketa sozialen aurka, eta ez ditugu behar hainbeste landu aliantzak ere, alor horretako beste gizarte erakunde batzuekin.

**09. 116.** Alabaina, bide luzea egin dugu eskualde guztietan, bide luzea are hiriburuetan ere.

**09. 117.** Eskualde batzak eginkizun handi bat du oraindik: militanteak sindikatuan integratzea, oinarri erakundeak (herri-batzak) eratuz eta indartzuz. Horixe dugu datorren urteetan geure buruari jartzen diogun antolamendu erronka nagusietako bat. Herri-batz horiek indartzeak gaitasun handiagoa emango liguke oinarri erakundeetatik konfederazioziorantz hausnarketak, diagnostikoak eta proposamenak egiteko.

#### **D) MILITANTEAK UGARITZEA ETA MOTIBATZEA. OINARRI ERAKUNDEAK DINAMIZATZEA**

**09. 118.** Aurreko kongresu ponentzian genioen ELAko militanteak zirela sindikatuaren motorra, eta horiek gabe ezin da gertatu eskatzen dugun gizarte aldaketa.

**09. 119.** Antolamendu bide luze eta garrantzitsua egin dugu azken urteetan. ELAren proiektuak militante berri asko erakarri du, eta proiektu horren alde ari dira lanean, batez ere gazteak eta emakumeak. Hala ere, militante horiek gutxiegi dira oraindik, erronka eta helburu estrategiko handiak dituen eredu sindikal batentzat. ELAk erakunde indartsu bat behar du berekin, militantzian eta oinarri erakunde sendo eta dinamikoetan bermatua, eta militante eta oinarri erakunde horiek ere azterketak egiteko eta erantzunak emateko gaitasuna izan behar dute, zeinek bere lan arloan.

**09. 120.** Gabezia horretaz ohartzeak eta sindikatuan militante gehiago integratu beharrak ekarri dute "4x12=29" Antolamendu Plana onartzea.

#### **E) FEDERAZIO PROFESIONALAK INDARTZEN JARRAITZEA. LAN METODO BERRI BAT SAKONDU ETA HEDATU (ANTOLAMENDU PLANA)**

**09. 121.** 1999ko Antolamendu Planak bereizi egiten zituen enpresa handi edo enpresa batzorderen eta ETEen gaineko ardurak. Plan haren asmoa hauxe zen: lan sindikala enpresa bakoitzari hobeto egokitzea eta, horretarako, lan metodo sistematikoagoa ezartzea, antolamendu planeko enpresa guztiek (ordezkaritza sindikalik zuten enpresa guztiek) pertsona arduradun bat izan zezaten.



**09. 122.** Lan metodo horren garapena desberdina izan da bi enpresa motetan.

**09. 123.** ETEen alorrean, lan metodo bat garatu dugu, hots, enpresetara egin beharreko bisitak ongi antolatzea eta planifikatzea, helburu hirukoitz batekin: afiliazioa, ordezkartza eta lan sindikala. ETEetako taldeak eta lanbide arteko arduradunek ongi segurtatua eta sendotua dute metodo hori era horretako enpresetan. Horixe da, gainera, antolamendu planeko enpresa guztiak ukitzen diren bermea, taxuzko bisitak egiten zaizkiela horiei, bertako langileen premiei erantzuteko.

**09. 124.** Batzordedun enpresetan, aldiz, ez dugu halako lan metodo sistematikorik segurtatu oraindik. Handiagoak dira zailtasunak era horretako enpresetan, zeren lana jarraitzeko parametroak konplexuagoak baitira enpresa handietan. Sindikatu afiliazioaren eta ordezkartza zenbakizko irizpideak ez ezik, badira beste aldagai batzuk ere: sindikatu atalaren sendotasun maila, afiliatuek negoziazio kolektiboaren prestaketan eta martxan duten parte-hartzea, militanteak motibatzeke lana... ebaluatzen gaitzagoak guztiak ere.

**[ Batzordedun enpresetan, aldiz, ez dugu halako lan metodo sistematikorik segurtatu oraindik. Handiagoak dira zailtasunak era horretako enpresetan, zeren lana jarraitzeko parametroak konplexuagoak baitira enpresa handietan. ]**



# GURE EREDU SINDIKALA ERRAZTEN ETA BLINDATZEN DUTEN ALOR ETA ZERBITZUAK INDARTZEN

## A) ZERBITZU JURIDIKOEN ALORRA

**10. 101.** Zerbitzu juridikoak osagarri baliotsua dira ekintza sindikalean, afiliatuen interesak hobeki babesteko, eta bide garrantzitsua, langileen atxikimendua eskuratzeko. Horixe frogatzen dute afiliatzen diren sei lagunetatik batentzat espedientea ireki izanak, eta espedientea duten lautik batek sei hilabete baino gutxiago izatea afiliaturik espedientea ireki zaionean.

**10. 102.** Antolamendu mailako erabakiengatik eta lan munduaren beraren bilakaeragatik, aldaketa handia gertatu da zerbitzu horietan azken urte hauetan. Zerbitzu Juridikoa deszentralizatu egin zen aurreko kongresu arteko aldirian, zerbitzu horren kalitatea hobetzeko. Eta nola hobetu nahi izan zen zerbitzu juridikoaren kalitatea? Bada, hura afiliatuei hurbilduz eta hura ekintza sindikalarekin lotuz.

**10. 103.** 1999ko Antolamendu Plana abian ipintzeak eta, zehazkiago, ETEen arduradunak eskualdeka banatzeak eragin funtsezkoa izan dute Zerbitzu Juridikoan. Gehiago gerturatzeko aukera eman die langileei, eta enpresetan beretan lan egin ahal izan dugu haien problemak konpontzen, geure egoitzetan egon ordeztu haien zain. ETEen arduradunen eta Zerbitzu Juridikoaren arteko komunikazioa positibotzat jo behar da, nahiz eta dezente hobe daitekeen, oraindik, gure egoitzetara laguntza juridiko eske datozen pertsonen buruzko informazioa hobeki sistematizatuz. Horrek lagundu egin behar digu, ponentziako beste pasarte batean diogun bezala, arreta, ekintza sindikala, afiliazioa, ordezkari eta militantzia elkarrekin hobeto lotzen.

**10. 104.** Lan harremanak okertzeak ere badu eraginik, noski, Zerbitzu Juridikoak aurre egin beharreko lan kopuruan. Enpresarietako gero eta gehiagotan urratzen dituzte langileen eskubideak, bereziki ETEetan, eta hor ditugu kontratuetan egiten den iruzurra, mutualitateek baje tratamenduan edo haien kalifikazioan agertzen duten diskriminazioa edo beligerantzia... Horregatik, gero eta langile gehiagok du babes premia. Izugarri ugari dira gure egoitzetara laguntza eske datozen pertsonak; 2000tik, %41,5 handitu da urtero irekitzen dugun espediente kopurua, eta %57,2, espediente horietan ageri den pertsona kopurua. Egoera horri erantzuteko, eta zerbitzu ona ematen jarraitzeko, indartu eta egokitu egin ditugu geure zerbitzuak.

**10. 105.** Zerbitzuaren kalitatea hobetzen jarraitu behar dugu. Horretarako, talde juridikoek tamaina egokia izan behar dute, eta egonkortasun handiagoa, lan moduak eta lan antolamendua etengabe berrikusten direla. Antolamenduaren alor honetan, ponentziako beste pasarte batean jasotzen den bezala, funtsezkoa da harrera nahiz arreta ongi antolatzea gure egoitzetan.

**10. 106.** Beti zaindu izan dugu talde juridikoa osatzen duten lagunen prestakuntza, baina hobetu egin behar dugu alderdi hori, oraindik. Le-



geriaren eta jurisprudentziaren etengabeko aldaketek (langileen eskubi-  
deen txarrerako, gehienetan) eta epaileen jokabidearen bilakaera nega-  
tiboak (langileentzat txarra, halaber) ardura handia ipinarazten digute  
prestakuntzaren atal horretan.

**10. 107.** Talde juridikoa osatzen duten lagunak ugaritzeak eta haiek  
eskualdeka banatzeak zailago bilakatzen dute barne komunikazioa. Le-  
henbailehen zuzendu behar dugu alderdi hori, zeren, erantzun behar  
diegun auzien bolumenagatik, ikasitakoa partekatzeak berak izan behar  
baitu jakintza iturri nagusietako bat.

## **B) LAN OSASUNAREN ALORRA**

**10. 108.** Azken lau urtean, sendotu egin dugu alor hau. Batetik, lau  
lagun jarri ditugu alor horretan egun osoz aritzeko eta, bestetik, bera-  
riazko ikastaroak antolatu ditugu prebentzioko ordezkariarentzat. 2.500  
lagun baino gehiago aritu dira ikastaro horietan, gutxieneko araudietan  
eta tekniketan sakontzeko.

**10. 109.** ELA modu aktiboan aritu da Osalaren eta Nafarroako Lan  
Osasun Institutuaren (NLOI) sektore batzorde desberdinetan (amiantoa,  
drogamenpekotasuna, eraikuntza, prestakuntza...), bai eta institutu hor-  
rien Kontseilu Nagusietan ere.

**10. 110.** Baina kritika egin behar diogu geure buruari alor honetan:

**10. 111.** – Enpresa ertain eta handi ugarik ez daukate osatuta lan  
segurtasun eta osasun batzordea, edo batzorde hori ez da operatiboa.

**10. 112.** – Enpresen gehiengo handi batek mutualitateetara jo du  
kanpoko prebentzio zerbitzua izateko, eta mutualitateek testak eta  
inkestak betetzea besterik ez dute egiten, arriskuen ebaluazioa egi-  
teko.

**10. 113.** – Gaixotasun arruntagatik sortutako bajak estaltzeko, en-  
presek mutualitateak kontratatzea etengabea da.

**10. 114.** Gure erantzuna ez da behar bezain gogorra izan. Are istripu  
hilgarri eta/edo larrien kasuan ere, salatze gogorik eza eta topatzen  
ditugu enpresetan. Errebindikatzeko kontzientzia handiagoa izan behar  
dugu gai horretan.

**10. 115.** Sindikatu nagusi garen aldetik, ardura handia dugu degrada-  
zio horretan, eta guztiz premiazkoa da hausnartzea, egoera hits hori al-  
datzen lagun dezan. Gure salatze jarrera etengabea izan da. Istripu hil-  
garri kasu guztietan bildu gara enpresaren, Lan Ikuskaritzaren edo  
lurraldeko Enpresarien Egoitzaren aurrean, LABekin, ESKrekin eta STEE-  
EILASekin batera. Baina hori ez da nahikoa.

**10. 116.** Horregatik guztiagatik, ondoko erronkak ditugu datorren  
lau urtean:

**10. 117.** – Batzordedun enpresa bakar batek ere ez du gelditu behar  
arriskuen ebaluaziorik gabe edo prebentzio plan dinamiko eta gaurko-  
turik gabe. Segurtasun eta osasun batzordeek martxan egon behar du-  
te, eta osasun zaintza espezifikoa izan behar du lanpostu bakoitzak.

**10. 118.** – Prebentzioko ordezkariak prestatzen jarraitu behar du-  
gu, eta gure ikastaroak izan daitezela errazak, egokiak eta prakti-  
koak, enpresarantz ongi zuzenduak.

[ Antolamendu mailako  
erabakiengatik eta lan  
munduaren beraren  
bilakaeragatik, aldaketa  
handia gertatu da zerbitzu  
horietan azken urte  
hauetan. ]

[ Gure erantzuna ez da  
behar bezain gogorra izan.  
Are istripu hilgarri eta/edo  
larrien kasuan ere,  
salatzeko gogorik eza eta  
topatzen ditugu  
enpresetan.  
Errebindikatzeko  
kontzientzia handiagoa  
izan behar dugu gai  
horretan. ]

## [ Negoziazio

### Kolektiboaren eta Politika

### Industrialaren Bulegoa

### jarduera sindikalari

### laguntzeko egitura

### tekniko bat da, eta bi alor

### hartzen ditu: bat,

### negoziazio kolektiboa,

### bereziki enpresetako; bi,

### egoera ekonomiko-

### finantzarioen eta horiek

### enpresetan dituzten

### ondorioen gainean

### azterketa, diagnostikoa

### eta ekintza eskatzen

### dituzten egoerak. ]

**10. 119.** – Presioa handitu behar dugu enpresetan, prebentzioak eta lan osasunak aurrekontu zehatzak izan ditzaten.

**10. 120.** – Alorreko arauak etengabe urratzen dituzten enpresariekin zorrotzago jokatzeko eskatu behar diegu Institutuei eta lan agintaritzari.

**10. 121.** – Eskatu behar diegu enpresari Osakidetzak eta/edo Osasunbideak kudeatu behar dituztela gaixotasun arruntagatik hartutako bajak.

## C) NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ETA POLITIKA INDUSTRIALAREN BULEGOA

**10. 122.** Negoziazio Kolektiboaren eta Politika Industrialaren Bulegoa jarduera sindikalari laguntzeko egitura tekniko bat da, eta bi alor hartzen ditu: bat, negoziazio kolektiboa, bereziki enpresetako; bi, egoera ekonomiko-finantzarioen eta horiek enpresetan dituzten ondorioen gainean azterketa, diagnostikoa eta ekintza eskatzen dituzten egoerak.

**10. 123.** Negoziazio kolektiboari dagokionez, bi esparrutan lan egingen da:

**10. 124.** – Emaitzak antolatu. Federazioek sektoretako eta enpresetako negoziazioen emaitzak helarazten dizkiote Bulegoari, urtean bi aldiz estatistikak egin daitezten. Askoz ardura handiagoa erakutsi behar dugu alor horretan, zuritu gabeko atzerapenez etortzen baitira fitxak maiz, eta erabat bete gabe, gainera. Jasotako emaitzen azterketak gure ekintza sindikala noraino iritsi den erakusten digu, eta ekintza sindikal hori zuzentzen laguntzen.

**10. 125.** – Egoera ekonomiko-finantzarioen azterketatik eskuratzeko diren ondorioak helarazi federazioei, negoziazio prozesu bakoitzean nolako tartea dugun adierazten diguten datuak eskuratzeko. Kongresu arteko aldirian, datuak lortzeko beste sistema bat geureganatu dugu.

**10. 126.** Beste alorrean, Bulegoak, federazioekin koordinatuta noski, oso esku-hartze zuzena dauka, eta eskema gisa azaltzen dugu:

**10. 127.** – Laguntza teknikoa eskaintzea, enpresen egoera ekonomiko-finantzarioekin eta antolamendu/produktziozkoekin lotutako gaitan diagnostikoak eta proposamenak egiteko.

**10. 128.** – Federazioekin eta atal sindikalekin bilerak egitea, haiei egoera ekonomiko-finantzarioen ondorioak azaltzeko.

**10. 129.** – Beste gai batzuk ere ukitzea, hots, errelebo kontratuak, irazpen edo despido objektiboak...

**10. 130.** Beraz, hurrengo kongresu arteko aldirako ere, horiek berak izango dira ardatz orokorrak, eta sortzen diren premia teknikoetara egokituko gara.

## D) AZTERKETA BULEGOA

**10. 131.** ELAren errebindikazio eta kontrabotere sindikalismoak gizar-te justuago eta solidarioago baten defentsan du bere oinarrietako bat, eta tresna egokiak behar dira politika neoliberalak desmuntatzeko nahiz



gure eredu sindikalaren arabera ideologia bat sortzeko. Ideologia nagusia dugu aurrez aurre, eta zorrotz jokatu behar dugu.

**10. 132.** Azterketa Bulegoari esker, izugarri hobetu dugu diagnostikoak eta proposamenak egiteko gaitasuna urte hauetan, gai ugarian. Gai horietako batzuk: Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, etxebizitza, trenbide eredu, ingurumena...

**10. 133.** Beste alde batetik, Azterketa Bulegoak, bere alde juridikoan, arauetan eta legeetan egin diren aldaketak jarraitzen utzi digu, eta aldaketa horiek ugariak izan dira lan legeria denaz bezainbatean.

**10. 134.** Jarraitu eta indartu egin behar da hasitako bidea. Batetik, aurrera egin behar dugu arestian aipatu ditugun gaien azterketan eta proposamenetan. Bestetik, dinamika sindikalek (geurek nahiz beste erakunde batzuekin partekatuek) eta sozialek behartu egingo gaituzte horretara. Egoki erantzun behar diogu zeregin garrantzitsu horri.

## E) GREBA-KUTXAN EGINDAKO HOBETZEAK

**10. 135.** Azken kongresutik, Greba-Kutxak ematen duen ordaina hazi egin da urtez urte, eta %21,4ko hazkundea metatu du Asteko Ohiko Kutxan (143,01 euro), eta %21,4 hori bera, Hileko Kutxa Bereziko gehiengoan (1.218,54 euro).

**10. 136.** Kontuan izanik LAGSaren bilakaera, soldatenaz aparte ez ezik, KPlaren bilakaeraz aparte ere (eta behetik) joan dela, Greba-Kutxaren ohiko ordaina LAGSaren %115,5ean kokatu da, orain lau urteko %103,1ko aldean.

**10. 137.** Ordainen bilakaera hori ikusirik, Kontseilu Nazionalak araudiaren aldaketa bat onartu zuen 2003ko urtarrilaren 30ean, eta, hor, ordu arte ez zen muga bat ezarri zen Ohiko Greba-Kutxarentzat, hots, soldata garbia, aparteko ordainsari eta guzti.

**10. 138.** Bestalde, azken urteetan egiten ari garen greben ezaugarri berriek eta enpresariak nahiz erakundeek horien aurrean duten jarrerak araudia egokitzera bultzatu gaituzte. Batzorde Eragileak, salbuespen batzuetan eta interes estrategiko handiko kasuetan, Greba-Kutxaren ordainaren estaldura luza dezake, lehen bileran Nazio Batzordeari hori jakinarazita.

## F) PRENTSAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ALORRA

**10. 139.** Agerkari konfederalen alorrean, azken lau urtean militanteentzako *Astekaria* (hogeita hamar zenbaki urtean) sendotu da dezentente, aurreko kongresu arteko aldia abiatu zenetik, eta *Landeia* argitaratzen jarraitu dugu, afiliazio osoarengana heltzeko komunikabide konfederal nagusi gisa. *Landeia*ren kasuan, bere tirada handiak (100.000 aletik gora) berez daukan kostuak, eta kostu hori igo izanak, urtean 8 zenbakira jaitsarazi digute aldizkakotasuna.

**10. 140.** Era berean, sendotuztat jo daiteke ingelesez argitaratzen den *Newsletter* (lauzprobost zenbaki, urtean). Nazioarteko alorreko aldizkari horren 20 zenbaki argitaratu dira jadanik.

**10. 141.** Bestalde, ezinezkoa zaigu, giza bitartekoren urritasunagatik, *Lantzen* bezalako aldizkari bat abiatzea, epe motzean behintzat. Interes

[ Azterketa Bulegoari esker, izugarri hobetu dugu diagnostikoak eta proposamenak egiteko gaitasuna urte hauetan, gai ugarian. Gai horietako batzuk: Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, etxebizitza, trenbide eredu, ingurumena... ]

[ Azken kongresutik, Greba-Kutxak ematen duen ordaina hazi egin da urtez urte, eta %21,4ko hazkundea metatu du. ]

[ ELAren web orria ([www.ela-sindikatu.org](http://www.ela-sindikatu.org)) argitaratzea izan da kongresu arteko aldian komunikazioaren alorrean egin den urratsik behinena, eta horri Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioaren web orria ([www.mrafundazio.org](http://www.mrafundazio.org)) gehitu zaio. ]

[ Kongresu arteko aldian, konfederazioaren eskualde guztietara hedatu dugu sare informatikoaren garapena. ]

[ Ordenagailu sare hori 12 eskualde-batzetako 25 egoitzetara iristen da orain. Berari esker, bai sindikatuaren egiturako bai orduka liberatutako pertsonen behar duten informazio guztia eskura dezakete aise, lan sindikala behar bezala egiteko. ]

sindikaleko gaiak sakon aztertzeke nahi genuke horrelako bat. Zorionez, Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioak betetzen du hutsune hori hein batean, argitaratzen ari den azterketa eta agiri ugarien bidez.

**10. 142.** ELAren web orria ([www.ela-sindikatu.org](http://www.ela-sindikatu.org)) argitaratzea izan da kongresu arteko aldian komunikazioaren alorrean egin den urratsik behinena, eta horri Manu Robles-Arangiz Institutua Fundazioaren web orria ([www.mrafundazio.org](http://www.mrafundazio.org)) gehitu zaio. Sareak aukera handiak eskaintzen dizkigu komunikatzeko, bai kanpokoekin, bai ELAren beraren egiturarekin, eta aukera horiek indartzen eta zabaltzen jarraitzeak zeregin garrantzitsu iraungo du periodo honetan.

## G) TEKNOLOGIA BERRIAK

**10. 143.** Kongresu arteko aldian, konfederazioaren eskualde guztietara hedatu dugu sare informatikoaren garapena.

**10. 144.** Ordenagailu sare hori 12 eskualde-batzetako 25 egoitzetara iristen da orain. Berari esker, bai sindikatuaren egiturako bai orduka liberatutako pertsonen behar duten informazio guztia eskura dezakete aise, lan sindikala behar bezala egiteko. Sare horrek barneko posta elektronikoz komunikatzeko aukera ere ematen digu, eta izugarri hobetu da komunikazioa, eta denbora aurrezten da, gainera.

**10. 145.** Azken urte honetan, gure sarea kanpoko munduarekin lotzeko urratsa ere egin dugu, eta komunikazio elektronikoko zentralizatua izan dezakegu mundu horrekin. Gero eta gehiago erabiltzen diren komunikazio eretara egokitu gara horrela.



# 3. ATALA

GURE PROPOSAMENAK  
ETA ILDO OPERATIBOAK



**KONGRESUA**

2004. azaroak 26-27 noviembre  
BILBO

**ELA**

EUSKAL SINDIKATUA

XI. KONGRESU KONFEDERALA

# GIZA-, GIZARTE- ETA LAN-ESKUBIDEAK ZEIN HERRIEN ESKUBIDEAK GLOBALIZATU

## A) GIZA-, EKONOMIA-, GIZARTE-, KULTURA- ETA INGURUMEN-ESKUBIDEEK NAHITAEZ BETETZEKOAK IZAN BEHAR DUTE

**11. 101.** Gure X. Kongresuan genion legez, zeharo aldarazi behar da egungo globalizazioaren bidea. Oinarrizko gauza dirudi eskatzea Giza Eskubideen Deklarazioan zein ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-eskubideen adierazpenean (EGKIE) jasotakoak bete eta betearaz daitezten, baina, egia esan, horiek betetzea zinez iraultzailea litzateke. Izan ere, eskubide horiek guztiak asmo adierazpen hutsak dira, eta ez da nazioarteko instituzio, erakunde edo auzitegirik, horiek bete daitezten eskatzera joan daitekeenik. Oroitarazi behar da, bidenabar, herrien autodeterminazio eskubidea ere sartzen dela eskubide horietan.

## B) EUROPA SOZIALA ETA HERRIENA

**11. 102.** Berresten dugu Europa soziala eta herriena nahi dugula, eskubide sozialetan aberatsa, lehen helburutzat herritarren ongizatea izango duena, horixe baita europar identitatea sendotzeko ezinbesteko oinarria. Prozesu oso horrek hauxe izan behar du xede: bakean, demokrazian, justizia sozialean, oinarrizko eskubideetan, askatasunean eta EGKIEetan oinarritutako Europako Batasuna sortzea.

**11. 103.** Europako Batasuna eraikitzeke moduari egiten diogun kritikak eraiki behar litzatekeen beste Europa hori proposatzera garamatza:

**11. 104.** – Taxuzko enplegua sortuko lukeen politika ekonomiko eta monetarioa. Enpleguaren eta horren kalitatearen mailak nahitaez bete beharreko irizpideak lirateke, eta, horretarako, funtsezko aldaketa behar du Egonkortasun Itunak.

**11. 105.** – Babes sozial maila gutxieneko bat ezartzea, eta baita zerga presio minimo bat ere (bai orokorrean, bai zerga bakoitzean).

**11. 106.** – Zerbitzu publikoak bermatzea, pertsonen bizimoduari eragiten dioten esparru guztietan.

**11. 107.** – Herritarren eskubideak ezartzea, eta horrek ekarriko luke toki batean bizi diren lagun guztiek eskubide berak izatea, lagun horien jatorria, sexua edo erlijioa gorabehera.

**11. 108.** – Herrien eskubideak aintzat hartzea: autodeterminazioa, kultur eskubideak, hizkuntza eskubideak etab.

## C) NAZIOARTEKO ERAKUNDE SINDIKALAK

**11. 109.** Nazioarteko sindikalismoak behar duen maila agertu behar du, eta dagokion erantzuna eman behar du aztertu dugun testuinguru gaizto horretan. Kontrabotere sindikalismoa eraikitzeak antolamendu eraginkorra, ordezkaritza zabala, bitarteko onak eta egitura sendoa es-

katzen ditu, baita nazioarte mailan ere. Horrela bakarrik babestu ahal izango dira langileen eskubideak mundu mailan.

**11. 110.** Nazioarteko sindikalismo horrek sistemaren laguntzaile izatea edo aurre egitea aukeratu beharko du. Aurre egitea aukeratzen bada, bere indar-erlazioa hobetzen saiatu behar du, eta helburu berak dituztenekin elkartu. Hartara, aliantzen politika lehen mailako urrats estrategiko bilakatzen da. Seguru asko, une historikoan gaude nazioarteko batasun sindikal bat sortzeko, lehen esan dugun bezala. ELAk bide horretatik jo behar du bete-betean, uste baitugu indarturik gertatuko dela horrela nazioarteko sindikalismoa.

#### **D) FOROAK EGOKITU BEHARRA**

**11. 111.** Gizarte mugimendu desberdinen dinamika, Gizarte Foroetan eta mobilizazioetan gauzatzen dena, sendotu egin behar da. Ongi irizten diogu orain arte egindako bideari, baina ez dugu haatik baztertzen zenbait alderdi hobetzearen premia.

**11. 112.** Lehenengo eta behin, iruditzen zaigu Munduko Gizarte Foroak dinamika irekiago eta parte-hartzaileagoa izan behar duela, Europako Gizarte Foroaren antzekoagoa. Proposamenak egiteko aukera eskaini behar da hor, eta Foroaren antolamenduaren erabakietan parte hartzeko modua, halaber.

**11. 113.** Bigarren, esan behar da Foroen egungo dinamika dela eta, horiek prestatzera eta horietan parte hartzera zuzentzen dela dagoen energiaren zati handi bat. Berrikusi egin behar litzateke alderdi hori, eta horrentzat konponbide on bat aurkitu gero, munduko eta kontinenteetako foroek atxikimenduak jasotzen jarrai dezaten, eta ez dezaten gal indarririk.

**11. 114.** Mobilizazioena daiteke, beharbada, alderdirik garrantzitsuenena. Foroekin batera egiten diren mugimendu batzarrak formula egokia da. Hala ere, iruditzen zaigu gero eta erakunde gehiagok egon behar duela sareetan, eta sare horiek antolatu eta mobilizatu egin behar dutela, eta ez soilik Foroaren inguruan. Gizarte mugimenduak politikoki eraginkor izan behar du, proposamenak eta mobilizazioak egiteko gaitasuna handitzen duela. Tokian bertan antolamendu indartsu eta koordinatu bat edukiz gero bakarrik indar daitezke dinamika globalak.

#### **E) ELAREN NAZIOARTEKO EKINTZA**

**11. 115.** Ahaleginak egiten jarraituko dugu, aurrerantzean ere, nazioarteko sindikalismoak euskal errealitate politiko eta sindikala ezagut dezan.

**11. 116.** Presentzia indartsua izan dezakegu parte hartzen dugun nazioarteko erakunde desberdinetan, eta geure ikuspegiak eta geure esperientzia agertuko ditugu haietan, eta geure kritikak ere bai, gehien kezkatzen gaituzten gaietan.

**11. 117.** Alde biko harremanen alorrean, harremanak lantzen jarraituko dugu, gai batzuk gurekin partekatzen dituztenekin, zehazki gai hauek:

**11. 118.** – nazio auzia (Saharak, Palestinak, Quebecek, Eskoziak... partekatzen dute hori gurekin)

[ Seguru asko, une historikoan gaude nazioarteko batasun sindikal bat sortzeko, ELAk bide horretatik jo behar du bete-betean, uste baitugu indarturik gertatuko dela horrela nazioarteko sindikalismoa. ]

[ Gizarte mugimenduak politikoki eraginkor izan behar du, proposamenak eta mobilizazioak egiteko gaitasuna handitzen duela. Tokian bertan antolamendu indartsu eta koordinatu bat edukiz gero bakarrik indar daitezke dinamika globalak. ]



[ Estatuturik gabeko herrietako sindikatuen topaketak antolatzen jarraituko dugu, orain arte antolatu ditugunen antzekoak. ]

[ Gizarte Foroiei edo Emakumeen Mundu Martxari dagokienez, ELA era aktiboan arituko da horietan aurrerantzean ere, nazioarte mailan ere aliantza sozial plural eta iraunkorra sor dadin interesa baitugu guk ere. ]

**11. 119.** – eredu sindikala (errebindikazio eta kontrabotere erakoa)

**11. 120.** – eta, beste maila batean, esparru geografikoa (Europa dugu gertueneko ingurunea)

**11. 121.** Horregatik, estatuturik gabeko herrietako sindikatuen topaketak antolatzen jarraituko dugu, orain arte antolatu ditugunen antzekoak.

**11. 122.** Gizarte Foroiei edo Emakumeen Mundu Martxari dagokienez, ELA era aktiboan arituko da horietan aurrerantzean ere, nazioarte mailan ere aliantza sozial plural eta iraunkorra sor dadin interesa baitugu guk ere. Ildo horretan, parte hartzen jarraituko dugu batetik, eta, bestetik, eskatuko dugu, nazioarteko erakunde sindikaletan, etengabe inplikatu behar dela Foroietan eta giten ari diren mobilizazio guztietan.

**11. 123.** Fase berri bat hasten da XI. Kongresutik aurrera, kongresu arteko aldiak izan diren antolamendu aldaketan ondoren (2003ko Ohiz Kanpoko Kongresuan burutu ziren aldaketa horiek). Hasten den fase berri honetan, bere federazio profesionalen nazioarteko presentzia ere indartu nahi du ELAk.

**11. 124.** ELAko federazio profesionalak Nazioarteko Idazkaritza Profesionaletan (NIP) eta Europako Federazio Profesionaletan (EFP) daude afiliaturik eratu zirenetik. Federazioaren zuzendaritza taldeko lagun bat federazioaren nazioarteko harremanen arduradun izendatzeak zera ekarriko du, federazioek ere presentzia eta parte-hartze handiagoa izatea zeinek bere nazioarteko eta Europako erakundeetan, beti ere konfederazioaren nazioarteko politikarekin koordinaturik.

**11. 125.** Nazioarteko lankidetzak indartzen jarraituko dugu datozen urteetan ere, GARAPENAREN bidez, eta betiko bokazioa izango dugu: gure nazioarteko harremanak indartzea, eta munduko beste toki batzuetako (eta oso bestelako ezaugarriak dituzten) sindikatuekiko loturak estutzea.



# 12.

## NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA INDARTU ENPRESETAN ETA SEKTORETAN

**12. 101.** Honako hauek dira, beharbada, hurrengo kongresu arteko aldirako erronka nagusiak: batetik, langileak motibatuzeko, langileak mobilizatzeko eta gatazkak konpontzeko faktore nagusi edukiak bihurtzea; bigarren, alternatibak eraikitzea, sektoreak eta lan zentroak dialektikoki konbinatuz; hirugarren, afiliazioaren protagonismoa eta parte-hartzea handitzea, negoziazio kolektiboaren prozesu osoan, eta, laugarren, herriak eta eskualdeak partaide egitea gatazkan, jendea eta iritzi publikoa irabazten direla ahal den guztietan.

### A) EZEGONKORTASUNA ETA DISKRIMINAZIOA EKINTZA SINDIKALAREN MUINEAN

**12. 102.** Errebindikazio edukiak ongi zehaztea funtsezkoa da negoziazio kolektiboan. Konfederazioari eta federazioei dagokie, alde batetik, beren asmoen eta helburuen agenda adieraztea eta helaraztea, ipar estrategikoa ongi zehaztea. Baina sektore bakoitzeko eta enpresa bakoitzeko afiliatuen eta militanteen gain da errebindikazio agenda zehatza definitzea, oinak lurrean dituztela. Konfederazioaren aukera orokorrekin koherentea den baina dagokion alorrean ongi kokatua dagoen errebindikazio agenda zehatz horrek langileen atxikimendua eta gogoa piztu behar ditu negoziazio prozesuan. Errebindikazio edukiak zehazteko, berriz, oso lagungarri gertatzen dira kontsulta mekanismo zehatzak, etengabeko eztabaida eta prestakuntza. Horregatik, jadanik negoziazio kolektiboaren prestaketako lehen fase horretan bertan da beharrezkoa federazioek, eskualde integralek eta alor konfederalek (negoziazio kolektiboa, prestakuntza...) parte hartzea.

**12. 103.** Ponentzia osoan esaten ari garenarekin bat, gure Konfederazioak ondoko hauek dauzka lehentasunezko helburu:

**12. 104.** Diskriminazioaren eta haren agerpenen aurka borrokatzea, haiek edozein jatorritakoak (sexu, adin, etnia, sexu joera, minusbalotasun...) direla ere. Zehazkiago, gogor aritu behar dugu lan bera egiten duten langileei lan baldintza desberdinak dakarzkieten faktore edo fenomenoek aurka, eta, aitzitik, baztertutako edo diskriminatutako multzoetako pertsonak besteen baldintza beretan kontrata ditzaten erraztu behar dugu.

**12. 105.** Ezegonkortasunaren aurka borrokatzea: mugagabeko kontratuak izan behar du ohiko kontratu. Hona beste ideia batzuk: behin behineko kontratuak betiko izan daitezzen eskatzea; atal sindikalek aldi baterako kontratuak gertutik jarraitu eta zaintzea, arauhausterik gertatzen den ikusteko; muga zorrotzak ezartzea aldi baterako kontratazioari; ezkutuko ekonomia eta gezurrezko autonomoak kentzea; ABLEak baztertzea; lanaldi partzialeko kontratuari (ia beti ezarria) aurka egitea...

[ Baina sektore bakoitzeko eta enpresa bakoitzeko afiliatuen eta militanteen gain da errebindikazio agenda zehatza definitzea, oinak lurrean dituztela.

Konfederazioaren aukera orokorrekin koherentea den baina dagokion alorrean ongi kokatua dagoen errebindikazio agenda zehatz horrek langileen atxikimendua eta gogoa piztu behar ditu negoziazio prozesuan. ]

[ Enpresariaren ohiko  
"azken eskaintza"  
datorrenean, haren  
edukiak eta ezarri ditugun  
helburuak aztertuz eta  
konparatuz onartu edo  
baztertu behar da hura. ]

[ Sektorre esparruan bi  
eredu sindikalak elkarren  
aurka izateak eragotzi  
egiten du egiazko indar  
batura. Negoziazioa  
prozesu bakar batean  
biltzea abantaila zaio  
enpresariari, bai baitaki  
eredu sindikaletako bat  
berarekin bat datorrela. ]

**12. 106.** Azpikontratatzeeen eta pribatizatzeen aurka: enpresen segregazioei eta horien ordean enpresa azpikontratatuak jartzeari uko egitea; lan baldintzak berdintzea azpikontratatuak enpresetako langileen eta enpresa nagusietako artean; segregazioa desegitea eta lana segurtatzea enpresa nagusietan.

**12. 107.** Malgutasunaren gaian, bidezko oreka bat behar da bizi-tzako eta laneko egoeren artean, edozein diskriminazio mota bazter-tzen dela. Uko egin behar diogu malgutasuna orokortzeari, eta lan egutegia atxiki behar dugu erreferentziatzat. Onartzekotan, produkzioak ezinbesteko egiten duelako izan behar du, eta inoiz ez du gu-txieneko bidezkoaren alternatiba izan behar.

**12. 108.** Segurtasuna eta lan osasuna ekintza sindikalaren barruan sartu behar dira, beharrezko kontrol eta jarraipen mekanismoak bermatuz bi gai horietan.

**12. 109.** Eros-ahalmena handitzea: soldata igoerak azken urteeta-ko joera aldatzeko xedez zehaztu behar dira, joera hori kapitalaren aldekoa izan baita aspaldian, diagnostikoan argitu dugunez. Jarrera bizkorragoa hartu behar da, beraz.

**12. 110.** 35 orduko lan astea, aparteko orduak kentzea eta lan denbora laburtzetik kontratazio berriak etortzea lehentasunezko helburu dira oraindik Euskal Herriko sektore pribatuan, orain urte batzuk egin baitziren horiei buruzko akordioak sektore publikoan.

**12. 111.** Eduki horiek, nahiz beren esparruetatik zehaztuko diren beste batzuek, gogoz mobilizatzeraz eta lan hitzarmenaren defentsa egitera eraman behar dituzte langileak, ondo bidean. Eta gogor eutsi behar zaie eduki horiei negoziazio prozesuaren azken txanpan ere: enpresariaren ohiko "azken eskaintza" datorrenean, haren edukiak eta ezarri ditugun helburuak aztertuz eta konparatuz onartu edo baztertu behar da hura. Ez dugu zertan sinaturik nahikoa iruditzen ez zaiguna, zeren ez baitiugu deus zor adostasun sozial oinarritzkoa (enplegua eta ongizatea) zeharo eta ondorio guztiekin hautsi duen enpresari klaseari. Egia da zail izango dela ekintza sindikal egokia egitea, baina etsipena edo edozein moduz sinatzea ez dira irtenbide. Beste indar-erlazio bat iristen ahalegindu behar da, horixe baita gure egiazko eginbeharra.

## B) ALTERNATIBAK ERAIKI, ENPRESETAN ETA SEKTORETAN KONBINATUZ EKINTZA

**12. 112.** Esparruen gaineko eztabaidak kontuan izan behar ditu indar-harremanen eta alternatiben egoerak. Sektore bakoitzean lan egin behar da hura artikulatzen, edukiak direla beti erdigune. Esparruen analisia ez da, bada, autonomoa; ez digu balio esparru horietaz hausnarketa abstraktua egitea, errebindikazio edukien edo horiek iristeko behar diren indar-harremanen azterketa egin gabe.

**12. 113.** Alde batetik, sektore esparruan bi eredu sindikalak elkarren aurka izateak eragotzi egiten du egiazko indar batura. Negoziazioa prozesu bakar batean biltzea abantaila zaio enpresariari, bai baitaki eredu sindikaletako bat berarekin bat datorrela. Gainera, enpresen tamainek, egoera ekonomiko desberdinek, are hedatze dinamika desberdinen pean diren produktu motek, guztiek eragiten dute negoziazio eta presio dinamikan.



**12. 114.** Horrek esparruak konbinatzeko eta aldi berean lantzeko premia dakarkigu. Esparruak konbinatzea erabakitzen den sektoreetan, arreta berezia eskaini behar diegu beren izaeragatik (afiliazioa, tentsio sindikala...) negoziazio osoa egiten uzten duten enpresei, enpresen esparruan negoziatzen diren gaiak baino gehiago sartuz. Oso ohitura hedatua izan da enpresako negoziazioa gai urri batzuetara mugatzea (soldata eta ezer gutxi gehiago), negoziatu beharreko gai gehienak sektorerako gelditzen direla. Ezegonkortasunaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko ez ezik, oso toki egokia dugu enpresa enpleguaren kalitatearekin nahiz lan segurtasunarekin lotutako gaiei heltzeko.

**12. 115.** Ez da kontraesanik enpresaren eta sektorearen artean. Enpresan egiten den aurrerakadak, bai antolamenduan bai edukietan, bere isla izango du epe ertainean sektoreko negoziazio dinamiketan.

**12. 116.** Bestalde, indartu egin behar dugu sektore egitura ere, zeren beti izango baitira langile ugari enpresako hitzarmenik izateko aukerarik ez dutenak, eta, beraz, sektorekoaren mende, gaur-gaurkoz ez baitugu beste negoziazio aukerarik. Sektoreko negoziazioan, lan sistema hobetu behar dugu, nahiz eta jakin esparru sektorialaren konfigurazioaz deskribatu ditugun zailtasun guztiak ditugula aurrean. Horrek ez gaitu eraman behar, ez etsipenera, ez sektore hitzarmenetan edukiak jaistera, eta benetan ditugun aukerei egin behar diegu kasu.

**12. 117.** Euskal Herrian negoziatutako hitzarmen kolektiborik ez dugun sektoretan, geure negoziazio egitura lantzea da gure apustua, eta, hor ere, beharrezko eta egoki baldin bada, esparruak eta sektoreak konbinatuko ditugu.

**12. 118.** Iruditzen zaigu gure planteamendu orokorrak berdin balio duela sektore publikorako ere. Antolamendu ezaugarrietan kontzeptu diferentziak ageri dira (hor, ez da erraza jakitea, esate baterako, zer den sektorea eta zer den enpresa), baina lan ildoek berak izan behar dute: indar-erlazio hobea dugun esparruetan kokatu beti negoziazioa.

**12. 119.** Azken finean, azaldu dugun planteamendu orokorrak negoziazio kolektiboaren egitura eta esparru guztiak hartzen ditu. Aipamen berezia egin zaie beren jardueraren antolamenduaren egitura bereziagatik esparruen alternatiba objektiboki zailtzen duten sektoreei. Sektoreetara mugatutako ekintza sindikalak esparru horretan kontzentratzen du planteamendu osoa, eta sektorearen zuzendaritza afiliatuen parte-hartzeaz integratuz eta hobetuz behar du egin planteamendu hori.

### **C) MILITANTEEN ETA AFILIATUEN ANTOLAMENDUA ETA PARTE-HARTZEA**

**12. 120.** Azken urteetan, antolamendu planak gauzatu dira, federazio profesionalak beste era batera artikulatu dira, etab. Faktore horiek guztiek urrats garrantzitsuak eginarazi behar dizkigute negoziazio kolektiboaren antolamenduan.

**12. 121.** Lehen urratsa, Ponentzian antolamenduari buruzko ataletan diogun bezala, militanteen eta afiliatuen parte-hartze handiagoa izango da; parte-hartze handiagoa, bai bizitza sindikalaren alderdi guztietan, bai (bereziki) negoziazio kolektiboan. Ez dugu hori atal honetan errepikatuko; baina argi gera bedi negoziazioak eragindako inor ez duela plattformak zehaztu, presio ekintzak asmatu eta gatazka bera konpontzen parte hartu gabe geratu behar.

[ Ez da kontraesanik enpresaren eta sektorearen artean. Enpresan egiten den aurrerakadak, bai antolamenduan bai edukietan, bere isla izango du epe ertainean sektoreko negoziazio dinamiketan. ]

[ Militanteen eta afiliatuen parte-hartze handiagoa izango da; parte-hartze handiagoa, bai bizitza sindikalaren alderdi guztietan, bai (bereziki) negoziazio kolektiboan. ]

[ Azken urteetan izandako gatazkek erakutsi digute, baita ere, oso komenigarria dela gatazkek sozializatzea, enpresa horiek dauden herrietako eta eskualdeetako herritarrak ere borrokan partaide egitea. ]

**12. 122.** Era horretako parte-hartze borondate indartsuak ez du eskatzen soilik beste aitzindaritza jarduera mota bat (sindikatu ataletatik sindikatuaren arduradunetaraino), baizik eta beste gauza garrantzitsuago bat oraindik. Klase posizio sendo eta indartsu bat landu behar da sindikatuko militante bakoitzarengan. Militante horrek sentitu behar du ordezkatzeko dituen langileengandik datorkiola zilegitasuna, eta ez beste batzuek egin diezaioketen aitormen edo laudoriotik.

#### D) ALIANTZA POLITIKA

**12. 123.** Esana dugu, jadanik, negoziazio kolektiboari buruzko benetako eztabaida, hemen eta Europan osoan, eredu sindikalari eta errebindikazio borondateari buruzko eztabaida dela. Iruditzen zaigu horixe bera dela eztabaida aliantzen mailan ere, hau da, zeinu bereko eredu sindikalak eta errebindikazio borondateak elkar daitezke, eta eredu eta borondate desberdinak, ez.

**12. 124.** Bistakoa da aliantzak bestela edo diferenteki kudeatzen direla sektore mailan eta enpresan. Sektore mailan gauzak argiagoak izaten dira enpresan baino, enpresan ñabardura gehiago, errealitate heterogeneoagoak eta are aberatsagoak aurkitzen baititugu beti. Baina indarrak batzeko, irizpide berak behar ditugu eta behar dira, zorrozki, beti: edukiak, borrokarako jarrera, indar sindikala dagoen esparruak, jendearen parte-hartzea... Esana dugu jadanik, zuzen nahiz zeharka, ez dugula bilatuko sigla asko elkartzea, sindikatu horiek ez badituzte helburu eta jarduera irizpide berak.

#### E) GATAZKAK SOZIALIZATU

**12. 125.** Azken urteetan izandako gatazkek erakutsi digute, baita ere, oso komenigarria dela gatazkek sozializatzea, enpresa horiek dauden herrietako eta eskualdeetako herritarrak ere borrokan partaide egitea. Botere ekonomikoak eta politikoak horixe bera egiten dute: eskura ditzuten tresna ahaltsuak erabiliz, maltzurki, gatazken aurka, desordenaren aurka, eta bake sozialaren alde ipintzen dute iritzi publikoa. Guk modu berean erantzun behar diegu.

**12. 126.** Gure erakundeak badu sare zabal bat (militanteak, afiliatuak, enpresetako ordezkariak...), eta, gatazka jakin batzuetan, martxan jar daiteke, informazioa zabaltzeko eta elkartasuna bilatzeko: ez dute iritzi publikoa bakarrik irabazi behar, baizik eta baita beren izaera edo asmo aurrerakoiengatik gurekin bat egin dezaketen herritarren eta taldeen elkartasuna ere.



# 13.

## JAUZI BAT EGIN GIZARTE EREDUAREN AUZIAN

**13. 101.** Datozen urteetan, gizarte ereduaren (politika sozialak, zergak, pribatizatzeak...) inguruko ekintza sindikalean sakontzea dugu erronka nagusietako bat.

### A) GURE MILITANTZIA MILITANTZIA OSO BIHURTU

**13. 102.** Komunikabide nagusietatik (publiko zein pribatu) jasotzen diren mezuek diote, behin eta berriz, "guztia ongi doala", gizarte ereduari dagokionez. Errealitatea oso bestelakoa dela salatzea dagokigu guri, beraz. Baina ez da aski salatzeko huts hori. Geure helburuak iritsiko baditugu, kontzientziatze lan bat egin behar dugu gertatzen ari denaz, etengabe, erakundearen maila guztietan.

**13. 103.** Mobilizazioen bidez bakarrik izango gara gai erakundeek ezartzen dituzten politika neoliberalak aldarazteko. Horregatik, ELAko militante guztiek militantzia aktiboa izan behar dute erakundeen politika neoliberalen aurka, eta eskubide sozialen alde ere. Militantzia osoa behar dugu; militantzia hori ez dadila izan era batekoa enpresan, eta bestelakoa, gizartean.

**13. 104.** Helburu horiek iristeko, hauek behar dira:

**13. 105.** – Etengabe aztertzea politika publikoak sindikatuaren organo eta egitura guztietan.

**13. 106.** – Orain arte baino era sistematikoagoan sartzea gizarte ereduaren prestakuntza sindikalean.

### B) ALIANTZAK BILATZEA

**13. 107.** Gizarte ereduaren gaian egin nahi den ekintza sindikalak bi planotan sakontzea eskatzen du, gainera: ekintzazko batasun sindikalean, batetik, eta beste gizarte erakunde batzuekin batera egin beharreko lanean, bestetik. Lan sistematikoago eta iraunkorragoa egin behar dugu bietan ere, gai honetan.

### C) PROPOSAMENEN AIPAMEN LABUR BAT

**13. 108.** Azken urteetan, proposamen ugari egin dugu gai sozial desberdinetan. Ez goaz denak banan-banan aipatzera orain, eta are gutxiago haiek sakonki azaltzera, baina alderdi garrantzitsu batzuk nabarmendu nahi ditugu, hemen, gutxienez:

#### \* *Enplegua eta lan baldintzak*

**13. 109.** Negoziazio kolektiboaren alorrean, datozen urteetan gai horietan landu behar ditugun errebindikazio ildoak aipatzen ditugu. Ildo horiekin batera, beharrezko ikusten ditugu beste hauek:

[ Mobilizazioen bidez bakarrik izango gara gai erakundeek ezartzen dituzten politika neoliberalak aldarazteko. Horregatik, ELAko militante guztiek militantzia aktiboa izan behar dute erakundeen politika neoliberalen aurka, eta eskubide sozialen alde ere. ]

[ ELAk zuzendu behar du LAGS duin baten aldeko borroka. Kausa zuzena da hori, eta ELAk badu zer esanik egoera kaskarrean ari diren langile multzoen bizi eta lan baldintzak hobetzeko. ]

**13. 110.** – Enplegua sortzeko politika publikoak. Enplegua gehitu den arren, langabezia Europako Batasuneko mailetan dago oraindik. Denentzako enplegua helburu ona da oraindik, baina hura iristeko zenbait neurri behar dira: asteko lanaldia 35 ordura jaitea, legez; erakunde publikoek Ikerketa eta Garapena bultzatzea, gutxienez Europako Batasuneko maila iritsi arte; egoera sozialik okerrean daudenen eros-ahalmena hobetzea, etab.

**13. 111.** – Lan-ezegonkortasunaren aurkako politikak. Administrazio publikoek berek bultzatu dituzte behin-behineko lana, denbora partzialeko lana, azpikontratatzea eta pribatizatzea, lan malgutasuna... Legeak eta jokabideak aldatu behar dituzte administrazioek gai horietan. Lan-ezegonkortasun bide guztiak gutxitu edo kendu behar dira lehenbailehen, eta kontuan izan behar da bide horiek batez ere emakumei eta gazteei eragiten dietela.

**13. 112.** – Ekintza sindikal konfederala. Lanaldia laburtzearen edo soldata baldintzak duintzearen aldeko kanpaina eta mobilizazio sindikalek eta sozialek eginkizun garrantzitsua izan behar dute datozen urteetan. Bere garaian, 35 orduko lan-astearen aldeko kanpaina iraunkorra egin genuen. Miseriazko eta esplotaziozko soldatak jasotzen ari diren pertsonena dugu beste jarduera esparru bat. Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata oso apala da, eta, horregatik, zenbait hitzarmenetako soldata apalenak oso gertu dauden maila horretatik. Lana duten multzo handi jakin batzuek (emakumeak, gazteak, etorkinak) oso lan baldintza kaskarrak dituzte: lan-ezegonkortasun handia, batetik, eta soldata oso apalak, aldi berean. ELAkook soldata duinak (800 euro gutxienez, ponentzia honetan aipatutako Karta Sozialaren arabera) erraztuko dituen LAGSa eskatzen dugu. Lan alorreko legeak egiteko eskumena ez dugun bitartean, ELAk zuzendu behar du LAGS duin baten aldeko borroka. Kausa zuzena da hori, eta ELAk badu zer esanik egoera kaskarrean ari diren langile multzoen bizi eta lan baldintzak hobetzeko. Maiz, egoera horretan daudenek ezin dute beren kasa egin borroka hori. Bide horretan, beharrezkoak da hausnarketa eta proposamen/eskari bat egitea enpresari-klaseari, helburu hori iristeko behar diren kanpainei ekitea, egoki ikusten diren mobilizazioak egitea.

#### \* *Zergak*

**13. 113.** Zergen esparruan, honako eskari hauek egiten dizkie ELAk foru aldundiei eta Nafarroako Gobernuari:

**13. 114.** – Informazio gardena. Jarrera aldaketa behar da euskal ogasunen aldetik, zeren ezkutukeria baita nagusi orain.

**13. 115.** – Zerga iruzurraren aurkako borroka. Giza bitartekoak eta bitarteko teknikoak handitu behar dira ikuskaritzarako. Errentak lanetik ez dituzten multzoen %33 ikuskatu behar dute, gutxienez, urtero, administrazioek.

**13. 116.** – Zerga politika aurrerakoia. Alor horretan, beharrezkoa da zerga nagusiak aldatzea. PFEZean, tarifaren gehikortasuna handitu behar da (aldaketen aurreko egoeretara itzuli); tratamendu bera eman behar zaie errenta guztiei, edozein jatorri dutela ere (hau da, multzo eta errenta guztiek beren benetako sarrerengatik ordain dezatela eta ezar diezaietela zergaren tarifa), eta Borondatezko Gizarte

Aurreikuspeneko Erakundeei (BGAE) ez diezaietela eman pentsioei baino zerga tratamendu hobea (eta, aldi berean, muga dezente apalagoak ezar daitezela kenkarientzat, Europako Batasuneko beste leku batzuetakoan antzera). Sozietateen gaineko Zergan, handitu egin behar da tasa aplikagarria, eta gutxitu egin behar dira, erabat, kenkarien aukerak, horiek guztiz apalagoa egiten baitute zergaren benetako tarifa.

#### \* **Eskubide sozialak**

**13. 117.** Ezartzen diren politika sozialak borondate politikoaren mende daude. Egoera ekonomiko ona dugu horiek ezartzeko. Indar-erlazioen, gizarte eskariaren eta joko politikoaren kontua da dena. Errotik aldatu behar dira politika sozialak.

**13. 118.** Gizarte bidezkoago eta solidarioago bat defendatzen dugunon eginbeharra, alor horretan, hauxe da: gizarte mugimendu indartsu bat sortu behar dugu, pertsona guztiak bizimodu duin, autonomo eta egokia izatearen alde. Bidezkoa, beharrezkoa eta egingarria da hori. Horretarako, honako hauek behar dira politika sozialetan:

**13. 119.** – Prestazio ekonomiko klasikoak (langabezia, pentsioak...) hobetzea. Gai horietaz, berresten dugu lanik gabe dauden pertsona guztiak behar besteko diru-sarrera izan behar dutela, bizimodu duin bat egiteko. Beste alde batetik, berriz, Toledoko Itunaren aldaketen ondorioz etengabe gertatzen ari diren pentsio berrien murrizketen aurka gaude zeharo. Datozen urteetarako, badago jadanik akordio politikoa bat (PSOE, PP, EAJ, CiU...) bide horretatik beretik jarraitzeko, eta ELAK gogor erantzun beharko dio horri.

**13. 120.** – Etxebizitza duina izateko eskubidea errespetatzea. Euskal administrazioek etxebizitza duin bat edukitzea bermatu behar diete pertsona guztiei. Horretarako, gutxienez 20.000 etxebizitza babes ofizialeko edo sozial eskaini behar dira urtero, batez ere alokatzeko. Etxebizitza babes ofizialeko edo sozial guztiak etxebizitza publiko iraun behar dute beti. Neurri batzuk (zerga handiak, alokatzeko bermea...) hartu behar dira, etxebizitza hutsak bete daitezela. Bestalde, beharrezkoa da lur kalifikatua arin kudeatzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da administrazioaren parte-hartze zuzen eta bizkorra. Lurraren espekulazioa (udal lurrena barne) eten beharra dago.

**13. 121.** – Osasun prestazioak eta osasun gastu publikoa gehitzea. Osasun sistema publikoan sartu behar dira zenbait zerbitzu gaur sartu gabe dauden edo gaizki sartuta daudenak (dentista, ikusmena, osasun mentala...). Era berean, ohe gehiago ipini behar da ospitale publikoetan. BPGtik osasun publikoan gastatzen denak Europako Batasuneko mailara heldu behar du.

**13. 122.** – 0 eta 3 urte arteko zikloa sartzeko eta hezkuntzako gastu publikoa handitzea. Hezkuntza sistemako beste edozein bezala sartu behar litzateke 0 eta 3 urte arteko zikloa, eskatzaile guztientzat lekuak 3 urtetik gorakoentzat bezalaxe bermatzen direlarik, eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak bermatuta. Ildo beretik, EBko maila iritsi arte handitu behar da hezkuntzako gastu publikoa.

**13. 123.** – Pobreziaren mailatik gorako oinarritzko errenta bat bermatzea eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) eskubide izan daitezela. Oinarritzko errenta, bere garaian ELAK, LABek, ESKk eta

[ Lanik gabe dauden pertsona guztiak behar besteko diru-sarrera izan behar dutela, bizimodu duin bat egiteko. ]

[ Euskal administrazioek etxebizitza duin bat edukitzea bermatu behar diete pertsona guztiei. ]

[ Hezkuntza sistemako beste edozein bezala sartu behar litzateke 0 eta 3 urte arteko zikloa, eskatzaile guztientzat lekuak 3 urtetik gorakoentzat bezalaxe bermatzen direlarik, eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak bermatuta. ]



[ Oinarrizko errenta, bere garaian ELAk, LABek, ESKk eta STEE-EILASEk egin genuen proposamenaren ildotik, berehala onartu beharreko gutxienekoa da. ]

STEE-EILASEk egin genuen proposamenaren ildotik, berehala onartu beharreko gutxienekoa da. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak pertsonen eskubidetzat jo behar dira, aurrekontu jakin bat izan edo ez. Aurrekontu arazoak ezin dira aldatu premia larriak jasaten dituzten pertsonengana.

**13. 124.** – Pertsonentzako arreta zerbitzuak (etxez etxeko laguntza, egoitzak, minusbaliotasunak...) bermatzea pertsona guztiei. Horretarako, legez ezarri behar dira eskubide horiek, eta ziurtatu egin behar da administrazioek beteko dituztela gero, hau da, zerbitzu sozial publiko onak, egokiak eta kalitatezkoak izango direla.

**13. 125.** – Azpiegitura politika sozialki, ekonomikoki eta ingurumen aldetik egokia garatzea. Azpiegituren plan oso bat egin behar da, maila guztietan (errepideak, trenbide sarea, portuak, aireportuak) diren premia sozialak, ekonomikoak eta ingurumenezkoak aintzat hartuko dituena. Beraz, baztertu egin behar da egungo politika, ez baitu koordinaziorik, eta ez baititu errespetatzen premia sozialak eta ingurumenezkoak.

**13. 126.** – Ingurumen irizpideak erabili beti zeharka, eta errotik konpondu problemak. Erakundeek gogoan izan behar dute beti ingurumenaren alderdia, hartzen dituzten erabaki guztietan. Irtenbide globalak asmatu behar dituzte egun ditugun ingurumen arazoentzat, eta horrek esan nahi du orain artekoen oso bestelako politikak erabili beharko dituztela garraioaren, errausketaren, energia produkzioaren eta abarren esparruetan.



# 14.

## EUSKAL HERRIA: GATAZKA POLITIKOA ETA NAZIO ERAIKUNTZA

### A) ELAREN KONPROMISO POLITIKOAREN IZAERA

**14. 101.** Datorren lau urtean sindikatuak izango dituen lan ildoak eta lehentasunak ezarri aurretik, garbi zehaztu behar da ELAren konpromiso politikoaren izaera, gure sindikatuak subiranotasunaren aldeko prozesuan parte hartzen duela. Auzitan ere jartzen da inoiz konpromiso horren zilegitasuna, batez ere konpromiso horren agerpenek dagokion botere politikoa mintzen dutenean.

#### \* *Nazio konpromisoa*

**14. 102.** Nazio errebindikazioa hor egon da beti ELAren ibilbidean, sindikatua sortu zenetik beretik. Norbere nazio nortasunari nola edo hala uko egiteko eskatzen zuten erakunde sindikalen aurrean, gure proiektuak nortasun hori geure gauza bat bezala sartzea erabaki zuen. Areago oraindik, herri edo nazio bat ginen kontzientzia indartzen ari zen garaian eta esparru sozialean sortu zen ELA. Orain, ia ehun urte geroago, nazio errebindikazioa hor da oraindik zoritxarrez, gure herriari ukatu egiten baitzaio bere kasa erabakitzeko eskubidea. Horrela, nazio baten garapen ekonomikorako, sozialerako eta kulturalerako funtsezkoak diren osagaiak (estatuen esparruan gogor blindatuta daudenak) ukatu egiten zaizkigu guri, edo utzi edo aitortu inoiz, estatuei zer komeni zaien, edo egoera politikoa nolakoa den. Horregatik egin behar ditu ELAk, estaturik gabeko herri bateko sindikatu den aldetik, zenbait errebindikazio eta zenbait borroka, subiranotasuna aitorturik duten herrietako sindikatuek ez bezala.

**14. 103.** Ez dugu alderdi txartzat jo behar hori. Nazio konpromisoa edo abertzaletasuna eragile indartsu ere bada, eta klase konpromisoaren aberasgarri, gainera.

#### \* *Klase ikuspegia*

**14. 104.** ELA sindikatua da, klase-erakunde bat; langileen eskubideak eta interesak defendatzen ditu, bai lan munduan, bai bizitzan oro har. Bere ekintzaren lehen gunea eta lekua lanaren mundua izateak ez du esan nahi bere zeregina hor amaitzen denik. Klase sozial desberdinen arteko interes borroka ugazabaren eta langilearen arteko borrokatik askoz harago doa, eta botere politikoen erabakiak ere klase ikuspegitik neur daitezke beren maila guztietan, zeren erabaki horiek balio jakin batzuei ematen baitiete lehentasuna, eta gizarteko multzo jakin batzuen interesei, beste balio edo interes batzuen gainetik. Bai Iraken inbasioa bezalako mundu mailako erabakiek, bai lurzoru eta etxebizitza alorreko udal politikek, bai erakunde desberdinen zerga eta aurrekontu politikek, guztiek dute klase irakurketa bat, eta sindikatuak irakurketa

[ ELAren konpromiso politikoa. Auzitan ere jartzen da inoiz konpromiso horren zilegitasuna, batez ere konpromiso horren agerpenek dagokion botere politikoa mintzen dutenean. ]

[ Nazio baten garapen ekonomikorako, sozialerako eta kulturalerako funtsezkoak diren osagaiak (estatuen esparruan gogor blindatuta daudenak) ukatu egiten zaizkigu guri, edo utzi edo aitortu inoiz, estatuei zer komeni zaien, edo egoera politikoa nolakoa den. Horregatik egin behar ditu ELAk, zenbait errebindikazio eta zenbait borroka, subiranotasuna aitorturik duten herrietako sindikatuek ez bezala. ]

[ Klase sozial desberdinen arteko interes borroka ugazabaren eta langilearen arteko borrokatik askoz harago doa. ]

[ **Botere ekonomikoek bitarteko ugari dituztela (batzuk ez hain agerikoak), behar den lekuan eragiteko, eta erabaki politikoak beren interesetara egoki daitezten. Ez dute zilegitasun demokratikorik eskatu beharrik edo agente politiko gisa agertu beharrik, erabaki politikoak alde batera edo bestera makurrarazteko, edo haiengan eragiteko. ]**

[ **Sindikatuaren izaera autonomo hori nabaritzuz gero, hots, sindikatuak ez duela inongo loturarik ezein alderdirekin nabaritzuz gero bakarrik sinetsiko du ELAko afiliazio pluralak sindikatuaren konpromiso politikoa. ]**

hori egin beharra dauka. Subiranotasunaren aldeko alternatibak berak ere klase ikuspegitik aztertu behar ditu sindikatuak.

**14. 105.** Ez da ahaztu behar, bestalde, botere ekonomikoek bitarteko ugari dituztela (batzuk ez hain agerikoak), behar den lekuan eragiteko, eta erabaki politikoak beren interesetara egoki daitezten. Ez dute zilegitasun demokratikorik eskatu beharrik edo agente politiko gisa agertu beharrik, erabaki politikoak alde batera edo bestera makurrarazteko, edo haiengan eragiteko.

**14. 106.** ELAk, afiliazioak eta lantokietako ordezkariak zabalak ematen dizkioten zilegitasunaz eta pisu sozialaz, kontrabotere politiko izaera hartu behar du batere lotsarik gabe, eta, modu sistematikoan arituz, azterketak eta kritikak egiteko, proposamen politikoak eskaintzeko eta erantzun soziala antolatzeko gaitasunak hobetu behar ditu.

#### \* **Autonomia osoa**

**14. 107.** Gure erakundearen autonomia ideologikoa, organikoa eta programatikoa gure eredu sindikalaren zutabe dira zinez. Sindikatu honek bere burua gobernatzen du, hots, berak zehazten ditu bere ekintza politikorako ildoak, errealitatearen diagnostikotik, helburuak eta estrategiak ezartzeraino. Autonomia politikoa are beharrezkoagoa da, alderdi politikoaren klasearteko izaera indartu denean.

**14. 108.** Sinetsita gaude soilik askatasun eta independentzia horretatik egin ditzakeela sindikatuak bere eskariak, balorazioak, akordioak, ukoak, aliantzak eta bat etortze edo lankidetzak. Sindikatuaren izaera autonomo hori nabaritzuz gero, hots, sindikatuak ez duela inongo loturarik ezein alderdirekin nabaritzuz gero bakarrik sinetsiko du ELAko afiliazio pluralak sindikatuaren konpromiso politikoa.

## **B) ARDATZ ESTRATEGIKOAK**

**14. 109.** Ez dagokio Kongresu honi datorren lau urterako ekintza politikoen agenda zehaztea (ezinezko gauza baita bestalde, politika egin behar dugun inguru aldakorrean), baina bai agenda horren ardatz estrategikoak ezartzea.

**14. 110.** Gure iritzian, bi faktore garrantzitsu dira hemen, gure herriko politika orokorra izugarri korapilatzen dutenak, eta oinarritzko akordio batzuk (subiranotasun prozesuak aurrera egiteko beharrezkoak) iristea galarazten dutenak:

**14. 111.** – alde batetik, mehatxuek eta indarkeriak irautea, eta batzuek, gainera, halako emaitza politikoren bat lortzearekin lotzen dute horiek amaitzea.

**14. 112.** – eta, bestetik, espazio politikoak edo erakundeetakoak eskuratzeko lehiak abertzaleentzat duen lehentasuna, kontuan izanik gainera lehia hori desitxuratuta dagoela, zenbait erakunde politiko eta hauteskunde plataforma legez kanpo ezarri zirenetik.

**14. 113.** Faktore horiek elkarrekin duten loturak ondorio garrantzitsuak ditu:

**14. 114.** – Lehenik, bere burua abertzale daukaten indarrek sekulako zailtasuna dute bigarren trantsizio bati ekiteko, lehenengoan



izan zuten banaketa eta elkar ezin ikusia gaindituta, lehenengo trantsizio horretan banaketa eta liskarra baizik ez baitute izan 25 urtez, Lizarra-Garaziko tartean izan ezik.

**14. 115.** – Esparru juridiko-politikoari buruzko eztabaiden lehen-tasunak bigarren maila batera, maila hutsal batera baztertzen du gizarte ereduaren inguruko eztabaida guztia, eta hor zaila da subiranotasunaren aldeko prozesuan pisu handia izan behar duten gizarte erakundeek protagonismo handirik izatea.

**14. 116.** Jokaleku zailak dira, edozein moduz ere, ELArentzat, eta gure sindikatuak beharrezko ikusten ditu:

**14. 117.** – Gutxieneko batzuk adostea autodeterminazio eskubideaz, hots, eskubidearen edukiak eta prozesua zehaztea, eskubide horren aldeko direnen artean.

**14. 118.** – Eduki soziala duen prozesu soberanista bat.

**14. 119.** – Gizarteak izatea protagonismoa prozesuan, eta ez inongo abangoardiak eta ez erakundeetako eliteek ere, zeren horiek beren botere interesen arabera nahi izaten baitute dosifikatu herritarren parte-hartzea.

\* ***Demokrazia sakontzen eta indarberritzen saiatu***

**14. 120.** Gorago esan dugun legez, PPren erregimenaren zortzi urteek hankaz gora bota dituzte zuzenbide estatuaren funtsezko osagaiak, eta agerian gelditu da zein ahula den Espainiako trantsizioaren oinarri demokratikoa. Espainiako gobernu berriak doinu eta era gozoagoak agertu ditu orain arte. Laster ikusiko da ea gai den, euskal auzian, irtenbideak bilatzeko, ala irabazi beharreko gerra baten aurrean bezala jokatzen duen.

**14. 121.** Beraz, eskatu behar da oinarri sendoetan berreraiki dadila sistema demokratikoa: eten egin behar dira Estatuak pertsonen eta taldeen eskubideen aurka egiten dituen erasoak, eta berehala berrezarri behar dira beste funtsezko eskubide batzuk ere: parte-hartze politikorako eskubidea eta gauzak libre adierazteko askatasuna, besteak beste.

**14. 122.** Euskal subiranotasunari gagozkiola, proiektu politiko guztiek aukera berdintasun bera izatea eskatu behar dugu lehen-lehenik.

**14. 123.** Espainiako trantsizioa hautsi-mautsi edo tratu batean oinarritu zen, eta haren ondorioak geroago nabarmendu dira: erregimen demokratiko formal bat ezartzearen eta hartan parte hartzearen truke, indar demokratikoei (eta, horien artean, euskal nazionalismoak) zeharo onartu behar izan zituzten frankismoak ezarritako botere egiturak (monarkia, auzitegi bereziak, armada, indar polizialak...). Indar demokratiko horiek, era berean, uko egin behar izan zioten historia berrikus-teari eta diktadurako krimenak eta gehiegikeriak epaitzeari. Euskal nazio errebindikazioei bezalakoei zegokienez (horiei ere erantzun beharra zegoen nola edo hala eta), irtenbide bitxi bat ezarri zen: batetik, lurraldea banatzea, Nafarroako eskuin espainolista eskatzen zuen bezala, eta, bestetik, Autonomia Estatutua ematea EAeri, eta, hor, asmo nazionalistek aurrera egiteko gaitasuna subiranotasuna zeukanaren nahira gelditzen zen, hau da, Espainiako Estatuaren nahira. EAEko herritar gehienek onartu zuten Estatutua, egia da, baina egia da, halaber, ez

[ Eskatu behar da oinarri sendoetan berreraiki dadila sistema demokratikoa: eten egin behar dira Estatuak pertsonen eta taldeen eskubideen aurka egiten dituen erasoak, eta berehala berrezarri behar dira beste funtsezko eskubide batzuk ere: parte-hartze politikorako eskubidea eta gauzak libre adierazteko askatasuna, besteak beste. ]

[ Nahiz eta erregimenak esan proiektu politiko guztiak direla zilegi, proiektu politiko zilegi batzuei ezinezkoa zaie aurrera egitea egungo konstituzio-estatutu-hobekuntza esparruan. ]

[ Demokrazia sakontzen saiatuko da ELA. Bada proposamen interesgarri bat, ildo horretan: herritarrei berei galdetzea, haiei eragiten dieten gaietan. Erakunde publikoetatik nahiz gizarte mugimendu edo erakundeetatik susta litezke kontsulta horiek. ]

zitzaiela utzi beste alternatibarik. Onartu zuten, beraz, Estatutua, baina ez aukeratu.

**14. 124.** Luzaro gabe ikusi zen gutxi espero zitekeela Estatuaren nahi-tik, eta "bloke konstituzionalak" (hor barruan dago "estatutuaren aldeko blokea") hesi estu baten moduan jokatzeko duela, eta gogor eragoz-ten duela proiektu politiko batzuek aurrera egin dezaten.

**14. 125.** Euskal subiranotasunaren kasuan, ondo agerikoa da hori. Nahiz eta erregimenak esan proiektu politiko guztiak direla zilegi, proiektu politiko zilegi batzuei ezinezkoa zaie aurrera egitea egungo konstituzio-estatutu-hobekuntza esparruan.

**14. 126.** Horregatik, proiektu politiko guztiak aukera berdintasunean lehia daitezkeen esparru juridiko-politiko bat ezartzea guztiz beharrez-koa da euskal subiranotasunaren aldeko indar ororentzat eta, jakina, ELArentzat.

**14. 127.** ELAren irudiko, demokraziaren kontzeptua bera ere aberastu eta osatu egin behar dela. Ildo horretan, demokraziaren aberasgarri ger-tatzen da, oso, prozesu politikoak, haien erritmoak, haien ezaugarriak etab. erakundeek eta alderdiek bakarrik ez zehaztea, baizik eta gizarte erakundeek ere parte hartzea zeregin horretan. Demokrazian sakon-tzeak, izan ere, gizarteari parte hartzen uztea esan nahi du, gizarte era-kunde horien iritzia eta proposamenak ere aintzat hartzea. Eta irudi-tzen zaigu, eta esan behar dugu, defizit demokratiko handia dagoela alor horretan. Gobernatzailerik askoren jarrera, erabaki politikoak politikari-ri soilik dagozkiela iriztea... dira horren agerigarri.

**14. 128.** Ikusmolde murriztaile horren aurka jo, eta demokrazia sa-kontzen saiatuko da ELA. Bada proposamen interesgarri bat, ildo horre-tan: herritarrei berei galdetzea, haiei eragiten dieten gaietan. Erakunde publikoetatik nahiz gizarte mugimendu edo erakundeetatik susta litez-ke kontsulta horiek. Gizarte erakundeek ere izan behar dute lekurik, ELAren iritziz, prozesu soberanistaren antolaketan eta kudeaketan.

#### \* *Giza eskubideen eta bizikidetzaren giza arazo baten alde*

**14. 129.** Goian aipatu dugun demokrazia indarberritzeak giza eskubi-deak eta pertsonaren duintasuna aitortzea eta errespetatzea eskatzen ditu. Ezinbesteko eginbeharra du hori bere burua zilegitzat daukan edo-zein botere publikok nahiz bere burua demokratikotzat daukan edozein agente politikok edo sozialek.

**14. 130.** Eta, hala ere, eguneroko gauza dira giza eskubideen urraketak eta pertsonen duintasunaren aurkako erasoak. Oso larria da nola Es-tatuak eta EAEko erakundeek sistematikoki urratzen dituzten alor ho-rretan dagozkien betebeharrak, baita beren legerien gaintik igarota ere. Eta larria da, halaber, euskal jendearen eskubideen izenean pertso-nen eskubideei eraso egitea. Izan ere, pertsonen eta haien eskubideen aurkako indarra eta gogorkeria ezin justifikatuzko metodoak dira.

**14. 131.** Espainiako Gobernuak distentsio urratsak egin behar ditu es-petxe politikan edo ministerio publikoaren jokabide irizpideetan. Orain arte, mendekuan eta presio politikoan oinarritu ditu, hein handi batean, jokabide horiek, eta, hemendik aurrera, eskubideen errespetuaz eta ba-lio giza arazo eta arrazionalago batzuek ordezkatu behar ditu bero-riek. Espainiako eta euskal administrazioek, bestalde, zorrotz bete behar

dituzte Nazio Batuen Erakundeak tortura eta tratu txarrak saihesteko gomendatzen dituen neurriak. Ildo horretan, ez da zilegi erakunde autonomikoetatik Estatuaren ez betetzeak salatzea, eta, aldi berean, etxean bertan neurririk ez hartzea (jadanik erraz har daitezkeenak) atxilotutako pertsonen eskubideak osorik bermatzeko.

**14. 132.** Urtebetetik gora joan da ETaren eraso hilgarririk gabe. Oraindik gertatu berria da berrehun lagun bizi eraman zuen Madrilko sarraski terrorista. ETAk ezin du ezikusiarena egin ekintza horrek ekarri zuen erantzuna dela eta. Euskal jendea, beti samurra biktimen saminaren aldera, lasaiturik gelditu zen sarraskia beraren izenean, beraren eskubideen eta askatasunaren izenean egin ez zelako. Aurreko Aberri Egunean genioen bezala, herri honek beraren izenean inor gehiago ez dutela hilko esan diezaioten behar du.

**14. 133.** ELAk deritzo eskubideekiko konpromisoa ezin dela zatitu, ez dela zilegi pertsonen eskubideen aurkako erasoak gaitzestea, edo haiek onartzea edo eramatea, erasotzailea nor den, edo eraso jaso dutenak nor diren begiratu. Oso gogoan izan behar du irizpide hori sindikatuak, alor horretan erabakiak edo ekimenak hartzean, batez ere beste erakunde edo mugimendu batzuekin batera egitean.

**14. 134.** ELA erakunde sindikala da, eta haren berezko alorra ez da errepresioaren aurka aritzea edo laguntza humanitarioa ematea. Baina giza eskubideen errespetuarekin eta bizikidetzaren giza arazoak batekin lotutako erakunde gara, arras; are gehiago, uste dugun bezala, eskubideen errespetuak, bizikidetzaren giza arazoak eta distentsioak euskal gatazka konpontzen laguntzen badute. Horregatik guztiagatik, ELA prest egon da beti konpromisoak hartzeko alor horietan, eta areago egon behar du aurrerantzean ere, bere azterketatik eta baloraziotik, bere kultura sindikal eta politikotik abiatuta beti ere.

**14. 135.** Bila gabiltzan helburuen izaerak, mezuen gardentasunak, ekintzetan lagun ditugunekin posizio berak izateak, hori baketze eta normalizatze prozesuetan lagungarri dela pentsatzeak etab.ek zehaztuko dute, une oro, zein ekimen, konpromiso eta lankidetzaren hartzen dugun pertsonen eskubideen aldeko eta euskal gatazka giza arazo baten aldeko borrokan.

**\* *Eduki sozialez hornitu euskal autogobernua, euskal lan harremanen eta babes sozialaren esparrua eskatuta***

**14. 136.** Langileak gara, eta geure helburuak iristeko esparrurik egokiena aukeratzen dugu eguneroko borrokan. Gaur egun dugun mundu globalizatuan funtsezkoa da borroka sindikalerako errebindikazio sinergiak, eredu sindikalen bat etortzeak, parte-hartze sindikal eta sozial indartsuak gertatzen diren esparruak bilatzea. Gainera, ekintza sindikala askoz eraginkorragoa izango da bere herriko ezaugarri sozial, ekonomiko, produktibo eta lanekoetara egokitzen bada. Eta horixe da, hain zuzen ere, nazioarteko mugimendu sindikala hobeto koordinatzeko eta indartzeko biderik onena.

**14. 137.** Alor soziolaboralean estatutua ez bete izana da indarrean dagoen esparru juridiko-politikoaren agortu den frogarik garbiena, eta horrek esparru berri bat eskatzera bultzatzen duen lehen baina gogo handiagoz. Beste alde batetik, Jaurilaritzak egin duen euskal esparru baten defentsa hitzontzikeria hutsa izan da. Eta euskal enpresariei, berriz, sekula ez zaie interesatu euskal esparru berezi bat sortzerik.

[ Urtebetetik gora joan da ETaren eraso hilgarririk gabe. Herri honek beraren izenean inor gehiago ez dutela hilko esan diezaioten behar du. ]

[ Giza eskubideen errespetuarekin eta bizikidetzaren giza arazoak batekin lotutako erakunde gara. ]

[ Bila gabiltzan helburuen izaerak, mezuen gardentasunak, ekintzetan lagun ditugunekin posizio berak izateak, hori baketze eta normalizatze prozesuetan lagungarri dela pentsatzeak etab.ek zehaztuko dute, une oro, zein ekimen, konpromiso eta lankidetzaren hartzen dugun pertsonen eskubideen aldeko eta euskal gatazka giza arazo baten aldeko borrokan. ]

[ Euskal lan harreman esparrua sendotzea ez da soilik eskumen auzi bat, baizik eta geureen ditugun gauzetan ere subiranotasuna sendotzea. Zeren kanpoko erabakiak gureen gainean ez ezartzea baita subiranotasuna. ]

[ Lehentasuntzat daukagu, halaber, euskal lan harremanen eta babes sozialaren esparruari buruzko eztabaida gizarteratzea. Gu gara autogobernua gehien eskatu duen gizarte sektorea, eta gu gara gehiengo sindikala. ]

**14. 138.** Euskal lan harreman esparrua sendotzea ez da soilik eskumen auzi bat, baizik eta geureen ditugun gauzetan ere subiranotasuna sendotzea. Zeren kanpoko erabakiak gureen gainean ez ezartzea baita subiranotasuna. Ildo horretan, hogeitun urtean gure lan harreman esparrua ez aitortu izanaren eta jazarri izanaren erantzun ere bada euskal esparrua sendotzea. Langileen Estatutuaren 83-84 artikulua ez errespetatzea, segurtasunik eza maila juridikoan, negoziazio kolektiboa zentralizatzeko etengabeko mehatxua... dira jazarpen horren adierazpen iraunkorrak. Jazarpen horren helburu ere bada ELA diskriminatzea, eta lan harremanak berdintzea estatu osoan, nahiz eta inposizioa erabili horretarako (beharko erabili, euskal esparruan ez dute gehiengorik eta).

**14. 139.** Hamar urte bete dira, duela gutxi, euskal lan harremanen esparrua aldarrikatzeko agerraldia egin zenetik. Bidean, ia izan zitezkeen guztiak izan ditugu aurka. UGTK, CCOO eta CEOE bide guztiak itxi nahi izan zizkieten sindikalismo abertzaleari orduan, eta, gaur egun ere, horien euskal adarrak kontraesan gogorrean bizi dira: aurre egiten diote euskal sindikalismoari, eta aurre, halaber, euskal lan harremanen esparruari; eta, bestetik, leporatzen diote ELAri ez erraztea elkarrizketa soziala, eta bere irizpideak ezartzea erakundeen esparruan. Sindikatu eta patronal horiek berek, espainiar estatuarekin bat eginda, gogor dihardute Hobetuz eta antzeko gaien aurkako boikotean.

**14. 140.** Urte hauetan guztietan, irmo erantzun diegu ahalegin berdintzaile eta euskal berezitasunaren ukatzaile horiei guztiei, lan harremanen gainean. Hor dugu, beharbada adibide nagusitzat, 2002ko ekainaren 19ko Greba Orokorra. Baina erantzun horretan iraun behar dugu.

**14. 141.** Lehenik eta behin, esan behar dugu negoziazio kolektiboko geure eredia izatea lan harremanen esparru autonomo hori sendotzeko ariketa praktikoa dela. Nazio prozesua eduki sozialez hornitzeaz ari garenean, horixe dugu geure ekarpen nagusi eta egiazkoena. Eta horixe da, era berean, esparru zentralizatuagoak ezartzeko ahaleginari ematen diogun erantzuna, eta beste esparru juridiko eta politiko baten alde egiten dugun apustua. ELA bestelako eredu bat sortzea erabaki du: lan munduan gero eta jende gehiagok bizi duen ezegonkortasunari eta esplotazioari gure iritzian hobekien erantzuten dion eredia. Sinetsita gaudela ez dela izango euskal lan harremanen esparrurik gure aldeko indar-harremanik gabe, eta ez da gure aldeko indar-harremanik, enpresetan ekintza sindikalik egiten ez bada.

**14. 142.** Horrekin batera, eta bigarrenik, lehentasuntzat daukagu, halaber, euskal lan harremanen eta babes sozialaren esparruari buruzko eztabaida gizarteratzea. Gu gara autogobernua gehien eskatu duen gizarte sektorea, eta gu gara gehiengo sindikala, eta ez da onargarria alor horretan indar politikoetatik praktikan datorrena. Eztabaida hori, gainera, gizarte osoari dagokio, ez langileriarik bakarrik; horrexegatik ardura zaigu eztabaida gizartearen sektore guztietara hel dadin. Ikuspegi horretatik ikusita, bada, gizarte ereduaren eta elkartasun zein babes sozial leko mekanismoen eztabaidak toki nagusia izan behar du.

**14. 143.** Hirugarren konpromiso esparru bat: Eusko Jaurlaritzak sustatu duen estatutu berriaren proposamenaren inguruko politika orokorreko eztabaida. Hor, izugarri korapilotsuak izan daitezke etor dakizkigutkeen abagune edo egoerak. Ahal dugun neurrian, ahalegina egin behar dugu eskumen soziolaboral ez dakartzan estatutu itun berri bat gauza ez dadin. Errefusatu egingo dugu gai horiek ez dakartzan edozein espa-





rru juridikori. Baina erantzun hori ere prestatu egin behar da. Sakontasun horretako erabakiak ezin dira hartu edozein moduz. Ildo horretan, eta eskumenen mailan, ELAK ez dio uko egiten deusi ere. Enpleguko, prestakuntzako eta gizarte segurantzako eskumen osoak ez ezik, gizarte eta lan alorreko legeak egiteko eskumenak ere nahi ditu.

**14. 144.** Laugarrenik, eta diskurtsoaren mailari gagozkiola, aurre egingo diegu –ari gara egiten jadanik–, “elkarrizketa sozialaren” dei faltsuei. Indar-harreman txarreko une batean gaude mugimendu sindikalarentzat. Bai EAEn, bai Nafarroan, elkarrizketa eta negoziazio praktika birtual bat ari da nagusitzen ugazaben, administrazioen eta espainiar sindikalismoaren artean. Testuinguru horretan, hamaika kanpaina izango da komunikabideetan, gure izena belzteko, gu salatzeko, eta are, gu berariaz baztertzeko. Gure jarrera oso garbia da, horri dagokionez: 1) errespetu demokratikoa gutxiengoei (horiek ere hartu behar dute parte) eta gehiengoei (horiek gabe ez baita ez sinadurarik, ez itunik); 2) egiazko edukiak dituen negoziazioa; 3) ez dohainik goratzea euskal lan-harremanen esparrua etengabe boikotatzen dutenak.

**14. 145.** Azkenik, beldurrean oinarritutako kanpaina mordoari egin beharko diogu aurre (hasi dira jadanik). Kanpaina horiek Estatukoa ez den edozein lan-harremanen esparru sendotzea galarazi nahi dute errotik. Erabiltzen dituzten argudioetako batzuk: Espainiarik ezaren kostua, 25en Europar ekialdeko beste herri batzuk sar daitezkeela, uko egin behar zaiela zenbait aberastasun banaketa edo lan baldintza helbururi, enpresen lehiakortasuna pizteko neurri batzuk onartu eta bereganatu behar direla... Gure militanteak eta gure jendea arrazoiz sendoz, diskurtso sendoz blindatzea da datozen urteetarako dugun erronka nagusi bat.

**\* Autodeterminazio eskubidea eztabaida politikoaren erdian kokatzea**

**14. 146.** Estatutuaren esperientzia etsigarriak, autogobernua Estatuen alde bateko jokaeretatik blindatu beharrak eta proiektu politiko guztiek aukera berdintasuna izateko premiak subiranotasunaren eztabaidara garamatzate zuzen-zuzenean. Gatazkaren irtenbidea ez da, fase honetan, estatutua aldatzea, baizik eta subiranotasunaren auziari heltzea behingoz.

**14. 147.** Azken urte hauetan, aurrerakada handia egin da euskal gizartearen, herri gisa erabakitzearen gogo handitzean eta Euskal Herria errealtate subiranotzat jotzean. Bide horretan, esan daiteke borrokaldi politiko garrantzitsua irabazi dela azken urte hauetan. Kontzientzia sozialaren aurrerakada hori da daturik garrantzitsuena aurrean dugun aitortpen prozesurako. Eta aitortpen prozesu horretan indarra ez da egongo hainbeste, gure ikuspegitik, argudio teorikoetan edo euskarri juridiko-instituzionaletan, baizik eta aktoreak eta erakundeak mugiarazteko moduko dialektika sozial bat sortzeko gaitasunean. Horregatik, Euskal Herriak hitza eta erabakimena izan behar dituen kontzientzia hori (Lizarrako adierazpenak zioen bezala) aurrera joatea, indartzea, arrazoiz eta gogoz betetzea da indar soberanistek duten erronka nagusia.

**14. 148.** Gogo edo borondate hori gizartearen hedatzeari dagokionez, ongi ari gara egiten zerbait, EAEko Gobernuak estatutu politiko berri baten proposamena egin behar izateko, edo Nafarroako lehendakariak Espainiako Konstituzioko xedapen iragankor ospetsua ken dadin behin eta berriz eskatzeko (xedapen horrek Hego Euskal Herriaren lurralde za-

[ Diskurtsoaren mailari gagozkiola, aurre egingo diegu –ari gara egiten jadanik–, “elkarrizketa sozialaren” dei faltsuei. ]

[ Gatazkaren irtenbidea ez da, fase honetan, estatutua aldatzea, baizik eta subiranotasunaren auziari heltzea behingoz. ]



[ Subiranotasun gatazkak konpontzeko bide demokratikoa da autodeterminazio eskubidea. Ez da "abertzaleen" kontua. ]

[ Eskubide horren bitartez, herri batek nahi duen esparru juridiko-politikoaz hornitzen du bere burua. Nazio, politika, kultura, ikur, hizkuntza eta bestelako aukera eta atxikimendu oro aitortu eta babestu egin behar dira, komunitateak bere buruari edozein esparru juridiko ematen diola ere. Subiranotasunaren eztabaida iragan mendeetako eztabaida dela diotenek aitortu behar dute beren nazio-estatuak (ez etorkizunekoek) egin dutela huts, bestelakotasuna nahiz kultur eta politika aniztasuna integratzean. Horrexetan egin dute porrot Frantziak, Espainiak eta antzeko nazio-estatuak. ]

tiketa berrikusteko aukera ezartzen du). Eta iruditzen zaigu, gainera, duela hamar urte pentsaezina zatekeen aurrerakada horretaz benetan ohartzea aurrerakada hori egin izana bezain garrantzitsua dela. Gero eta masa handiagoa dago autodeterminazio eskubidearen alde, eta masa horrek uste du espainiar eta frantses estatuek euskaldunek erabakita-koa errespetatu behar dutela eta kito.

**14. 149.** Izan ere, eskubide hori eskatzea guztiz demokratikoa da. Subiranotasun gatazkak konpontzeko bide demokratikoa da autodeterminazio eskubidea. Ez da "abertzaleen" kontua, eztabaida hori nominalizatzen duten indarrek eduki dakiten bezala. Jakina, ezin diegu eskatu PPri eta PSOeri beligeranteak izateko eskubide horren alde, zeren haiek ez baitute eskubide horren premiarik beren proiektua aurrera eramateko. Baina esango diegu beste batzuek behar dugula, eta, beraz, autodeterminazio eskubidea aitortzea test demokratiko bihurtzen dela. Autodeterminazio eskubidea da, izan ere, nazio gatazka egoera batean edozein indar politikok gairitu beharreko test demokratikoa. Herritarrek nahi dutenaren adierazpen demokratikoa onartzea da printzipio demokratikoa onartzea.

**14. 150.** Autodeterminazio eskubidea behar-beharrezkoa da proiektu politiko guztiak baldintza beretan lehia daitezen, herritarrei proposatutako edozein herri konfigurazio aintzat hartua izan dadin, aztertua izan dadin, eztabaidatua, eta azkenik demokratikoki onartua edo baztertua; eta hori, jakina, betorik gabe, eskubideak mugatzeko legerien abantailaz baliatu gabe, bizikidetzeta eta eztabaida politikoa honda ditzakeen gogorkeriarik edo mehatxurik gabe.

**14. 151.** Gainera, historia kolektiboak ematen duen heldutasun politikoaren agergerri gisa ikusten dugu eskubide hori, eta inolaz ere ez inoren aurkako edo inongo talderen aurkako mehatxu gisa, inolaz ere ez beste ezein herriren edo estaturen aurkako erasotzat. Eskubide horren bitartez, herri batek nahi duen esparru juridiko-politikoaz hornitzen du bere burua. Nazio, politika, kultura, ikur, hizkuntza eta bestelako aukera eta atxikimendu oro aitortu eta babestu egin behar dira, komunitateak bere buruari edozein esparru juridiko ematen diola ere. Subiranotasunaren eztabaida iragan mendeetako eztabaida dela diotenek aitortu behar dute beren nazio-estatuak (ez etorkizunekoek) egin dutela huts, bestelakotasuna nahiz kultur eta politika aniztasuna integratzean. Horrexetan egin dute porrot Frantziak, Espainiak eta antzeko nazio-estatuak.

**14. 152.** Aitortzen dugu eztabaidagarriak direla eskubide hori gauzatzaren inguruko zenbait alderdi: prozedurak, eritmoak, lurraldea zehaztea... Euskal herritar guztiei eman behar zaie eskubide hori erabiltzeko aukera, herritar horiek guztiak baitira Euskal Herriak subjektu politiko izateko eta bere bizikidetzeta egiturak zehazteko dituen eskubideen jabe.

**14. 153.** Eta, batik bat, eta sindikatu garen aldetik, autodeterminazio eskubidea herritarren zerbitzuko eta bereziki herri xehearen zerbitzuko eskubidetzat jotzen dugu. Iruditzen zaigu subiranotasuna pertsonen eta taldeen ongizatearen zerbitzura dagoela, justizia sozialaren eta elkartasunaren zerbitzura. Ildo horretan, autodeterminazio eskubideak tresna edo bitarteko izaera ere eduki dezake: eskubide hori duen komunitatea aberatsagoa da ikuspegi demokratikotik, zeren bere eskuetan har baitzake etorkizuna, agertzen zaizkion gai guztietan: ez soilik bizikidetzeta

formulei buruzko gai zehatzetan, baizik eta baita ongizatea mugatzen duten gai guztietan ere: gai sozialetan, lanekoetan, ingurumenari buruzkoetan, kulturaletan...

**14. 154.** Behin baino gehiagotan aipatu dugu gutxienekoen akordio bat iritsi behar dela autodeterminazio eskubidearen aitortpenaz, indar politiko eta sozialen artean; akordio bat, bai, beste gai batzuetan ados ez egon arren, euskal jendeak (nahi badu) bere etorkizuna erabakitzekeo eskubidea duela aitortzen dutenen artean. Ezin dugu eskubide hori guztiek onartu arte zain egon; onartzen dutenekin egin behar da aurrera. Eta, seguruenik, bada jadanik heldutasunik aski, era horretako oinarrizko akordio bat proposatzeko.

**14. 155.** Ez da aurreratu eta hedatu soilik Euskal Herriak hitza eta erabakimena eduki behar dituen kontzientzia; oinarrizko uste batzuk ere gero eta zabalduago daude hemengo herritarren artean:

**14. 156.** Esate baterako, gero eta garbiago dago aitorten bilatze prozesu horrek zibila eta demokratikoa izan behar duela bere fase guztietan. Horrela bakarrik erdietsiko du euskal subiranotasuna defendatzen duten guztien atxikimendua, horrela bakarrik izango da guztiz zilegi eta demokratiko barruan eta kanpoan.

**14. 157.** Beste alde batetik, agerian dago edozein proposamenek aintzat hartu behar duela euskal gizartearen aniztasuna. Maiz, PSOEn aldetik adibidez, aniztasun hori beto eskubidea erabiltzeko aitzakiatzat erabiltzen da, eztabaida politikoa mugatzeko aitzakiatzat, soilik "beren joko arauz jokatzeko" aitzakiatzat. Maila horretan, zeregin handia dago gauzak zehazten eta pedagogia egiten, zehazki hauek argitzen: ea gizarte batean zer adostu behar den indar politiko eta sozial guztien artean, eta ea zer utzi behar den edo utz daitekeen lehia demokratikoaren baitan.

**14. 158.** Hasteko, oinarrizko eskubideak ezin dira negoziatu. Pertsona eta talde guztien eskubide guztiak (giza eskubideak, sozialak, politikoak, kulturalak, ingurumenezkoak...) errespetatu egin behar dira baldintzarik gabe. Aldiz, herri baten erakundetzeari dagokion guztia borroka politiko eta demokratikoaren bitartez erabaki behar da. Edozein esparru juridiko-politiko da zilegi, ezin kenduzko eskubide horiek errespetatuz gero.

**14. 159.** Historiak ekarri du erakunde foralak eta EAEkoak izatea, gaurkoz, demokratikoki zilegizkoenak Hego Euskal Herrian. Iparraldeko euskal lurraldeek ez daukate inongo erakunderik. Horixe da erakundetze mailan dugun benetako egoera, nahiz eta ez den, ezta gutxiagorik ere, ez aldagaitza, ez atzerazina. Eta errealista izan nahi duen ezein proposamenek ez du ahaztu behar errealitate hori. Datu positibotzat, esan behar dugu nazio osoaren mailako (Euskal Herria egun zatitzen duten erakunde esparruen gainetiko) lan tresnak eta esparruak sortzeko iritzia eta gogoia gero eta indartsuagoak direla herritarren artean.

**14. 160.** Autodeterminazioaren aldeko indarren arteko gutxieneko akordioaz ari gara. Argitu behar da hori egitea ez dela alderdi guztiekin hitz egitearen aurkako. ELAk dio alderdi guzti-guztiekin hitz egin behar dela, baina, aliantza kontuetan, pentsatzen du autodeterminazioaren aldeko indarrak biltzea dela lehentasun, borondate sozial hazkor horren operatibitatea handituko bada.

[ Ildo horretan, autodeterminazio eskubideak tresna edo bitarteko izaera ere eduki dezake: eskubide hori duen komunitatea aberatsagoa da ikuspegi demokratikotik, zeren bere eskuetan har baitezake etorkizuna, agertzen zaizkion gai guztietan: ez soilik bizikidetzatza formulei buruzko gai zehatzetan, baizik eta baita ongizatea mugatzen duten gai guztietan ere: gai sozialetan, lanekoetan, ingurumenari buruzkoetan, kulturaletan. ]

[ Zeregin handia dago gauzak zehazten eta pedagogia egiten, zehazki hauek argitzen: ea gizarte batean zer adostu behar den indar politiko eta sozial guztien artean, eta ea zer utzi behar den edo utz daitekeen lehia demokratikoaren baitan. ]

[ Bi gai ikusten ditugu funtsezko, lan horri ekiteko: lan epea eta erritmoa zehaztea, batetik, eta errealismoz heltzea gaiei, beste indarrei eman ezin dutena eskatu gabe. ]

[ Horrek guztiak konpromiso militante handia eskatzen du nazio eraikuntzaren alor guztietan. ]

### C) KONPROMISO MILITANTEA BERRITU

**14. 161.** Lan handia dago egiteko, antzutasuna nagusi izan den garai sobera luze bat gainditu nahi bada. Bi gai ikusten ditugu funtsezko, lan horri ekiteko: lan epea eta erritmoa zehaztea, batetik, eta errealismoz heltzea gaiei, beste indarrei eman ezin dutena eskatu gabe.

**14. 162.** Horrek guztiak konpromiso militante handia eskatzen du nazio eraikuntzaren alor guztietan. Gure jarrera erabat demokratikoa den ustetik jaiotzen da konpromiso hori, lehenik. Bigarren, uste sendoaren, eztabaidaren eta norgehiagoka demokratikoaren bidez irabazi nahi du espazio sozial eta politikoa konpromiso horrek. Eta, hirugarren, sindikatu legez langileen arazoei eta nahiei ematen diegun erantzunean legitimatzen da konpromiso hori. Eta legitimatu bakarrik ez; izan ere, lan munduko inplikazio horrek ematen dizkie ELAren proposamen politikoei aldaketa politikorako behar diren aurrerapen eta elkartasun balioak.

**14. 163.** Garai berri bat irekitzen da, eta, hor, unibertso abertzaleak aldaketa politiko bat hasi eta bultza dezake. Gutako bakoitzaren eta kolektibo osoaren konpromisoak ekarriko ditu aldaketaren eta egungo esparru juridiko-politiko gainditzearen aldeko gehiengoak, subiranotasunaren printzipioan oinarrituta.



# 15.

## GURE EKINTZA EREMUA ZABALTZEN

[ Gure proposamen orokorren barne egon behar dute, berariaz eta behar den guztietan, genero proposamen espezifikoek ere. ]

### A) GENERO POLITIKAK

**15. 101.** Emakumeak diskriminatuta daude maila guztietan, sistema patriarkal eta kapitalistaren nagusitasunagatik besteak beste. Lan merkatuak ez du aitortzen, ez aintzat hartzen, ordaindu gabeko lana, eta galarazi egiten die emakumeei gizonen baldintza berdineko enplegua eskuratzea. Lan merkatuak ezegonkortasunera kondenatzen ditu horrela emakumeak, horrek biztanleriaren erdiari dakarkion eskubide ekonomiko eta sozialen galerarekin. Diskriminazioak oso itxura ezberdinak ditu, eta sakon aztertu behar da lan eta gizarte esparruan.

**15. 102.** ELAk honako helburu hauek ditu hurrengo kongresu arteko aldirako, alor horretan:

**15. 103.** – Emakumeen lan eta gizarte egoera espezifikoaren azterketa pixkanaka eta zeharka, gure azterketa globalean hartu behar dugu aintzat. Gure proposamen orokorren barne egon behar dute, berariaz eta behar den guztietan, genero proposamen espezifikoek ere. Emakumeek jasaten duten diskriminazioaren aurkako borrorak present egon behar du gure eguneroko ekintzan, sindikatuaren egitura guztietan, berezko eran eta ardurak saihestu gabe. Lankidetzeta estua izan behar da sindikatuko egitura desberdinen artean, generoarekin lotutako gai guztiak beti eta soilik Arlo horretara bidal daitezten saihesteko.

**15. 104.** – Egia da emakume afiliatu igoera handia izan dela, eta egia, halaber, ugaritu egin direla haiek enpresetan eta erakundearen egituretan, eta horrek indartu egiten du genero problematika aintzat hartzeko premia. Halere, emakumeen afiliatze, militatze eta organo guztietan parte-hartze hori lehentasuntzat daukagu oraindik. Ahalegin espezifikoa egin behar da emakumeak beren gertueneko erabaki esparruetan ager eta ari daitezen, herri eta eskualde-batzetan zehazki, eta parte-hartze eta protagonismo handiagoa izan dezaten enpresetan eta, oroz gain, negoziazio mahaietan, hor oso urria da oraindik haien presentzia eta.

**15. 105.** – Gizarte ereduari buruzko diskurtsoan eta alor horietako ekintza sindikalaren garapenean ere egon behar du presente genero ikuspegiak.

**15. 106.** Alor konfederalaren helburuen eta funtzioen artean hauek aipatuko ditugu:

**15. 107.** – Emakumeen arazoei buruzko salaketa gizarteratzea, eta beharrezko laguntza jarduera bultzatzea, aurreko gaian ezarritako helburuak iristeko.

[ Ahalegin espezifikoa egin behar da emakumeak beren gertueneko erabaki esparruetan ager eta ari daitezen, herri eta eskualde-batzetan zehazki, eta parte-hartze eta protagonismo handiagoa izan dezaten enpresetan eta, oroz gain, negoziazio mahaietan, hor oso urria da oraindik haien presentzia eta. ]

[ Enpresa gatazkak, negoziazio kolektiboa, kanpaina konfederalak eta sektorialak... erabili behar ditugu sentsibilizazio lanerako eta gazteen problematikaren zati handi bati pixkanaka irtenbideak emateko. ]

[ Eskualde idazkariari dagokio afiliatu gazteen prestakuntza eta partaidetza bultzatzea, haiek militantzia aktibora igaro daitezen; horretarako, denbora eskaini behar dio zeregin horri, eta metodo egokiak erabili behar ditu. ]

**15. 108.** – Emakumeen Foro Nazionala berregituratu egin da kongresu arteko aldian, eta, horri esker, lan espazio bat sendotu da eztabaidarako, hausnarketarako eta sortutako dinamika eta ekintza desberdinak koordinatzeko. Foro hori garatzeko, pertsona bat izendatu behar da eskualde-batz bakoitzeko, eskualde-batzordeko kide dena aldi berean, eta, horrela, lanbide arteko egiturek ere hartuko dute parte susta daitezkeen diskurtsoan zein ekintzetan. ELAko militanteek ongi landu behar dute generoaren gaia, eta kezka horrekin bat datorren praktika sindikala egin behar dute gainera; horretarako, parte-hartze eta eztabaida esparruak bultzatzen ditugu Herri-batzetan, Eskualdeetan eta Konfederazioan.

**15. 109.** – Beste erakunde sindikal batzuekin, gizarte mugimenduekin eta talde feministekin egindako lanak hausnarketak eta esperientziak partekatzen uzten digu. Gure dinamika bera ere aberasturik gertatzen da horrela, beste problematika eta ikuspegi batzuk (osasuna, emakumeen aurkako indarkeria, sexu askatasuna, etorkinak...) geureganatzean. Lan horrek, era berean, beste eztabaida foro batzuetara uzten digu eramaten geure hausnarketa sindikal eta soziala: Munduko Gizarte Forora (MGF), Europakora eta tokiko foroetara, edo Emakumeen Mundu Martxara.

## B) GAZTEAK

**15. 110.** Bizi eta lan baldintzen ezegonkortasunak ia gazteen % 70 ukitzen ditu. Ekonomia mendekotasun luzeak ez die uzten bizitza proiektu autonomo bat garatzen, eta defizit larriak jasaten dituzte beren eskubide sozial eta funtsezkoetan. Urratzen zaizkien eskubide batzuk: etxebizitzarena, lan duinarena, osasunarena...

**15. 111.** Gazteei dagokienez, sindikatuak helburu hauek ditu:

**15. 112.** – Gazteriaren problematikaren eta interesen presentzia handiagoa erdiestea sindikatuaren errebindikazio ekintzan. Horrek, lehenengo eta behin, gazteen lan eta bizi egoeren azterketa zehatza eskatzen du. Enpresa gatazkak, negoziazio kolektiboa, kanpaina konfederalak eta sektorialak... erabili behar ditugu sentsibilizazio lanerako eta gazteen problematikaren zati handi bati pixkanaka irtenbideak emateko.

**15. 113.** – Pertsona gazteak erakartzea militantziara. Erabaki dugu ezegonkortasuna eta diskriminazioa ipini behar ditugula jarduera sindikalaren erdigunean. Baina beharrezkoa da afiliatuak gehitzea gazteen artean, eta horiek militantziara erakartzea, azken urteetan gauzatu den belaualdi ordezkatzearen ildo beretik. Militantzia hori sindikatu ataletan eta enpresa batzordeetan gorpuztu behar da, bai eta erakundearen egitura desberdinetan ere. Antolamendu ikuspegitik begiratuta, Herri-batzek, Batzorde Federalet, Idazkaritzek, Federazioek eta Eskualde Batzordeek erraztu egin behar dute militante gazteak organo horietan sar daitezen. Bereziki, eskualde idazkariari dagokio afiliatu gazteen prestakuntza eta partaidetza bultzatzea, haiek militantzia aktibora igaro daitezen; horretarako, denbora eskaini behar dio zeregin horri, eta metodo egokiak erabili behar ditu.

**15. 114.** – Uste dugu gizarte ereduarekin (etxebizitza, babes soziala etab.) lotutako errebindikazioek eta ekintza sindikalak lagundu



egingo digutela militante gazteak motibatzen. Funtsezko gaiak dira horiek, gainera, haiek diskurtso berezi eta alternatibo batean prestatzeko.

**15. 115.** Arlo konfederalak helburu hauei heltzeko aukera eman behar digu:

**15. 116.** – Sindikatuaren diagnostikoetan, proposamenetan, ekintzetan eta akordioetan gazteen errebindikazioak ere aintzat hartuak izan daitezten laguntzea. Eta errebindikazio horiei jarraipen zehatza egin behar zaie gainera; kritika eta guzti erabiliz, behar izanez gero.

**15. 117.** – Beste gazte erakunde eta mugimendu (ahal bada sindikal) batzuekin batera egindako lanaren ondorioz, diskurtso eta proposamen aurrerakoiak hedatuz joan daitezke, poliki-poliki, gizartean eta langile klasean. Azken hiletan etxebizitzaren inguruan egindako lana etorkizunean egin behar dugunaren adibide ona da.

**15. 118.** – Gazteen Foro Nazionala dinamika hasi berria da, eta Eskualde-Batzen ordezkari gazteez osaturik eta Gazteen Alor Konfederalaren arduradunak koordinaturik dago. Bi xede izango ditu: alorreko politika bultzatzea eta militante gazteak motibatzea. Foro horretako kideak Lanbide Arteko Eskualde Batzordeetan aritzeak gazteen ikuspegia gure proiektuaren barne egon dadin utziko digu. Ez dugu sortu nahi egitura paralelorik, ez bailirateke izango eraginkorrak, eta bai, aldiz, gure antolamendu ereduaren aurkakoak.

**15. 119.** Alorraren arduradunaren irudia garrantzitsua da alor horren garapenerako, eta aitortu behar da beraren lana ez dela izan oso eraginkorra, ez baitzuen behar besteko egonkortasunik. Ez dugu ezkutatu behar, bestalde, eskualde egiturek zailtasun handiak dituztela profil egokiko ordezkariak izendatzeko ardura horretarako, beren esparruan.

**15. 120.** Arduran egonkortasuna izateak, eskualdeek arloaren arduradunak izendatzeak eta sortzen ari den dinamika berriak pentsarazten digute aurrera egingo dugula arlo horretan ere, horko xedeen arabera.

### C) KONPROMISO HANDIAGOA ETORKINEKIN

**15. 121.** Azken urteetan, eta gure errebindikazio planteamenduekin bat, kolektibo edo multzo jakin batzuen (gazteak, emakumeak...) arazoak ipini ditugu eztabaidaren erdigunean. Sakonago joan behar da ildo horretan. Horregatik, esan beharra daukagu ELAk aurrera egin behar duela etorkinen egoerak eta premiak ere gure diagnostikoetan eta ekintzetan barneratzeko. Izan ere, etorkinen multzoa bizkor ari da hazten aspaldian Hego Euskal Herrian. Etorkinez ari garenean, Europako Batasunaz kanpoko jendeaz ari gara funtsean, hau da, erkidego horretaz kanpoko jendeaz. Multzo hori %2 inguru da EAEn, eta %4 inguru Nafarroan, eta, datu horietan, barne dira Batasuneko estatu berrietako herritarrak ere, horiek ere mugaturik baitute oraindik mugitzeko askatasuna.

**15. 122.** ELAk alderdi edo lan ildo batzuk iragartzen ditu datozen urteetarako, alor horretan:

**15. 123.** – Barruko sentsibilizazioa. Bilerak egin eskualdeetan, harremanak izan federazioekin, harremanak izan etorkinekin eta haien

[ ELAk aurrera egin behar duela etorkinen egoerak eta premiak ere gure diagnostikoetan eta ekintzetan barneratzeko. Izan ere, etorkinen multzoa bizkor ari da hazten aspaldian Hego Euskal Herrian. ]

[ Ingurumen auziak ez dira arrotz lan sindikalarentzat, eta lan horrekin ere ez daude kontraesanean. Auzi horiek lan osasunarekin eta politika industrialarekin daude loturik zuzenean, nahiz eta berariazko tratamendua eskatzen duten. ]

[ ELAn hizkuntz normalizazio plana onartzea eta garatzea lehentasunezko gauza da hurrengo kongresu arteko aldirako. Euskara poliki-poliki sindikatuko lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzea da planaren xedea. ]

problematika azaldu eta ezagutarazi. Zeharkako ikuspegia sartu nahi da gai horretan, ez aparteko mundu bat sortu.

**15. 124.** – Etorkinen eta haien laguntzarako elkarrekin harremanak izan eta elkar lan egin. Ildo garrantzitsua da hori, eta ezagutze eta identifikazio dinamika bat sortu behar da bertan. Esparru horretan, jarduera bateratuak egin behar dira, bai kasu zehatzen aurrean, bai neurri zein errebindikazio orokorren aurrean.

**15. 125.** – Sindikatuaren zerbitzu juridikoen prestakuntza egokia eta erantzuteko gaitasuna bultzatu, zerbitzu horiek, lan auzietatik abiatu, auzi horiekin loturiko problema espezifiko batzuei erantzun ahal izan diezaieten.

#### D) INGURUMEN AUZIAK SARTU

**15. 126.** Ingurumen auziak ez dira arrotz lan sindikalarentzat, eta lan horrekin ere ez daude kontraesanean. Auzi horiek lan osasunarekin eta politika industrialarekin daude loturik zuzenean, nahiz eta berariazko tratamendua eskatzen duten.

**15. 127.** Kongresu arteko aldi honetan, ingurumen auziei heltzeko lan talde bat sortu dugu. Ez dugu lortu jarraipenik izan dezan, zereginak erantsi baitzaizkie talde horretako kideek lehendik zeuzkatenei. Hala eta guztiz ere, zenbait gai zehatzetan aurrera egin dugu: garraioan, energia ekoizpenean, emisioak eta isurketak, errausketaren aldaera ugariak etab.

**15. 128.** Jarduera ekonomikoek badute eraginik ingurumenean, eta ezin da ezikusiarrena egin. Era askotako kasuak egokitu zaigu ikustea eta aztertzea (isurketa kutsagarri eta osasunarentzat kaltegarriak, harrobien ustiapena, errausketa...).

**15. 129.** Garbi dago sortzen diren arazoek "atzetik" gabiltzala gehienetan. Bada, nahitaezkoa zaigu jokaleku hori saihestea. Aurrea hartu behar diegu problemei.

**15. 130.** ELAk aurrera egin behar du datozen urteetan ingurumen alorrean. Horrek, lehenik, egoeraren diagnostiko sakonagoa egitea eskatzen du. Bigarrenik, informazio, sentsibilizazio eta errebindikazio plan bat eratu behar dugu sektore jakin batzuetan (bereziki industrian, garraioan, energian...) eta gizartean oro har. Horretarako, zenbait urrats egin beharko dugu, batzuetan ELA gisa, batzuetan beste erakunde batzuekin batera (sindikatuak, ekologistak...).

#### E) EUSKARAREN NORMALIZAZIOA BULTZATU ELAN ETA ENPRESETAN

**15. 131.** ELAn hizkuntz normalizazio plana onartzea eta garatzea lehentasunezko gauza da hurrengo kongresu arteko aldirako. Euskara poliki-poliki sindikatuko lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzea da planaren xedea. Plan horrek sindikatuaren egitura guztiak ukituko ditu mailaka, helburu zehatzak eta haiek iristeko bitartekoak ezartzen dituelarik.

**15. 132.** Prestakuntza sindikalari dagokionez, ez da batere egokia gai horri heltzen ari garen modua. Egia da, bai, urrats garrantzitsuak egin ditugula, ikastaro batzuk eta euskarazko hitzaldi batzuk gehiago



eskaintzen ditugula. Fundazioaren ia agerkari guztiak ere bi hizkuntzetan eskaintzen ditugu. Baina ohartzen gara ez dela aski. Aholkularitza egokia bilatu, eta erantzun egokiak eman behar dizkiegu aurrean ditugun arazoei.

**15. 133.** Bestalde, euskararen aldeko sentsibilizazioa bultzatu behar dugu lanaren munduan. Lan harremanak dira, segur aski, hizkuntz normalizazio prozesuan dauden hutsune handienetako bat, eta, sindikatu nagusi garen aldetik, ardurak eta protagonismoa hartu behar ditugu prozesu horretan. Ildo horretan, normalizazio planak bultzatuko ditugu ahal den lan zentro guztietan.

[ Lan harremanak dira, segur aski, hizkuntz normalizazio prozesuan dauden hutsune handienetako bat, eta, sindikatu nagusi garen aldetik, ardurak eta protagonismoa hartu behar ditugu prozesu horretan. ]



# 16.

## “4 x12 = 29” ANTOLAMENDU PLANA BULTZATU ETA GARATU

### A) ZENBAIT HAUSNARKETA

**16. 101.** Antolamendu helburuak zehazterakoan, hausnarketa hauek egiten ditugu aurrez:

#### \* *Errebindikaziozko eredu sindikalak badu etorkizunik*

**16. 102.** Oso tesi zabaldua da ekonomiaren globalizazioak ezinbestean sindikalismoa ahultzea dakarrela. Eta egia da, bai, erakunde sindikal behiala indartsu batzuek sekulako problemak dituztela afiliazio mailan eta egitura militantea berritzen zein atxikitzen... Sindikatu horietako askok ez dute aliantza estrategikorik gizarte mugimendu berriekin, eta ez dute borroka egiten enpresetan... Egia da, halaber, krisi hori bat datorrela, denboran, politika neoliberalen orokortzearekin (politika horiek hankaz gora bota dituzte gobernuen, enpresarien eta sindikatuen arteko harremanak arautzen zituzten joko arauak). Orain, aldiz, esaten da sindikatuek ere partekatu eta bultzatu behar dituztela enpresen lehiakortasuna pizteko neurriak; esaten da uko egin behar dietela aberastasuna hobeto banatzeko helburuari zein lan baldintzak duintzeko eskaerari; jokaleku berri horretara egokitu behar dutela negoziazio kolektiboa.

**16. 103.** ELAren ustez, ordea, testuinguru horrek ez du sindikalismoaren krisia azaltzeko balio, eredu neoliberalak orokortzeak sindikalismoa ikusteko eta sindikalismoa egiteko era bat bakarrik ipini baitu krisian. Ez da, gainera, eztabaida teoriko hutsa hori, geure praktikan ikusi dugun gauza baizik. Azken urteetan, gure militantziak oso ekintza sindikal handigura abiatu du, enpleguaren kalitateari, diskriminazioari eta aberastasunaren banaketari dagokienez. Eta, aldi berean, hazi egin gara, bai afiliazioan, bai ordezkartzan, bai ordezkari kopuruan; gero eta sendoago gaude enpresa txikietan; sakon berritu da militanteen eta taldeen egitura, adinari eta generoari dagokienez, eta ELA agente aktibo bilakatu da beste mundu bat, beste gizarte mota bat sortzeko lanean ari diren erakunde eta mugimendu sare zabal batean.

**16. 104.** Esperientziak erakusten digu, bada, kapitalismo globalizatuaren fase honetan ere errebindikazio sindikalismoak baduela etorkizunik, nahiz eta oztopoak izango dituen bidean, zeren bere izaerari eta helburuei uko egiten ez dien sindikalismoa gobernuen eta enpresarien etsai nagusi bihurtzen baita laster.

#### \* *Ezin da errebindikazio eredurik eduki enpresetan egon gabe*

**16. 105.** Euskal Herrian eredu neoliberalak sustatzen dutenek ez dute batere lotsarik berek egoki ikusten duten sindikalismo mota jendaurrean



azaltzeko: sindikalismo arduratsu, moderno, XXI. mendeko eskakizunetara egokitutakoa. Eta ederki tratatzen dituzte beren programara makurtzen diren erakunde sindikalak, haiei solaskidetza, irudia, ordainak... emanaz. Elkarrizketa sozialaren eta itun mahaietan gustura egongo diren sindikatuak nahi dituzte, pagotxa eta maukak banatzen diren erakunde-sareetan txertatuta egongo diren sindikatuak. Sindikatu horiek ordainetan eman beharrekoa, jakina: bake soziala.

**16. 106.** Enpresetan, orain hamarkada bat arte, krisi ekonomiko eta industrial berrien mehatxuak eta langabezia tasa handiak izan ziren euskal langile-klasea mendean edukitzeko tresna nagusiak. Hamar urtez ekonomia eta enplegua etengabe hazten aritu ondoren, beldurraren diskurtsoak beste argudio batzuk erabiltzen ditu orain. Enpresa beste toki batera aldatzeko mehatxuak eta abarrek gauza bat bilatzen dute ia beti: langileek ere bere egitea eta guztiz onartzea enpresak ezarri dituen lehiakortasun, produktibitate eta malgutasun helburuak. Edozein diskurtso alternatibo enpresaren bideragarritasunaren aurka lihoake eta, beraz, enpleguaren aurka. Ez du sektore pribatua bakarrik jotzen gaitz horrek. Sektore publikoan ere, elkartasunaren, kudeaketa onaren eta gastu publikoa murriztearen (denon ongizaterako, ustez) izenean zurrizten dira lan baldintzen kaskartzea eta azpikontratatzetara jotzea.

**16. 107.** ELA ez dago ezeren edo inoren mende. Gure erakundeak laguntza eman dezake, alde batetik, eta lantokietan edo beste esparru batzuetan sortzen den errebindikazio gogoia bideratu, bestetik. Gure autonomia organiko, ideologiko eta estrategikoak oso egoera egokian kokatzen gaitu enpresetan presentzia aktiboago eta biziagoa izaten saiatzeko. Enpresena da, bai, esparru zailena, baina baita errealagoa ere, indar-harremanen gaiari dagokionez.

**\* *Parte-hartzea errazteak eztabaida eta proposamenak aberasten ditu, eta konpromiso sindikala sendotzen du***

**16. 108.** Diskurtso desmobilizatzaile horren aurrean, garrantzitsu da sindikatuak bere planteamenduak ongi helaraztea. Baina helaraztea ez da aski; langileen atxikimendu sindikalak eskatzen du eurek ere hartu behar dutela parte diagnostikoan, proposamenetan, ekintzak asmatzen eta erabakiak hartzen. Parte-hartzea ez da, izan ere, demokratikoa deritzan eta berdintasunean oinarritutako garai bateko eginbeharra bakarrik, baizik eta nahitaezko baldintza, errebindikazio eta negoziazio prozesu guztietan aktiboki aritzeko.

**16. 109.** Errebindikazio planteamenduak lan zentroan aurretik egin dako lanaren fruitu izan behar du. Gatazken existentzia eta gatazka horien sendotasuna pertsona jakinen lanarekin lotuta daude estu-estu. Sindikatuaren errebindikazioak eta estrategiak gaurkotzeko aukera ere ematen du militanteen protagonismo horrek, komenigarri baita hori lan errealitate konplexu, arazo anitzeko eta aldakor baten aurrean.

**16. 110.** Enpresaren ardura daukan liberatua da sindikatuaren eta enpresaren arteko lotura nagusia. Liberatuak komunikazio estu eta iraunkorra izan behar du ordezkariekin eta afiliatuekin, eta parte hartu eta inplikatu egin behar du, halaber, enpresako jarduera sindikalean. Horrela bakarrik eraman daiteke aurrera antolamendu taxukera hau.

[ **Eredu neoliberala orokortzeak sindikalismoa ikusteko eta sindikalismoa egiteko era bat bakarrik ipini baitu krisian. ]**

[ **Esperientziak erakusten digu, bada, kapitalismo globalizatuaren fase honetan ere errebindikazio sindikalismoak baduela etorkizunik, nahiz eta oztopoak izango dituen bidean. ]**

[ **Enpresa beste toki batera aldatzeko mehatxuak eta abarrek gauza bat bilatzen dute ia beti: langileek ere bere egitea eta guztiz onartzea enpresak ezarri dituen lehiakortasun, produktibitate eta malgutasun helburuak. ]**

[ **Langileen atxikimendu sindikalak eskatzen du eurek ere hartu behar dutela parte diagnostikoan, proposamenetan, ekintzak asmatzen eta erabakiak hartzen. ]**

[ Antolamendu lan hutsak lehentasunezko izan behar du federazio eta eskualde arduradunentzat. ]

[ Pertsona eta taldeak ezin dira gidatu, beroien prestakuntza zaintzen ez bada. Zertarako prestakuntza hori? Bada, pertsonak jarrera sendo eta argudioz jantziak izan ditzan, eta jarrera horiek besteak erakartzeko indarra izan dezaten. ]

**16. 111.** Funtsezkoa baldin bada errebindikazio ildoek ongi jasotzea lan zentro jakin horretako pertsona afiliatuen nahiak, beharrezkoa da halaber errebindikazio ildo horiek (planteamendu korporatiboetatik urrunduek) bat etortzea ELAn egiten ditugun hausnarketekin eta planteamenduekin. Horregatik da prestakuntza hain tresna inportantea, enpresetan gure dinamika sindikala bizkortzeko. Ikuspegi horretatik, bada, prestakuntza antolamendu tresna baliotsua da dinamizatzeko, lotzeko, kohesionatzeko.

**16. 112.** Zentro bat baino gehiago duten enpresek zailtasun gehiago ageri dute (desberdinak, enpresa motaren arabera), bistakoa denez, enpresa sindikalki antolatzeko. Alabaina, zailtasun horiek ez dute izan behar aitzakia, antolamendu lanari ez heltzeko. Ez gara hutsetik ere abiatzen arlo horretan, eta, beraz, badakigu zein garrantzitsua den zenbait alderdi ongi zaintzea. Esaterako, idazkaritzako kideen, ETEen arduradunen eta lanbide artekoen arteko komunikazioa da zaindu beharreko alderdi bat, enpresa mota horretako langileei arreta egiteko, informazioa emateko eta inplikatzeko. Enpresa mota horretan ere, lehentasunezkoa da prestakuntza eta ordezkarien lotura zaintzea, eta sekula ez zaio uko egin behar, zailtasun operatiboak gorabehera, pertsona afiliatuen bilerak egiteari. Zertarako egin bilera horiek? Helburuak ezartzeko eta ekintza sindikala planifikatzeko.

**\* Neurri egokia duen erakunde bat; ikuspegi, baliabidez eta metodoz lan egin.**

**16. 113.** Azken Antolamendu Plana martxan ipini ondoren, esan dezakegu osatu ditugula geure egiturak, nahiz federazioetan, nahiz eskualdeetan: benetako zuzendaritzak federazioetan eta eskualdeetan, egitura osatuak, federazioak eskualdeka antolatzea, eskualde integrala sendotzea eta arduradun bakoitzari enpresa esleitze zentzuzkoago bat egin izanak lan hobea egiteko bidea ematen digute antolamendu mailan ere.

**16. 114.** Militanteak erakartzeak eta motibatzeak nahiz erakundeak dinamizatzeko denbora eskatzen dute, eta izan behar dugu hori egiterik gaur. Negoziazioari eta problemei eskaintzen diegun denbora guztiz beharrezkoak ez du agortu behar gure lan denbora. Ez dezagun gal ikuspegia: antolamendu lan hutsak lehentasunezko izan behar du federazio eta eskualde arduradunentzat. Lan hori ez da erraz kuantifikatzen eta ez da (beharbada) hain atsegingarria epe motzean, baina bai funtsezkoa, gurea bezalako proiektu sindikal batentzat. Erabil dezagun abagune hau militanteak eta taldeak berritzeko, motibatze, dinamizatzeko eta lideratzeko.

**16. 115.** Hori ez da egin ahal izango, metodoz egin ezean. Helburuak ezarri ondoren, lehen oztopo edo zailtasunengatik etsi gabe jarraitu behar dugu asmatutako lan plana. Horretarako, metodoaren beraren jarraipena egin behar dugu, ezarritako helburuen betetze maila neurtzen dugula, eta desbideratzea sortu duen kausa zuzentzen dugula ahal den heinean.

**16. 116.** Baina ez da aski denbora eskaintze hutsa. Pertsona eta taldeak ezin dira gidatu, beroien prestakuntza zaintzen ez bada. Zertarako prestakuntza hori? Bada, pertsonak jarrera sendo eta argudioz jantziak



izan ditzan, eta jarrera horiek besteak erakartzeko indarra izan dezaten. Azken finean, kontraboterezko eredu sindikal bat eraiki ahal izateko, korrontearen aurka joaten jakin behar dugu.

**\* Gure proiektu sindikala erakargarria da**

**16. 117.** Gure proiektua ez da inoren mendeko edo inoren morroi, eta ez du onartzen inoren xantaiarik. Geure buruaren jabe gara ekonomikoki eta antolamenduz, eta geure azterketetan eta helburuetan oinarriturik zehazten ditugu estrategiak. Ez dugu geure gaitasuna eta geure indarra beste mugarik.

**16. 118.** Autonomia sindikaletik abiatu, errebindikazio eredu bat aukeratu dugu geure sindikatuarentzat, Euskal Herriko langileek (bai klase mailan, bai nazio mailan) dituzten interesei eta problemei ahalik eta ongien erantzuteko.

**16. 119.** Badugu eskarmenturik eredu hau eraikitzen, eta badakigu, ongi, koherentziaz jokatzeko baldin badugu bukaeraraino, emaitzak ere ematen dizkigula: afiliatuak irabazten ditugu, ordezkariak handitzen dugu, militanteak erakartzeko ditugu, baita gazteak eta emakumeak ere, eta taldeak antolatzen ditugu.

**16. 120.** Ez da lan erraza izango militanteak erakartzea eta oinarri erakundeak dinamizatzea. Baina adorez ekin behar diogu egin behar horri, sinetsirik merezi duen eredu sindikal erakargarri eta komenigarri bat ari garela hedatzen.

## **B) AFILIAZIOA ETA ORDEZKARITZA**

**16. 121.** Afiliatuak gehitzea eta ordezkariak sindikala hobetzea (gure eredu sindikalaren bi zutabe funtsezko diren neurrian) antolamendu helburu garrantzitsuak ditugu hurrengo urteetarako ere, hortixe sortzen baita langileen artean dugun zilegitasuna, dugun itzala. Bi faktore horiei esker hartzen du sindikatuak indarra, eta errazago eraman ditzake aurrera bere proiektu sindikal, sozial edo politikoak.

**16. 122.** Ez da dudarik gauza batean: afiliazio mailan eta ordezkariak mailan gora egiteko, sistema bat eta metodo bat erabili behar ditugu. Sistema horrek eta metodo horrek helburu zehatzak ezarri behar dituzte eskualde batz guztietan eta lau federazioen barruan. Lan kolektibo hori oso goian jarri behar da sindikatuaren lehentasunen artean, eta ez dugu une batez ere utzi behar.

## **C) ATAL SINDIKAL GEHIAGO ETA HOBEAK. LAU FEDERAZIOAK INDARTU**

**\* Atal sindikal gehiago eta hobeak**

**16. 123.** Gure atal sindikalen konfigurazioa hobetzea, sindikatu boterea handitzea enpresan, horixe da gure lehen antolamendu helburua, azken antolamendu erabakien arrazoi nagusia. Federazio profesionalen hornitu gara. Federazio horiek beren gidaritzako taldeak eta behar beste bitarteko dituzte, eta behar bezain integraturik dauden eskualde dinamiketan, nagusiki, enpresetan kalitatezko lan bat egiteko.

[ Afiliazio mailan eta ordezkariak mailan gora egiteko, sistema bat eta metodo bat erabili behar ditugu. Sistema horrek eta metodo horrek helburu zehatzak ezarri behar dituzte eskualde batz guztietan eta lau federazioen barruan. ]

[ Gure atal sindikalen konfigurazioa hobetzea, sindikatu boterea handitzea enpresan, horixe da gure lehen antolamendu helburua, azken antolamendu erabakien arrazoi nagusia. ]

[ **Federazioen Batzorde Iraunkorrek eta Lanbide Arteko Eskualde Batzordeek bultzatu egin behar dute lan hori, eta horren jarraipen zehatza egin, gainera. Gai hori beti jorratu behar da bileretan, eta ez da baztertu behar ohituraz edo egoerak hala eskatzen duelako. ]**

[ **Ordezkarri sindikalarekin egin behar dugu lan batik bat, huraxe baita erreferentziako elementu sindikala enpresan. Berak ezagutu, ulertu eta bereganatu behar ditu, lehenengo, gure proiektuaren ildo estrategikoak. ]**

**16. 124.** Enpresa esparruan ardura maila batzuk hartzea beharrezko lehen urrats bat da. Soilik abiapuntu eta kokaleku horretatik egin daiteke progresio eta hedatze militante bat ekintza sindikalaren beste eremu batzuetara. Eremu horietako batzuk: sektorea bera, beste sektore batzuekiko elkartasuna, gizarte eredua, nazio eraikuntza...

**16. 125.** Horregatik guztiagatik, sindikatu atalen eratzea eta funtzionamendu erregularra geure helburu zentraletako bat izan behar dugu.

**16. 126.** Federazioen Batzorde Iraunkorrek eta Lanbide Arteko Eskualde Batzordeek bultzatu egin behar dute lan hori, eta horren jarraipen zehatza egin, gainera. Gai hori beti jorratu behar da bileretan, eta ez da baztertu behar ohituraz edo egoerak hala eskatzen duelako. Arretaz aztertu behar dira lan hori galarazten duten gaiak, eta irtenbide egokiak bilatu; etengabe gogoratu behar da metodoz lan egin beharra, eta prestakuntza eta informazioa orientatu behar dira, helburu hori iristeko.

**16. 127.** Enpresa esleituta daukan egitura-pertsonarena da ardura zuzena. Pertsona horrek zuzenean hartu behar du parte sindikatu atalaren bileretan, eta sindikatu atalak zinezko eztabaida foroa izan behar du. Ezarritako helburuak onartuz eta bereganatuz bakarrik har daitezke ardurak. Eragiteko eta aitzindari izateko gai izan behar dugu, bai eta enpresako langileen ekarpenak jasotzeko ere. Sindikatu atalaren adostasun eta ibilmolde horretatik, hobeto helduko diegu ekintza sindikal, afiliazio, ordezkaritza eta berritze helburuei, eta errazago hedatuko dugu militantzia hori beste eremu batzuetara.

**16. 128.** Ordezkarri sindikalarekin egin behar dugu lan batik bat, huraxe baita erreferentziako elementu sindikala enpresan. Berak ezagutu, ulertu eta bereganatu behar ditu, lehenengo, gure proiektuaren ildo estrategikoak. Hark mailaka hartutako ardurek (enpresatik hasita) markatuko dituzte hein handi batean gure ekintza sindikalaren mugak. Hark izan behar du sindikatuaren eta afiliatuen arteko lokarri iraunkorra. Oso modu berezian zaindu behar da pertsona horiekiko harreman zuzena, horien prestakuntza, proiektuarekin duten bat etortzea, proiektuan duten parte-hartze aktiboa.

**16. 129.** Afiliatuen batzar beharrezko tresna dira, ildo horretan, militanteen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko. Ongi prestatutako bilerak izan behar dute horiek, eta, eztabaidaren, ekarpenen eta ideia kontrastearen bidez, estrategiak eta helburuak adosten utzi behar dute.

#### \* **Lau federazioak indartu**

**16. 130.** "4x12=29" Antolamendu Plana martxan ipintzeak lau federazio sendoago sortzera eraman gaitu. Federazio horiek afiliazio pisu homogeneoagoa dute, eta berdintasunezko presentzia politikoa Batzorde Nasionalean.

**16. 131.** Aipatu lau federazioek:

**16. 132.** – Bitarteko gehiago eta presentzia osoagoa dituzte eskualdeetan.

**16. 133.** – Zuzendaritza organo indartuak dituzte. Federazio bakoitzean Batzorde Iraunkorra eratzen da, eta horri dagokio federa-



zioaren kudeaketa eta ohiko zuzendaritza. Batzorde Iraunkorraren osakera: Idazkari Nagusia, antolamendu arduraduna, eta kide kopuru jakin bat, lurraldeetatik edo sektoreetatik datozenak. Zuzendaritza errealago eta trinkoago bat sendotu nahi da, ekiteko gaitasuna duena, eta Federazio Idazkaritzen bilerak dinamizatuko dituen, lau federazio profesionalen estatutuetan jasorik dagoen bezala.

**16. 134.** Federazioen egitura berri horrek bide bat du egiteko, negoziatio kolektiboan planteatutako helburuei erantzuten joateko nagusiki. Etapa honetako erronka hirukoitza: zein metodologiaz egin aurre geure lanari, nola zorrotasunez ezarri geure helburuak eta zer nolako planak asmatu haiek iristeko. Lan sistema berri honek lan agenda berri bat ezarrazten digu, eta berau geuk menderatu eta planifikatu behar dugu. Lan sistema berriak, gainera, erakunde osoa ebaluatzen eta positiboki tentsionatzeko aukera eman behar digu, bai eta gertatzen diren zeharitzeak eta desegokitasunak zuzentzen ere.

**16. 135.** Geure antolamendu ereduak garatzeak eta geure giza baliabideek sindikalismo eredu aktiboago bat egiten lagundu behar digute, eta sindikalismo eredu aktiboago horrek gai izan behar du lantokietan eguneroko sortzen diren arazoei erantzuteko, arazo horiek gure egoitzetara berez hel daitezten zain egon gabe. Hurbilagoko lan horri esker, beren eskubideak eta interesak babesteko tresna eragingarritzat joko gaituzte langileek. Izan ere, esplotazioa, ezegonkortasuna, diskriminazioa... enpresetan daude: bila ditzagun, eta egin diezaiegun aurre.

**16. 136.** Lan sistema horren bilaketan, federazioko antolamendu arduradunak jarraipen metodo egoki bat ezarri behar du, idazkari federalen lanaren jarraipen parametroak identifikatuz joan dadin. Jarraipen irizpide kuantitatiboak (afiliazioa, ordezkariak sindikala...) ez ezik, beste hauek ere sartu behar ditugu: sindikatu atal bakoitzaren sendotze maila, ordezkariak proiektuarekiko duten lotura maila, negoziatio kolektiboaren prestaketan eta gauzatzean afiliatuek duten parte-hartze maila...

**16. 137.** Idazkaritza Federalak sendotzeaz gainera, Federazioetako Batzorde iraunkorrek bide bat egin behar dute. Bide horretan, lan dinamika osoago bat garatu behar da, eta kideen papera sendotu. Kide horiek, beren aldetik, bi hauek konbinatu behar dituzte: antolamendu planeko enpresen gainera ardura zehatza, batetik, eta organoaren dinamizazio egiten dioten ekarpena, bestetik.

**16. 138.** Enpresa batzuen gainera arduradun zuzenak, haiekiko lan sistematikorekin batera, federazio osoaren gainera (eskualde esparruan) ardura politikoa dauka. Eskualde idazkari federalari dagokio federazioa gidatzea eskualdean, eta pertsona horrek gogor saihestu behar du konpartimentu estankoa sor daitezkeen idazkari federalen artean (eskualde berean idazkari federal bat baino gehiago denean) eta ETEen pertsona arduradunekin.

**16. 139.** Azpikontratatu kasuak gertatzen diren esparruetan ere, lan koordinatua bultzatu behar dugu, une oro, enpresa nagusiaren pertsona arduradunaren eta azpikontratatuaren enpresaren pertsona arduradunaren artean.

[ **Federazioko antolamendu arduradunak jarraipen metodo egoki bat ezarri behar du, idazkari federalen lanaren jarraipen parametroak identifikatuz joan dadin. ]**

[ **Enpresa batzuen gainera arduradun zuzenak, haiekiko lan sistematikorekin batera, federazio osoaren gainera (eskualde esparruan) ardura politikoa dauka. Eskualde idazkari federalari dagokio federazioa gidatzea eskualdean, eta pertsona horrek gogor saihestu behar du konpartimentu estankoa sor daitezkeen. ]**

[ Atak sindikalak garatzeak Herri-batzak dinamizatzea erraztu behar du. ]

[ Herri-batzak. Eskualdeko sindikatu ataletako nahiz ETEetako militante kualifikatuenak biltzen eta dinamizatzen ditu. Herri-batzak dinamika federal horiek kohesionatzen eta integratzen ditu bere esparruan. ]

\* **Eskualde Batzorde Federalak**

**16. 140.** Federazioak eskualde esparru bakoitzean garatzea ezarri behar dugu lehentasunzat datozen urteetarako, eta, horretarako, Eskualde Batzorde Federalak eratu behar dira.

**16. 141.** Eskualde Batzorde Federaletan eskualdeko sindikatu atal garrantzitsuenak biltzen dituzte nagusiki. Federazioko militantzia gune nagusiko parte diren ETEetako ordezkariak ere sartu ahal izango dira Eskualde Batzorde Federal horietan. Eskualde Batzorde horien zeregin nagusia negoziazio kolektiboa beren esparruan laguntzea eta bultzatzea izango da, eta, horretarako, Eskualde Federazioaren lan plana proposatuko diote Lanbide Arteko Eskualde Batzordeari.

**16. 142.** Herri-batzaren bitartez hartzen dute parte eskualdeko dinamikan Eskualde Batzorde Federaletako militanteek.

\* **Batzarretan parte hartzea sustatu**

**16. 143.** Atal sindikalen ohiko ibilmoidea gorabehera, afiliazio osoaren, eta militantzia osoaren komunikazio eta parte-hartze iraunkorra sustatu behar dugu, batzarrak egitea bultzatuz.

**16. 144.** Parte-hartze sindikal tresna funtsezko bilakatzen da, horrela, batzarra, eta, batzar horren bitartez, ELAren proiektu sindikalarekiko identifikazio eta atxikimendu iraunkorra bultzatu behar dugu langileen artean.

**D) HERRI-BATZAK ERATZEA ETA DINAMIZATZEA. ESKUALDE INTEGRALA GARATZEA**

\* **Herri-batzak eratzea eta dinamizatzea**

**16. 145.** Atak sindikalak garatzeak Herri-batzak dinamizatzea erraztu behar du. Ekintza sindikala enpresa (handi nahiz txiki) guztietara zabalitzeak, gizarte bidezkoago baten aldeko borrokan jauzi kualitatiboak emateko premiak eta nazio eraikuntzaren aldeko apustuak tokian oinarritutako antolamendu eredu integrala sakontzeko eskatzen digute.

**16. 146.** Honela defini genezake Herri-batza: eskualde batzak berak sortutako erakunde; eskualdeko herri bat edo gehiago biltzen ditu; militantzia masa kritikoa dauka, eta egitura-bitartekoak (liberatuak eta metatuak ordurengatik) eta egoitzak zein zerbitzuak ditu, funtzionamendu integrala bermatzeko, eskualde batzaren zuzendaritzaren eta dinamika berraren barruan beti ere. Militantzia nukleoak definitzen du nagusiki Herri-batza. Nukleo horrek, tokian oinarritutako sektore arteko eredu horretan kokaturik, handitu egiten du Eskualde Batzaren proposatzeko eta mobilizatzeko gaitasuna.

**16. 147.** Herri-batzak lanbide arteko edo sektore arteko izaera du. Eskualdeko sindikatu ataletako nahiz ETEetako militante kualifikatuenak biltzen eta dinamizatzen ditu. Herri-batzak dinamika federal horiek kohesionatzen eta integratzen ditu bere esparruan.

**16. 148.** Oinarri erakunde horien eratzearen eta martxan ipintzearen bilakaerak berak erakutsiko digu, praktikan, zein funtzio espezifiko be-



teko duten Herri-batzek eta Eskualde Federazioek. Baina esan dezakegu eskualde federazioa zera dela, federazioak eskualde mailan duen antolamendu esparrua, eta federazio horrek bere funtzioa bete behar duela, bai negoziazio kolektiboaren laguntzan eta gauzapenean (nagusiki), bai sindikatu atalen antolamenduan ere. Herri-batzek, ETEetako bisitei zein zerbitzuen antolamenduari (eskualde araudietan daude jasorik alderdi horiek) lagundu ez ezik, negoziazio kolektiboaren dinamizazioa ere bultzatu behar dute beren esparruan, bai eta ekintza sindikala ere, gizarte ereduari dagokionez nahiz maila politikoan.

**16. 149.** Enpresako sindikatuaren aitzindari direnek zuzenean parte hartzeak indar-harremana hobetzen digu, noski, eta, indar-harreman hobe hori alde dugula, gure proiektuarentzat funtsezkoak diren eremuei hel diezaiekegu, egin ditugun aukeretatik abiatuta. Horrek, gainera, lan sindikalean dispersio elementuak sartu beharrean, hobetu egiten du lan hori, eta errazago da horrela arazoaren ikuspegi globalagoa izatea, nahiz eta kontuan izan behar den arazo horiek ez direla, ezta gutxiagorik ere, enpresan agortzen. Neoliberalismoa zer den globalki ulertzen duen eta alor ezberdinetan borroka militantea egitea onartzen duen militantzia sindikala da, dudarik gabe, enpresetan praktika korporatibo, kontserbadore eta elkartasunik gabeak egitea saihesteko antidotorik onena.

**16. 150.** Herri-batzek irekiak izan behar dute, eta militantziaren oso parte-hartze aktiboaz eztabaidatuko, aztertuko, erabakiko eta egingo dira gauzak bertan. Prestakuntzari ere garrantzi handia eman behar diogu, gizarte eredu eta nazio eraikuntza bezalako eremuetan. Kontsulta eta hausnarketa iraunkorki erabiliko dira bileretan.

**16. 151.** Herri-batzak prest egongo dira beste izaera eta helburu batzuk dituzten, beste mundu hobe baten aldeko borrokan buru-belarri sartuta dabilzan militanteekin eta erakundeekin batera lan egiteko.

**16. 152.** Herri-batzetan aritzeak erraztu egin behar du militantzia beste kolektibo berri batzuetara hedatzea: gazteen, emakumeen eta etorkinen kolektiboetara, esaterako.

**16. 153.** ELAko eskualde arduradunek oso eginkizun garrantzitsua izan dute azken urteetan Eskualde Batzordeetatik eskualde integralak sendotzen. Orain, Herri-batzak garatzea da lehentasuna. Egia da, bai, egunez eguneko lana nekagarria dela; eskualde mailan ardura nagusia izateak era askotako ardurak eta kargak dakartza berekin. Baina gure ildo sindikala aurrera eramateak Eskualde Idazkariak zeregin horretan erabat sartzea eskatzen du.

**16. 154.** Gai horretan, funtsezkoa da Herri-batzaren arduradunak laguntzea. Berak dinamizatu behar du herri-batzordea, hura sindikatuaren bizitzan eta aritu behar duen ingurunean integra dadin.

**16. 155.** Gutxien aztertu dugun eremua da hori. Beste eremu batzuetan bezala, hurbilketak egin beharko ditugu bata bestearen ondoren, sindikatuko egitura guztien inplikazioaz, Konfederaziotik ere laguntza eta bultzada bizia ematen dela.

[ Herri-batzek irekiak izan behar dute, eta militantziaren oso parte-hartze aktiboaz eztabaidatuko, aztertuko, erabakiko eta egingo dira gauzak bertan. Prestakuntzari ere garrantzi handia eman behar diogu, gizarte eredu eta nazio eraikuntza bezalako eremuetan. Kontsulta eta hausnarketa iraunkorki erabiliko dira bileretan. ]



[ Eskualdea oso leku egokia da prestakuntza sustatzeko, horixe egiten jarraitu behar baitugu. ]

[ ELAren egoitzetako harrera eta arreta behar bezala antolatzea da hobetu beharreko alderdietako bat, egoitza horiek gero eta erreferentzia garrantzitsuagoa baitira langileentzat. ]

- *Eskualde Kontseilua*

**16. 156.** Herri-batzen garapenaren aurrerakadak Eskualde Kontseilua eratzeko eta ibilarazteko oinarriak ezarriko ditu. Eskualde Kontseilua Eskualde Batzordeko eta Herri-batzetako kidez osaturik egongo da. Osara horri esker, parte-hartze gero eta handiagoa izango da, apurka-apurka, eskualde batzean, Eskualde Batzeko militanteen aldetik.

**16. 157.** Eskualde Kontseiluaren eginkizun nagusiak hauek izango dira, besteak beste (onartutako eskualde araudietan jasotzen den legez): Eskualde Batzaren norabide orokorra zehaztea, ildo eta helburu konfederalen barruan beti ere; Herri-batzen eraketa berrestea; Eskualde Batzordeak proposatuta, Eskualde Batzaren Araudia onartzea eta aldatzea, eta eskualde batzaren urteroko Jarduera Plana nahiz kudeaketa txostena onartzea.

\* *Eskualde integrala garatzen jarraitu*

**16. 158.** Modu positiboan baloratu dugu eskualde integralak azken urte hauetan izan duen garapen maila, batez ere ekintza konfederalak, federalak eta eskualdeetakoak gauzatzean. Esperientziak erakusten du eskualde batzeko kideen talde dinamikan dagoela eredu horren indarra. Talde dinamika on batek, izan ere, erakunde trinkoagoa bermatzen du, eta lan modu eta emaitza hobekak ekartzen ditu.

**16. 159.** Eskualde integralak, hala ere, gaitasun handiak ditu garatzeko eta hobetzeko:

**16. 160.** – Parte-hartze aktiboagoa izatea negoziazio kolektiboaren prestaketan (bai sektoreetan, bai enpresetan), egiten den ekintza sindikalean eta lortutako errebindikazio edukien balorazioan.

**16. 161.** – Konfederazioaren eztabaidan eta hausnarketa ideologikoan laguntzea, eskualde batzen diagnostikoak/proposamenak egiteko gaitasuna hobetzen duela. Ildo horretan, eta azken urteetan frogatu denez, eskualdea oso leku egokia da prestakuntza sustatzeko, horixe egiten jarraitu behar baitugu.

**16. 162.** – Militanteak erakartzeko eta motibatuzko lan sistematikoago bat egitea, Herri-batzak eratzen dituela eta lan dinamika egiazkoak ematen dizkiela horiei. Modu horretan, militantziak eskualde dinamikan parte hartzea sustatuko litzateke, eta Eskualde Batza demokratikoago bihurtzen lagunduko, halaber.

**16. 163.** ELAren egoitzetako harrera eta arreta behar bezala antolatzea da hobetu beharreko alderdietako bat, egoitza horiek gero eta erreferentzia garrantzitsuagoa baitira langileentzat. Helburu hori oinarritzat bezain garrantzitsua da, egoitza horretan lanean ari diren lagunek (baita zerbitzu juridikokoek ere) beren lana planifikatu eta egin ahal izan dezaten. Beharrezkoa da ordu sindikalak metatzeagatik liberatutako eta profil egokia duten pertsonen ekarpena. Eskualde Batzordeak, ikuspegi integral horrekin, egoitzetako arreta antolatu eta bermatu behar du. Helburu hori are garrantzitsuagoa da toki mailako sektore arteko ikuspegi batez aurrera egin nahi dugun fase honetan.

**16. 164.** Egoitzetako arreta egokiro antolatzeak, bestalde, elkarrekin lotu behar ditu arreta, ekintza sindikala, afiliazioa, ordezkartza eta mili-



tantzia. Gure egoitzetatik igarotzen den jende kopurua ikusirik, bisita horien informazioa federazioaren edo ETEen arloaren arduradunari helarazteak erantzun osoago eta eraginkorragoa ekarri behar du planteatu denarentzat, eta, bide batez, abagune ona da inor afiliatzeko, hauteskunde batzuk bultzatzeko eta, horrela, pertsona bat gure proiektura erakartzeko.

- *Eskualde Batzordea. Osaera eta eginkizunak*

**16. 165.** Eskualde Batzordea da sindikatuak eskualdean daukan zuzendaritza organoa. Batzorde horrek, bertan ari diren ELAko erakunde desberdinak integratuz, jarduera konfederala, federala eta eskualdekoa garatzen eta gauzatzen ditu modu integralean. Eskualde Batzordeak, beste alde batetik, bere errealitatearen gaineko azterketak eta proposamenak egiten ditu, Konfederazio osoaren diagnostiko eta proposamen egite gaitasunak laguntzen dituela.

**16. 166.** Eskualde Batzordearen osaera eta eginkizunak aipatutako eskualde araudietan daude zehazturik. Hauek guztiak egongo dira Eskualde Batzordean: Eskualde Idazkaria, eskualdeari atxikitako federazio idazkaritzetako kideak, lanbide arteko arduradunak, Herri-batz bakoitzen arduradunak, eskualdeari atxikitako ETEen arduradunak eta eskualdean eratuta dauden zerbitzuen eta alorren arduradunak.

**16. 167.** Eskualde Batzordeari dagokio Eskualde Batzaren jarduera plana proposatzea, Eskualde Kontseiluan onar dadin. Plan hori integrala eta bakarra izango da bere esparruko erakunde guztientzat. Jarduera plan hori eratzeak orain duena baino garrantzia handiagoa izan behar du Eskualde Batzordeetan. Jarduera plan horretan argi eta garbi jasoko da zein helburu dauden eskualdean: afiliazio mailan, hauteskunde sindikalean, negoziazio kolektiboan, ekintza sindikalean, prestakuntzan, euskararen normalizazio planean, genero eta gazte politikan... Helburu global horiek helburu banatu eta neurgarri bihurtzen saiatu behar da.

**16. 168.** Negoziazio kolektiboaren atalean, eskualde batzordeak negoziazio kolektiboaren eskualde mapa sartuko du Planean, negoziatzeko daukan sektore eta enpresako negoziazio kolektiboaren (enpresa handikoaren nahiz txikikoaren) diagnostiko integrala daukala beti. Mapa horretatik abiatuz, Eskualde Batzordearen funtsezko zeregina negoziazio kolektiborako lan plan integral bat egitea da. Lan plan horrek honako alderdi hauek izan behar ditu kontuan, besteak beste: informazioa eta eztabaida antolatzea sektore esparruan, esparruko enpresa guztiak (batzordedunak eta ETEak) sartzen dituelarik; gatazkak antolatzea; girotze orokorreko ekintzak, eta, gatazka zehatz batzuetan, negoziazio prozesuen bilakaera jarraitzea. Iraunkorra izan behar du gai horiei buruzko eztabaidak Eskualde Batzordearen bileretan.

**16. 169.** Jarduera planak funtsezko balioa hartu behar du Eskualde Batzordearen dinamikan. Eskualde Batzordeko kide guztiek hartzen duten parte plan horren eraketan eta ondoko jarraipenean, eta, hain zuzen ere, bakar eta integrala izateak ematen dio balioa plan horri. Kohesio tresna gertatu behar du organoaren dinamikan.

[ Eskualde Batzordea da sindikatuak eskualdean daukan zuzendaritza organoa. Batzorde horrek, bertan ari diren ELAko erakunde desberdinak integratuz, jarduera konfederala, federala eta eskualdekoa garatzen eta gauzatzen ditu modu integralean. ]

[ Jarduera planak funtsezko balioa hartu behar du Eskualde Batzordearen dinamikan. ]

[ Ikusirik nolako garapen maila duen egun erakundeak, onartutako eskualde araudietan Eskualde Batzordeari ematen zaio Eskualde Idazkaria izendatzeko eskuduntza, Nazio Batzordea ados bada. ]

- *Eskualde araudiak. Eskualde Batzeko kideen estatusa*

**16. 170.** Aurreko kongresu arteko aldian, Ibaizabal-Nerbioi, Ezkerraldea-Kadagua, Oria-Goierri eta Urola-Kosta eskualde batzen Araudiak onartu dira. Hurrengo kongresu arteko aldirako, gainerako Eskualde Batzen Araudiak gelditzen dira onartzeko. Hona Eskualde Batz horiek: Gasteiz, Deba, Oarso-Bidasoa, Donostia, Gernika-Durango, Eskumaldea, Bilbo eta Nafarroa. Horretarako, beren Herri-batzak definitzen eta eratzen egin behar dute aurrera Eskualde Batz horiek. Eskualde Araudi horiek egingizun hauek eduki behar dituzte funtsean:

**16. 171.** – Eskualde Batzaren organoak (Eskualde Batzordea, toki batzordeak eta Eskualde Kontseilua) arautzea.

**16. 172.** – Eskualde Batzeko eta Herri-batzetako kideen estatusa arautzea.

**16. 173.** Eskualde araudiak ez dira helburu bat berez, baizik eta eskualdearen antolamendu garapena bultzatu behar dute, Herri-batzen dinamika martxan ipinita.

**16. 174.** Ikusirik nolako garapen maila duen egun erakundeak, onartutako eskualde araudietan Eskualde Batzordeari ematen zaio Eskualde Idazkaria izendatzeko eskuduntza, Nazio Batzordea ados bada. Izendapen hori lau urteko agintaldirako izango da. Gainerako lanbide arteko eta ETEen arduradunak ere Eskualde Batzordeak izendatuko ditu, Nazio Batzordearekin adostuta. Eta eskualdean eratuta dauden alorren arduradunak ere Eskualde Batzordeak izendatuko ditu.

## E) ETEETAKO LANA

**16. 175.** Enpresa txiki eta ertainetako (ETE) antolamendu planaren bitartez, egungo lan merkatu gero eta sakabanatuago eta atomizatuagora egokitu dugu lan sindikala, enpresa horietako langileengana hobeki heltzeko. Enpresa txikiak sekulako pisua du Euskal Herrian; izan ere, sol-datapeko langile guztien erdia baino gehiago (%57) berrogeita hamar langile baino gutxiagoko enpresetan ari da lanean.

**16. 176.** ETEek zati handia osatzen dute federazioetan, nahiz eta enpresa horien arduradunek beren lan metodoa duten, eta nahiz eta planaren jarraipen zuzena federazioaren Idazkaritzaren dinamikatik at dagoen. Une honetan, antolamendu planeko enpresa txikien eta ertainen % 72,26 ETEen alorrean dago. Gizalan da, egun, enpresa txiki eta ertainek zuzenean Idazkaritzaren mende dirauten federazio bakarra.

**16. 177.** Urte hauetan egindako bideak balorazio positiboa merezi du. Alor honetako hasierako asmotik abiatuak, zerbitzu-emate asmoa batez ere, aurrera egin dugu enpresa txiki eta ertainetan egindako lanaren garrantzi politiko eta sindikalean. ETEen arduradunen lanbide arteko edo sektore arteko izaera eta eskualde batzordearen dinamikan integratzea funtsezkoak izan dira sendotze horretarako. Hortik jarraitu behar dugu aurrera, eta eskualde batzak daukan garapenaren beraren arabera izango da aurrerakada.

**16. 178.** Lan metodoa, bisitak aurretik eta sistematikoki planifikatzea, bisita horien jarraipena egitea... funtsezkoak dira eremu horretan, en-



presa txiki guztietara heltzen dela (ohiko eran heldu ere), eta bisitak egokiak direla bermatzeko.

**16. 179.** Batzorde eragiletik honako hauei egin zaie jarraipena, batez ere: afiliazioaren atalari, ordezkaritza sindikalari eta, neurri txikiago batean, ordezkariak proiektuarekin duten loturari. Eraitza gogobetegarriak izan dira atal horietan. Afiliazioaren atalean, antolamendu planeko afiliazioaren %20,61 ETEen alorrean dago (2004ko maiatzeko datuak). Ordezkaritza sindikalari dagokionez, %40,83 dugu langileen ordezkari-tan Euskal Herrian: %45,92 EAEn, eta %23,17 Nafarroan (2004ko apirileko datuak). Hamabitik bost eskualdetan ordezkariaren %50 gaintzen dugu. Hauek dira bost eskualdeak: Urola-Kosta, Donostia, Ibaizabal-Nerbioi, Eskumaldea eta Ezkerraldea-Kadagua. (Gizalaren datuak daude sartuta datu horietan).

**16. 180.** Datozen urteetan, baditugu garatu eta hobetu beharreko zenbait alderdi ere.

**16. 181.** ETEetako ordezkariak dinamika federalekin eta eskualdekoe-kin duten lotura sendotzen lan egin behar dugu. Ordezkari horiek eskualde batzeko gune militanteen parte izan behar dute.

**16. 182.** Ekintza sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren atalean, ETEen alorra landu behar dugu, enpresa mailako negoziatorako esparru egokiak baitira. Azken urte hauetan, ETE dezentetan egin dugu negoziazioa, baina bide luzea dugu egiteko oraindik.

**16. 183.** Sektore-negoziazioaz bezainbatean, hitzarmen sektorialen gaineko ardura Idazkaritzan dagoen arren, hitzarmen horiek enpresa txikietan aplikatzen dira gehien bat. Beharrezkoa da, beraz, idazkaritzaren dinamika eta ETEetako jarraipena elkarrekin lotzeko metodo bat eratzea, gatazka sektorialean behar diren tirabira, motibazioa eta antolamendua izan daitezten.

**16. 184.** Funtsezkoa da bi egituren arteko harremana hobetzea, konpartimentu estankoak sortzeko arrisku guztiak gaintzea (nahiz eta airtortu behar dugun problema hori zorrotzagoa zela ETEren antolamendu plana martxan ipintzearen hasieran).

**16. 185.** Idazkaritzaren arduraduna federazio osoaren arduraduna da bere eskualdean, nahiz eta ETEen arduradunarena izan ardura zuzena. Orain, "4x12=29" antolamendu plan berriarekin, horretan sakontzeko eran gaude, zeren ia federazio guztiak baitaude eskualde guztietan. Eskualde Batzordeetan, baina baita Idazkaritzetan ere, idazkari federalen ardura integrala bultzatu behar da, eta metodo zehatzak ezarri behar dira horri jarraitzeko.

## F) PRESTAKUNTZA SINDIKALA

**16. 186.** Hona prestakuntza sindikalaren hiru helburu nagusi eta iraunkorrak: militantziarekin lotura sortzea, hark proiektu sindikalarekin duen identifikazio maila handitzea eta hura antolamendu mailan kohe-sionatzea. Bide horretan, estu-estu loturik daude ekintza sindikala egiteko gaitasuna, militantzia eta prestakuntza.

[ Batzorde eragiletik honako hauei egin zaie jarraipena, batez ere: afiliazioaren atalari, ordezkaritza sindikalari eta, neurri txikiago batean, ordezkariak proiektuarekin duten loturari. Eraitza gogobetegarriak izan dira atal horietan. ]

[ ETEen alorra landu behar dugu, enpresa mailako negoziatorako esparru egokiak baitira. ]

[ Hona prestakuntza sindikalaren hiru helburu nagusi eta iraunkorrak: militantziarekin lotura sortzea, hark proiektu sindikalarekin duen identifikazio maila handitzea eta hura antolamendu mailan kohe-sionatzea. ]

[ Federazioen eta eskualdeen parte-hartzea sakondu behar dugu, bai ikastaroen asmakuntzan, bai horien eta beste prestakuntza bitarteko batzuen gauzapenean. ]

[ Jasotzaileen eta edukien mailan, sindikatuko koadroen eta militantziaren nukleo aktiboenen prestakuntzari eman behar diogu lehentasuna. ]

**16. 187.** Bere alderdi nagusietan sendotuta dagoen gure sindikatua-  
ren alor batez ari gara. Izan ere, 2.000 lagun inguruk egiten du presta-  
kuntza ikastaroren bat gure erakundean, urtero. Ikastaro horietako  
gaiak ugalduz eta hedatuz doaz urtetik urtera. Militante kualifikatue-  
nen nukleoak prestakuntza izaerako argitalpenak jasotzen ditu aldizka.  
Gai desberdinetako solasaldietara eta hitzaldietara gonbidatzen dituzte,  
halaber.

**16. 188.** Hobetu behar dugu egiten ari garena, zalantzarik gabe, bai-  
na ez dugu jarduera osoa zehatz-mehatz berrikusiko hemen. Alor honek  
datorren lau urtean dituen helburuetako batzuk:

**16. 189.** – Antolamendu mailan, federazioen eta eskualdeen par-  
te-hartzea sakondu behar dugu, bai ikastaroen asmakuntzan, bai hor-  
rien eta beste prestakuntza bitarteko batzuen gauzapenean. Urte as-  
kotako esperientziak erakusten digu prestakuntzak, militanteak  
prestatu ez ezik, haiek elkarrekin lotzen, elkarrengana hurbiltzen eta  
elkarrekin identifikatzen dituela. Ikuspegi horretatik begiratuta,  
prestatu gure jarduera sindikalaren ohiko ibileraren eranskin  
bat izatetik urrun, sekulako aukera da, eta militantzian oinarritutako  
erakunde batek ahalik eta ongien erabili behar du.

**16. 190.** – Jasotzaileen eta edukien mailan, sindikatuko koadroen  
eta militantziaren nukleo aktiboenen prestakuntzari eman behar dio-  
gu lehentasuna. Zirkunstantzia zehatzek eskatzen dute hori. Horieta-  
ko batzuk: azken urteetan hasi dugun belaunaldi berrikuntza zabala,  
bai koadroetan, bai gure erakundeko militantzian; garai hauetan dis-  
kurtso aurrerakoi bati eusteko dagoen zailtasun objektiboa, eta, az-  
kenik, ez garrantzi txikiagokoa haatik, enpresetako ohiko bizitzako  
dinamika sindikalean agertzen diren helburu gero eta konplexua-  
goak. Ez dagokio atal honi gai hori gehiago zehaztea, baina bai aipa-  
tzea. Ildo horretan, erakunde guztiek, eta bereziki alor honek, aha-  
legin bat egin behar dute prestakuntza plan bat garatuz joateko.  
Prestakuntza plan horrek ez du soilik orokorra izan behar; eskaintza  
espezifikokoak izan behar ditu, halaber, koadroen edo militanteen ar-  
duren arabera: enpresako errebindikazio dinamikarako hain beha-  
rrezkoak diren alderdi mikroekonomikoetatik, gizarte ereduarekin  
lotutako guztiraino (horrek gure toki eta eskualde errealitateetan du  
bere isla eta). Guztiarekin ere, demokrazia eta oinarritzko eskubideak,  
enpresa ekonomia eta negozioazio kolektiboa, gizarte eredia, bake  
eta nazio emantzipazio prozesua nahiz beste mundu bat eraikitze-  
ko agenda dira ELAko militantzia sindikalaren gai edo ardatz globalak.

**16. 191.** – Gehiago koordinatu eta batera aritu behar dugu beste  
departamendu batzuekin eta, bereziki, negozioazio kolektiboarenare-  
kin. Ezarritako errebindikazio estrategia garatu nahi badugu (lan  
zentroa du horrek funtsezko oinarri), lehentasunezko helburu bat  
dugu: batetik, gure militanteek enpresetan behar dituzten presta-  
kuntza elementu espezifikokoak zehaztea; bestetik, prestakuntza es-  
kaintza hori planifikatzea.

**16. 192.** Azkenik, iruditzen zaigu bi aukera ageri zaizkigula presta-  
kuntzaren alorrean, eta ez ditugula alferrik galtzen utzi behar.

**16. 193.** – Lehena: gure praxi sindikalaren prestakuntza balioa us-  
tiaztea edo erabiltzea. Esan genuen zerbait horretaz, aurreko kon-



gresuan. Baditugu gatazkak noiznahi hainbat enpresetan eta sektoretan. Eta aitortu behar dugu ez dugula ateratzen prestakuntza etekinik esparru horietan gertatzen diren sindikatu eta giza esperientzietatik. Gatazka horiei buruzko hausnarketak zerbitzu handiagoa egin behar digu. Ahalegin berezi bat egin behar dugu gatazka horien lekukotasun grafikoak, editorialak eta are ikus-entzunezkoak jasotzeko: ez soilik gure historia sindikalaren zati direlako, baizik eta baita prestakuntzaren aldetik interes handiko (eta alferrik galtzen ez uzteko) kapitala direlako ere.

**16. 194.** – Bigarrena: bete ditugu Konfederazioaren sistema informatiko berriak gauzatzeko helburuak, eta garatu ditugu, halaber, ELAren eta Manu Robles-Arangiz Fundazioaren web orriak. Horri esker, jauzi handia egin dezakegu ELAko militanteei prestakuntza materialak hobeto eskaintzeko orduan. Egin dugu urrats handi bat bide horretan, web gunearen bitartez. Orain, harago joan behar dugu, eta material elektronikoa banatzen hasi behar dugu, erregulariki, ahal den atal sindikal guztiei.

**[ Gatazka prestakuntzaren aldetik interes handiko (eta alferrik galtzen ez uzteko) kapitala direlako ere. ]**

## ALIANZA SINDIKAL ETA SOZIAL ZABALAK SORTZEKO LANA

**17. 101.** Egungo testuinguruan, sindikalismoak arrisku handi bat du: diskurtso ofiziala onartzeko tentaldian erortzea, diskurtso horren eta berorrek dakartzan neurrien lagun bihurtzea, errebindikazio jarrerak zeharo alde batera utzirik.

**17. 102.** Arrisku horrekin batera, beste bat: ordezkari-tza sozialaren monopolioa eskatzeko tentaldia, erakunde esparruan. Ez gaude ados horrekin, zeren:

**17. 103.** – Erlatibizatu egin behar baita elitezko, erakunde-zko eta irudizko prozesuen garrantzia, maiz zerikusi handiagoa baitute horiek botereak (edo enpresari-ek) berorietaz egiten duen erabilerarekin, egiazko indar sindikalarekin baino. Tripartismoa krisian dago aspalditik.

**17. 104.** – Parte-hartze soziala beharrezkoa da (parte-hartze-zko demokrazia...), eta horrek esan nahi du erakunde sozialek agerian egon behar dutela. Ez da partekatze-zko beldur izan behar, erre-ualitate batean oinarrituta.

**17. 105.** ELAK garbi dauka saihestu egin behar direla arrisku eta tentazio horiek. Errebindikazio planteamendu baterantz jotzea da sindikalismoaren bidea, eta, horretarako, sendotu egin behar dugu sindikatu gisa, ponentzia honetan jasotzen den guztiaren ildotik.

**17. 106.** Horrekin batera, aliantzak indartu behar ditugu. Bistakoa denez, eta praktikan ikasi dugu hori, aliantza sindikalek ez dute izan behar sigla batura hutsa; aitzitik, egiazko edukietan, partekatutako estrategietan, jokabide komunetan oinarritu behar dute aliantza horiek. Bestela, siglen baturak ez dakar indarren batura, baizik eta errebindikazio posizioen ahultzea.

**17. 107.** Sindikalismoak beste gizarte erakunde batzuen premia du, eta haiekin elkartu behar du. Zenbait esparru (gizarte eredu-a, subiranotasunaren aldeko prozesua...) gizarte osoari dagozkio zuzenean. Alor horretan, ireki dugu jadanik bidea, eta bide hori sakondu behar dugu orain (Foro sozialak, etxebizitzari buruzko proposamenak eta mobilizazioak, trenbide sarea, oinarritzko errenta...).

**17. 108.** Beste batzuekin batera aritzeko lanean, badira beharrezko zenbait jarrera edo baldintza, eta honako hauek nabarmen ditzakegu:

**17. 109.** – Errebindikazio planteamendua, borroka eraldatzailea. Errebindikazio planteamendu bat (ez laguntze planteamendu bat) partekatzen dugunon artean egin behar da aliantza.

**17. 110.** – Gainerakoen izaera aitortuta egin konbergentzia. Elkar aitortu behar dute erakunde aliatuek, bestelako iritziak ezagutzeko eta errespetatzeko. Kontua ez da norberak nahi duena inposatzea, eta lan modu hori (hitz egitea, gauzak azaltzea, ulertzea, hitzartzea eta hitzartutakoa errespetatzea) funtsezkoa da. Ildo horretan berean, ahalik eta aliantza zabalena bilatu behar da, tamainagatik inor baztertu gabe (ez da ezer txikirik, norabide zuzenean baldin badao).